

20 25

IRAUNKORTASUNARI
ETA KLIMARI
BURUZKO URTEKO
TXOSTENA

DONOSTIA



Zuzendaritza

Sarobe Txopeitia, Leire

Testuen idazketa

González Baragaña, Manu

Sarobe Txopeitia, Leire

Diseinua eta maketazioa

SÍSEVE - www.siseve.es

IRAUNKORTASUNAREN ETA KLIMAREN BEHATOKIA

Cristina Enea Fundazioa

Mandasko Dukearen pasealekua 66, 20012 Donostia/San Sebastián

T: +34 943 45 35 26

www.cristinaenea.eus

observatoriosostenibilidadss@donostia.eus

cristinaenea@donostia.eus

Ekaina 2026

Esku artean duzun Iraunkortasunaren eta Klimaren 2025eko Txostenak, Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren eta Klimaren Behatokiak egindako dokumentua da. Bertan, xehetasunez aztertzen dugu Donostiaren metabolismoa, iraunkortasunari dagokionez. Beraz, lehen azterketa 2008an argitaratu zenean hasi zen analisi-segida baten azken eguneratzea da. Horregatik, informazio- eta kontraste-iturri baliotsua da, azken urteetako datuen bilakaera etengabe aztertzeko aukera ematen baitu.

Txosten honek Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Donostiako Planean (DSS Klima 2050) ezarritako jarduera-eremuekin bat egiten du. Jarraibide-orri horretan karbono-emisioak murrizteko eta hiria klima-agertoki berrietara egokitzeko neurriak jasotzen dira. Gainera, hirian bizi, lan egin eta bisitatzen dutenen bizi-kalitatea eta ongizatea ebaluatzeko erabakigarriak diren beste esparru batzuei buruzko informazioa ematen du azterlanak.

Beraz, txosten honetan datuak hari logiko baten bidez egituratuz aurkezten dugu informazioa: okupatzen dugun lurraldearen nodik-norakoak (hiri-eredua, natura eta biodibertsitatea), lurralde horren barruan mugitzeko modua (mugikortasuna eta garraioa), lurralde horretako energiaren erabilera (sorkuntza eta kontsumoa), lurralde horretan kontsumitzen eta berrerabiltzen ditugun kontsumo-ondasunak (elikagaiak, ura, hondakinak) eta, azkenik, lurralde horretan bizi garen pertsonen bizi-kalitatea (sozioekonomia, osasuna, parte-hartzea, etxebizitza).

Ezin dugu hitzaurre hau amaitu Txosten hau egiteko beharrezko informazioa eman diguten pertsonen gure esker ona berriro adierazi gabe. Udal sail askotako eta beste erakunde batzuetako teknikariak dira, eta, haien ezagutzarekin eta egiten jakitearekin batera, 2025ean hirian gertatutakoa zehatz-mehatz ezagutze-ko eta aztertzeko aukera eman digu, iraunkortasunaren eta klimaren ikuspegitik argazki bat lortzeko. Pertsona horien guztien giza erantzuna da, ziurrenik, dokumentu honi balio handiena ematen dion ekarpena.



08 1. LURRALDEA

09 1.1. HIRI-EREDUA

- 10 Lurzoru urbanizatua
- 11 Lurzoru artifizializatua
- 13 Bizitegi-lurzoruaren erabileraren intentsitatea
- 14 Hiri-trinkotasuna
- 15 Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruak
- 16 Kutsatutako lurzoruak: ikertutakoak
- 17 Kutsatutako lurzoruak: erabiltzeko izendatutakoak

18 1.2. NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

- 19 Azalera babestua

21 1.3. URAREN KALITATEA

- 22 Urumeako uraren kalitatearen egoera
- 23 Urumeako uraren kalitatearen bilakaera
- 24 Donostiako hondartzen osasun-egoera
- 25 Uraren kalitatearen egoera Monpasen
- 26 Uraren kalitatearen bilakaera Monpasen
- 27 Pakea eta Altzaerreka erreketan Esku hartzea, Urumea ibaira Anoetako erreka-estazioaren bidez isurtzen diren uren kalitatea hobetzeko



28 2. MUGIKORTASUNA

29 SARRERA

30 2.1. GARRAIOBIDEAREN ARABERAKO BANAKETA

- 31 Garraio-bidearen arabera banaketa

33 2.2. HIRI BARNEKO JOAN-ETORRIAK

- 34 Joan-etorri aktiboak versus motordunak
- 35 Bizikleta erabilera
- 36 Joan-etorri motordunak: banakakoak versus kolektiboak
- 37 Hiri barruko garraio publikoa erabilera
- 39 Jatorria edo helmuga udalerriko geltoki edo gurekueetan duten bidaiak, LurraldeBus, Euskotren eta Renferekin
- 41 Motorizazio-indizea



42	2.3. HIRIRA SARTZEKO JOAN-ETORRIAK
43	Kanpoaldetik hirirako sarbideak jatorrizko eskualdearen arabera
44	Kanpoaldetik hirirako sarbideak garraiobide motaren arabera
45	SSTurismoaren erabiltzaileak hirira etortzeko moduen bilakaera
47	SSTurismoaren erabiltzaileak hirira etortzeko moduen banaketa
48	2.4. GARRAIOA ELEKTRIFIKATZEA
49	Garraio publiko sostengagarria
50	Ibilgailuen banaketa ingurumen etiketaren arabera
52	2.5. ESPAZIO PUBLIKOAREN BANAKETA
53	Hiri bideak
54	Bidegorri sarea: udal barrutia
55	Bidegorri sarea: erdialdea
56	Bidegorri sarearen tipologia
57	Bidegorri sarearen luzera: Motordun zirkulaziotik bereizitako bizikleta-bideak



59	3. ENERGIA
60	SARRERA
61	3.1. SORRERA
62	Energia berriztagarrien instalazioa
65	Energia berriztagarrien ekoizpena
68	3.2. KONTSUMOA
69	Elektrizitate-kontsumoa
70	Elektrizitate-kontsumoaren banaketa biztanleko
72	Gas-kontsumoa
73	Gas-kontsumoaren banaketa biztanleko
75	Gasolioaren eta Petrolio-Gas Likidotuaren kontsumoa etxebizitza-sektorean
76	Gasolioaren eta Petrolio-Gas Likidotuaren kontsumoa zerbitzu-sektorean
77	Udalerriko guztizko energia-kontsumoa
78	3.3. ERAGINKORTASUNA
79	Etxebizitzaren energia-ziurtagiriak
80	Etxebizitzaren energia-ziurtagirien urteko bilakera
81	Etxebizitza eraikinen birgaitze energetikoa



83 4. EKONOMIA ZIRKULARRA

84 4.1. ELIKADURA

- 85 Sortzeko gaitasuna: nekazaritza ustiapenak
- 86 Nekazaritzako jarduera ez-profesionalak hirian
- 87 Elikagaiak erosteko eta kontsumitzeko ohiturak

88 4.2. HONDAKINAK

- 90 Hondakinen kostu ekonomikoa
- 91 Guztira sortutako hiri hondakinak
- 92 Gaikako bilketa
- 93 Gaika bildutako hondakinen tasa
- 94 Gaikako bilketaren tipologia
- 95 Gai organikoa
- 96 Zabortegian utzitako edo balorizatutako hondakinak

97 4.3. KONTSUMO IRAUNKORRA

- 98 Udalaren baldintza-orriak ingurumen-irizpideekin osatzea
- 99 Material suntsikorraren Erosketa Berdea
- 100 Kontsumo iraunkorra sustatzea
- 102 Enpresaren eta erakunde publiko nahiz pribatuen Ingurumen Kudeaketa

103 4.4. UR-KONTSUMOA

- 104 Altako zuzkidura: guztizko ur-kontsumoa
- 105 Etxeko ur-kontsumoa
- 106 Ur-kontsumoaren banaketa
- 107 Ur-aurrezpenaren bilakaera
- 109 Fakturatu gabeko ura
- 110 Galdutako ura
- 111 Hondakin-uren kudeaketa



112 5. BIZI-KALITATEA

113 5.1. ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

- 114 Langabezia-tasa
- 116 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa jasotzen duten familia kopurua
- 120 65 urtetik gorakoen gizarte arreta-tasa
- 122 Emakume eta gizonen arteko Aukera-berdintasunerako Erakunde Laguntzaileak



123	5.2. OSASUNA
124	5.2.1. KUTSADURA AKUSTIKOA
126	Gomendatutakoa baino zarata maila handiagoa jasotzen duten biztanleak
128	Gauean kanpo zarataren esposiziopean dagoen biztanleria
130	Foru Sarean gomendatutakoa baino zarata maila handiagoa jasotzen duten biztanleak
132	5.2.2. AIREAREN KALITATEA
133	NO ₂ -aren urteko batezbestekoa
135	PM ₁₀ partikulen urteko batezbestekoa
137	PM ₁₀ partikulen eguneko muga balioen gainditzea
139	PM _{2,5} partikulen urteko batezbestekoa
141	Kutsatzaileentzako lege-mugak eta gomendioak betetzea
142	Airearen kalitate-indizea
143	Airearen kalitatearen bilakaera
146	5.2.3. BERDEGUNEAK
147	Berdeguneak
148	5.2.4. MUGIKORTASUN AKTIBOA
149	Joan-etorri aktiboak: oinez eta bizikletaz
150	5.2.5. KLIMAREN TESTUINGURUA
151	Urteko batez besteko tenperatura
152	Urteko guztizko prezipitazioa
153	5.3. PARTAIDETZA
154	Kontsultak herritarren postontzian
156	Ingurumenaren Kontseilu Sektorialaren bileretako partaidetza
158	5.4. ETXEBIZITZA
160	Eraikitzeke lizentzia eman zaien etxebizitzak



162	6. BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURKETA
163	SARRERA
165	Berotegi efektuko gas emisioen inbentarioa
167	Jarduera-sektoreen araberako banaketa
169	BEG emisiosak biztanleko

171	ESKERTZAK
-----	------------------



1. LURRALDEA



Lurraldea hiria finkatzen den espazio biofisikoa da, historian zehar sorrarazitako gizakiaren artifizialtasunekin. Ondare mugatu eta eskasa da. Haren izaera sistemikoak eta oso ezberdinak diren giza jardueren denboran zeharreko gertaerak, antolaketa eta analisi metabolikoaren zailtasuna baldintzatzen dute. Udalerrian eragina duten lurraldea planifikatzeko tresnak iraunkortasun irizpideak txertatu ohi dituzte, erresilientegoa eta etorkizuneko klima eszenarioetara hobeto egokituta dagoen hiri baterako bilakaera eta trantsizioa ikustea ahalbidetzen dutenak.



1.1.

HIRI-EREDUA

Donostiako eskualdea populazio dentsitate handiko lurraldea da (1.000 bizt./km²), eta baldintza ezin hobeak ditu giza kokalekurako; izan ere, klima onbera du, paisaia ederra, eta kokapen geografiko estrategikoa, Europako komunikazioek ezinbestean igaro behar baitute hortik. Eremu funtzional deritzon hori Donostialdeko eta Bidasoa Beheko eskualdeek osatzen dute, eta 376 km²-ko hedadura du. Eremu horretan, 400.000 biztanle baino zertxobait gehiago bizi dira.

2010ean onetsitako HAPOk jadanik alderdi nagusi bat azpimarratzen du: udal mugartearen orografia konplexua, bai hiriaren egungo zati lauei dagokienez, ikuspegi historikotik begiratuta, bai mendi hegalei eta mendiei dagokienez. Gainera, nabarmentzen du konplexutasunaren ideia hori zailtasunaren eta aberastasunaren sinonimo dela. Horregatik, planean bertan jadanik esaten da hiriaren garapenaren historia natura konkistatzeko eta etxekotzeko etengabeko prozesu baten historia izan dela, eta, beraz, baita naturaren eta artifizioaren arteko etengabeko eztabaida eta tentsio prozesu baten historia ere.

Ikuspegi horretatik begiratuta, errealitate bizi eta aldakor bat da hiria, eta haren urbanizazio prozesuak tenkatu eta bateratu egin dira gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen errealitatearekin, globalizazio eta garapen teknologikoko testuinguru batean; horren ondorioz, hiri ereduaren hazkundeak eta garapenak zer inpaktu izan dituen ebaluatu behar izan da. Halako hiri kokalekuen jasangarritasuna duela 40 urte baino gehiago ari dira aztertzen nazioarteko foroetan. *“Habitat I: Giza Kokalekuei buruzko Nazio Batuen Konferentzia”* 1976an egin zen.


Une honetan, arlo honetako xedea da klima irizpideetan oinarritzea hirigintza garapena. Horretarako, hirigintza plangintzan ahalegina egiten da udal lurzorua-
ren %45 baino gehiago ez artifizializatzeko eta azpiegiturak klima aldaketara egokitzeko; alde horretatik, Klima Aldaketara Egokitzeko Planean detektatutako eremu kaltebera guztietan jarduten da, eta eraikitako hiria naturalizatzen, azalera berdeak areagotuz eta eraikinak eta espazio publikoa iragazkor bihurtuz; horrez gain, udalerriko azaleraren %24 babestea, bai eta biodibertsitatea zaintzen ere.

Plan Orokorraren berrikuspenarekin, “hiriaren bilakaera diseinatu nahi da, jarduera berrien eskaerak bideratzeko, bai bizitegikoak, bai jarduera ekonomikoak, jada okupatuta dauden eta hasierako erabilera galdu duten edo berregituraketa behar duten edo hiri-hutsuneak deritzon horretan dauden lursailaketa”.



LURZORU URBANIZATUA

Iturria: Donostiako Udaleko Informazioko Udal Unitatea



2010ean lortutako datuak, Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) behin betiko onartzearen ondoriozko azalerari dagozkio (2010eko ekainean onartu zen).


2018ra arte, ez zen aldatu lurzoru urbanizatuaren ehunekoa; 2011tik 2018ra bitartean egindako hirigintza-jarduerak jada urbanizatuta zegoen lurzoruan egin ziren. 2019an Arbaizenean egindako garapenekin, lurzoru urbanizatua 0,5 ha hazi zen.

Donostiako azalera 6.094,3 ha-koa da; 2024an, lurzoru urbanizatuak udal-azaleraren %32,22 okupatzen zuen; horietatik, 1.838,6 ha hiri-lurzoruari dagozkio eta 124,9 ha lurzoru urbanizagarri exekutatuari.



LURZORU ARTIFIZIALIZATUA

Iturria: Donostiako Udaleko Informazioko Udal Unitatea




2010ean jasotako informazioa, 2010eko ekainean behin betiko onartutako Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean islatutako lurzoru artifizializatuari zegokion, eta udal azaleraren %41 zen. Artifizializatutako lurzoruaren barruan hiri-lurzoru guztia sartzen da, honako hauek izan ezik: hiriko parke nagusiak, bide-azpiegiturak eta ekipamendu publiko eta pribatuak, industria bereziek okupatutako azalera, landa-lurzoruko baratzeak eta landa-lurzoruko eraikuntzak.

2011. urtean lurzoru artifizializatua hazi zen, Zubietako Eskusaitzetako hirigintza-garapenaren ondorioz, eta 2017an, Arbaizenean egindako esku-hartzearen ondorioz; hala, artifizializatutako lurzorua udalerriko guztizko azaleraren %42,78 izatera pasa zen.



2018an egindako kalkulu zehatzago bati esker, jakin genuen lurzoru artifizializatuaren ehunekoa udalerriko azalera osoaren %42,21 zela; 2019an, lur artifizializatuaren azalerak 71,94 ha gehiago zituen, hau da, udal-azaleraren %43,39 izatera pasa zen. Hazkunde hori Zubieta auzoan kontzentratu zen, Real Sociadadeko kirol instalazioak handitzearen ondorioz, eta, batez ere, Eskusaitzetako lur mugimenduek eta jarduera ekonomikoen poligonoaren konfigurazioak aurrera jarraitzen dutelako. 2020tik ez da aldaketa nabarmenik izan artifizializatutako lurzoruan.





BIZITEGI-LURZORUAREN ERABILERAREN INTENTSITATEA

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila eta Informazioko Udal Unitatea

Biztanle kopurua
bizitegi-lurzoruan

183.130

Bizitegi-lurzoruen
azalera

1.350,00 ha


Bizitegi-lurzoruen erabileraren intentsitatea:
135,65 biztanle/ha.

2022an, bizitegi-lurzoruen erabileraren intentsitatea 135,765 biztanle zen hektareako. Hiri-jasangarritasunari dagokionez, hektarea bakoitzeko 160 eta 400 biztanle arteko urkila onargarritzat jotzen dela kontuan hartuta, hiriko bizitegi-lurzoruen erabilera-intentsitatea txikia da, nahiz eta ateratako batezbestekoak ez duen islatzen hiriko auzoen artean dauden dentsitate-aldeak.



HIRI-TRINKOTASUNA

Iturria: Donostiako Udaleko Informazioko Udal Unitatea



Hiri-trinkotasunaren indizeak bizitegi-lurzoru urbanizatuko etxebizitza-kopurua-
ren eta udalerriko bizitegi-lurzoru urbanizatuaren guztizko azaleraren arteko erla-
zioa erakusten du. Donostian, 66,85 etxebizitza/ha-koa da.

Kontuan hartuta ezaugarri orografiko eta morfologikoek, besteak beste, hiriko
hiri-ehuna baldintzatzen dutela, hektareako 60 eta 150 etxebizitza artean dabi-
len tarte bat hiri-ereduaren erreferentzia izan daiteke, eta, Donostiaren kasuan,
hektareako 80 etxebizitza lortzea izango litzateke gutxieneko helburua.

Lortutako batez bestekoak (66,85 etxebizitza/ha), oro har, oso trinkoa ez den hiri
bat islatzen du; hala ere, komeni da datua auzoz auzo aztertzea eta horietako
bakoitzaren ezaugarri historiko, sozial eta geografikoak kontuan hartzea.

Hiria trinkoa da Erdialdean eta Gros eta Amara bezalako auzo finkatu eta laue-
tan. Auzoen banaketaren arabera, hiri-dentsitate trinkoak dituzten beste eremu
batzuk Egia, Altza eta Bidebieta dira, 80 etxebizitza/ha baino gehiago dituztenak,
eta Antigua, 75 etxebizitza/ha dituen. Hiriaren gainerako zatia ez da oso trinkoa,
eta horretan eragina du hiriaren orografiaren konplexutasunak. Kontuan hartu
behar da, baita ere, funtsean bizitegitarako diren auzoak daudela, hala nola Gros
eta beste auzo batzuk. Horietan, bizitegi-lurzoruaz gain, beste erabilera batzuk
dituzten lurzoruak ere badaude, hala nola industriakoa, hirugarren sektorekoa eta
abar, eta horrek eragina du horien dentsitate txikian.

Inguruko auzo ez oso trinkoetan, dentsitate txikiko etxebizitzak egiten direnez,
eremu horiek hiri-trinkotasun txikia izaten jarraitzen dute; gainera, eremu horiek
zerbitzuak eta bide azpiegiturak jartzeko jarraitu dira urbanizatzen.

POTENTZIALKI KUTSATUTA DAUDEN LURZORUAK

Iturria: Ihobe



Kutsatutako lurzorutzat hartzen ditugu, gizakiaren eraginez, ezaugarri kimikoak aldatuta dituzten lurzoruak (erreferentzia balioak gainditzen dituzten substantzia kimikoen kontzentrazioak). Lurzoru horiei ezin zaie gaur egungo edo aurreikusitako erabilera eman, arrisku onartezina izango bailitzateke pertsonen osasunarentzat eta ekosistementzat.

1996. urtean eta 2005.era arte, 77,9 ha-tan ezarrita zegoen kutsatuta egon zitezkeen lurzorua azalera. 2008.ean, EAEn kutsatuta egon litezkeen lurzoruen inbentario berria egin ondoren, Donostian erregistratutako azalera, 697 koka-lekuri zegokiena, 117,24 ha-koa izan zen, hau da, aurreko kopuruaren bikoitza eta udalerriaren azaleraren % 1,9. Inbentarioaren eguneratzearen zirriborroaren


Urtea	Hektareak	Udalerriaren azaleraren %a
1996	77,90	% 1,3
2005	77,90	% 1,3
2008	117,24	% 1,9
2011	147,33	% 2,4

behin-behineko datuen arabera, kutsatuta egon litezkeen 370 kokaleku daude. azalera 147,33 ha izanik, %26 igo delarik 2008. urteko inbentarioarekin alderatuta. Behin-behineko datuak, 2011 urtekoak, kutsatuta egon litezkeen lurzoruen azaleran 30 ha gehiago dira, udalerriaren azaleraren %2,4. Kokaleku gutxiago daude zenbait lur zatiren taldekatzea dela eta.



KUTSATUTAKO LURZORUAK: IKERTUTAKOAK

Iturria: Ihobe




Ikertutako lurzorutzat jotzen da, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko EAEko 1/2005 Legearen arabera lurzorua kalitatea deklaratzeko prozedura hasita, egiaztatutako erakunde batek lurzorua kalitateari buruzko azterlana egin duenean.

Ikertutako azalerak eta kokaleku-kopuruak gora egin dute 2006. urteaz geroztik. Ikertutako azalerari dagokionez, 2008 eta 2009 bitartean eman zen gorakadarik handiena, eta 2010. urtean 3,55 ha-ko azalera iritsi zen ikertutako hamar kokalekutan. 2011. urtean egoera berdinean mantendu zen eta 2012. urtetik aurrera areagotu egin zen pixkanaka. 2019. urtean, sei kokaleku ikertu dira, guztira 1,01 hektareako azalera dutena, 2018. urtearekin alderatuta, ikertutako azalerak % 7 gora egin duela.



KUTSATUTAKO LURZORUAK: ERABILTZEKO IZENDATUTAKOAK

Iturria: Ihobe



Erabiltzeko izendatutako lurzorutzat jotzen da, kutsatuta egon daitekeen lurzorua izanda, ikertu ondoren, aginte eskudunak duen edo izango duen erabilerarako gai izendatzen duenean.

2007tik aurrera eta 2009ra arte, ia maila berberetan mantendu dira erabiltzeko izendatutako kokalekuen azalera eta kopurua. 2010. urtean, elkarren artean

2,5 ha zuten bi kokaleku izendatu ziren erabiltzeko gai. 2011. urtean, kokaleku bakarra izendatu zen erabiltzeko gai, 5 urte horietan erabiltzeko gai izendatutako azalera 4,60 ha-ra iritsi delarik. 2012. urtean, egoera berdinean mantendu zen eta ordunik aurrera areagotu egin da erabiltzeko izendatutako lurzorurak. 2019. urtean hiru kokaleku izendatu dira erabiltzeko gai, 2,34 hektareako azalera duena, ikertutako azalerak %23 gora egin duelarik 2018. urtearekin alderatuta.



1.2.

NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

Kliman ematen diren aldaketek lurraldeko biodibertsitatea aldatzea dakarte, beste faktore batzuekin elkarreraginean, besteak beste, lurzorua erabileran izaten diren aldaketekin edo habitaten zatiketarekin. Biodibertsitatea babestu eta berreskuratzea lagungarri izan daiteke hiriaren egokitzapen klimatikorako eta klima aldaketaren eragin negatiboak murrizteko. Ekosistemak kontserbatu edo berrezartzeak atmosferan dagoen karbono dioxidoa hartu eta biltegiratzea ahalbidetzen du, berotegi efektuko gasak (BEG) murriztuz.

Biodibertsitatea babesteko ikuspuntu batetik, Natura Sarea 2000 ekimenaren bidez babestutako udalerriko azalera nabarmentzen da, kudeaketa plan batekin biodibertsitatea kontserbatzearen alde egiten duena eta, gaur egun, babestutako azaleraren %11 suposatzen duena eta, orotara, udalerriko azalera osoaren %4. Klima DSS 2050 planak udalerriko azaleraren %24ra iristeko helburua du ezarrita, biodibertsitatearen kontserbazioaren alde egiten duen irudi baten bidez (Natura Sarea 2000, Natura Parkea, Biosfera Erreserba, etab.). Halaber, azpiegitura berdeak birnaturalizatu eta garatzea aurreikusten da, 2030. urteari so eraikinetan eta espazio publiko kontsolidatuan azalera berde eta iragazkorra %15ean areagotuz, era berean, hiriko berdeguneen konektibitatea hobetuz.



AZALERA BABESTUA

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila

Sailkapena	Hektareak
Interes geologikoko eremuak	597,02 ha
Fauna babesteko eremuak	540,71 ha
Balio agrologiko handiko eremuak eta Ustiapen estrategikoak biltzen dituzten areak	327,61 ha
Batasunarentzat garrantzia duten gunek	253,98 ha
Lurpeko urak babesteko eremuak	244,71 ha
Urpean behin eta berriz gera daitezkeen eremuak	188,12 ha
Babes bereziko eremuak	120,40 ha
Natur intereseko areak	48,27 ha
<i>Gainjarritako azalera</i>	<i>642,77 ha</i>
Gainjarrita ez dagoen azalera babestua	1.678,05 ha

Azalera babestuaren ehunekoa: % 27,53

Azalera babestua kalkulatzeko, babes bereziko lurzoru ez-hiritargarria hartzen da kontuan, azalera osoarekin alderatuta.

Kontuan izan behar da, batzuetan, babes bereziko eremuen litezkeen sailkapen batekin baino gehiagorekin identifikatuta dauden hainbat lurralde eremu egon daitezkeela, eta ondorioz, bikoizketa horiek aintzat izan behar dira, neurtzen ari den azalera bi aldiz ez gehitzeko. Zentzu horretan, “azalera bikoiztua” izendatu da “bitan” babestutakoa, azalera hori guztizkotik kentzeko, babes bereziren bat duen lurralde-eremua adierazten duen adierazlea lortze aldera.



2005-2007. eta 2008-2009. urteetan, babestutako azalera %34,48 eta %24,97 zen, hurrenez hurren; 2010ean, berriz, babestutako azalera udal azaleraren %27,53 zen. 2010ean lortutako datuak Hiria Antolatze Plan Orokorren behin betiko onespeneraren ondoriozko azalerari dagozkio. Lurzoru babestuaren portzentajea ez da ia aldatu 2008tik.



1.3.

URAREN KALITATEA

Urumea ibaia Bortzirietako (Nafarroa) mendiguneko erliebeetan eratzen da. Arroak bi parte ondo bereizi ditu: goialde-erdialdekoa, ia giza okupaziorik ez duena, eta behealdekoa, oso aldatua eta eraldatua, Hernanin hasi eta Donostian itsasoratzen dena. Ibaiaren arroa 272 km² da eta 59 kilometroko luzera du. Arroak urtean 340 bat hm³-ko ekarpena izaten du. Goialdean eta erdialdean, oso ondo kontserbatuta dago, eta garrantzi komunitarioko babes figurak ditu, bai Añarbeko enklabea (Urumearen ibaiadar nagusia), bai Aiako Harriaren inguruetan eta Hernaniraino egiten duen ibilbidean. Gipuzkoan, eremu babesturen baten barruan daude Urumearen 18,5 km, hau da, Gipuzkoatik igarotzen den zatia

%55. Nafarroako zatian, Añarbek babesa du Artikutzan. Ibaiertzean, landaredi naturaleko zerrenda bat du, eta babesaren helburu nagusia da ibai korridore ekologiko hori kontserbatzea eta berreskuratzea, fauna espezieentzako habitat izan dadin, bai eta uren kalitatea eta egoera ekologikoa mantentzea eta hobetzea ere. Donostian, Urumea ibaiak 9 bat kilometro egiten ditu, eta ibilbide horretan guztian hiri eta industria okupazio handi bat dago. Azken urteotan, administrazio publikoek ibaiaren ibilguan esku hartu dute, eta hainbat neurri hartu, uholdeak saihesteko eta isurketak ezabatzeko; horren ondorioz, isurketak kolektoreetan biltzen dira, eta Loiolako hondakin uren araztegia tratatzen.



URUMEAKO URAREN KALITATEAREN EGOERA

Iturria: EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. Emaizten txostena. 2025 Kanpaina. AZTI

Urumeako trantsizioko ur-masaren egoeraren taula eta diagnostikoa, 2025

KODEA	ESTAZIOA	MI	F	P	M	BI	CG	SP	EGOERA EKOLOGIKOA	EGOERA KIMIKOA	EGOERA
E-UR5	Loiola	MO	B	B*	MO*	MO	MB	MB	MO	B	PqB
E-UR10	Santa Katalina zubia	MB	MB	B*	MO*	MB	MB	MB	B	B	B
	Urumea transiziokoa	B	MB	B*	MO*	B	MB	MB	B	B	B

(*) Ez da aplikatzen egoera ekologikoa ebaluatzeko

MI: Macro Invertebrados | **F:** Fitoplancton | **P:** Fauna Ictiológica | **M:** Macro algas | **BI:** Estado Biológico | **CG:** Condiciones Generales | **SP:** Sustancias Preferentes

EGOERA EKOLOGIKOA

- MB Potentzial Oso Ona
- B Potentzial Ona
- MO Potentzial Ertaina
- PD Potentzial Eskasa
- M Potentzial Txarra

EGOERA KIMIKOA

- B Ona
- NA Ez da egoera onera iristen

EGOERA

- B Ona
- PqB Ona baino okerragoa

Urumeako ur-masaren kalitatea zaintzeko sareak bi estuario-estazio ditu. 2025eko kanpaina, trantsizioan dagoen ur-masa horren egoera ona zela diagnostikatu zuten, egoera kimiko ona eta potentzial ekologiko ona zituela-eta, barnealdeko parametro batzuek (Loiola) potentzial ona baino okerragoa edo ertaina bazuten ere. Azaleko uren egoeraren kalifikazioa egoera ekologikoaren baliorik txarrenak eta egoera kimikoak ematen dute. “Ontzat” jotzen da Uraren Esparru Zuzentarauko (UED) ingurumen-helburuak betetzen baditu, eta “ona baino okerragoa” helburu horiek betetzen ez baditu. Uren egoera kontzeptuak, bestalde, erakusten du gizakiak uretako ekosistemenari zer presio egiten dion eta ekosistema horiek zer narriadura maila duten, haien baldintzak aldatu gabe izango luketenaren aldean. Hala, 2025ean, Urumean behera doazen uren kalitateak bete egin ditu Europar Batasuneko ingurumen-helburuak.



URUMEAKO URAREN KALITATEAREN BILAKAERA

Iturria: EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. Emaizten txostena. 2025 Kanpaina. AZTI

Urumeako trantsizioko ur-masa. 2012-2025 bitartean izandako bilakaera														
URTEA	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
AHALMEN EKOLOGIKOA	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP
EGOERA KIMIKOA	BP	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
EGOERA	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

AHALMEN EKOLOGIKOA

- MP Potentzial Maximoa
- BP Potentzial Ona
- MO Potentzial Ertaina
- PD Potentzial Eskasa
- M Potentzial Txarra

EGOERA KIMIKOA

- B Ona
- NA Ez da egoera onera iristen

EGOERA

- B Ona
- PqB Ona baino okerragoa

Azkeneko urte hauetan saneamendu sare handia egin da, eta lehen egiten zen isuririk ez da egiten orain, bai arroan bai Urumeako estuarioan bertan. Hori berehala azaldu da aztertutako ur-masaren osagai biologikoetan islatzen diren adierazle fisiko eta kimikoetan. Hobeak dira orain.

Urumea ibaiaren ibilguan obra handiak egin dira aspaldian. Hor ditugu, konparazio baterako, Agirre Lehendakariaren zubia eta Donostiako Errealaren zubia, 2000ko hamarkadaren amaieran eginak, edota, baita Martutenen eta Txominen egindako obrak ere, oraintsuago eginak. Eta, dudarik gabe, kontuan hartu beharreko elementuak dira aztertutako parametro batzuen emaitzan.

Urumeako ur-masa oso aldatutzat jotzen da, eta Uraren Esparru Zuzentzarauko (UEZ) ingurumen-helburuak betetzen ari da aztertutako azken hamalau urteetan. Egoera kimikoari dagokionez, egoera ona du 2012az geroztik.



DONOSTIAKO HONDARTZEN OSASUN-EGOERA

Iturria: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza). Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)

HONDARTZA	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Ondarreta	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E
Kontxa	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E
Zurriola	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E	E

- E Bikain
- B Ona
- S Nahikoa
- I Ez Nahikoa

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Donostiako Udalak zaintzen dute Ondarreta, Kontxa eta Zurriolako hondartzen osasun egoera. Bainatzeko lekuak Bikaina/Ona/Nahikoa/Ez Nahikoa sailkatzen dira urtero, azken lau urteetako emaitza analitikoaren arabera.

Bainu-denboraldian bainatzeko uren lagin batzuk hartzen dira zenbait puntutan (hiru Kontxan, hiru Zurriolan eta bi Ondarretan), parametro mikrobiologikoak zehazteko eta hondartzaren ingurunearen egoera ikusteko zerbitzu, garbiketa eta beste alderdi batzuetatik begiratuta.

Ondarretako, Kontxako, Zurriolako eta Santa Klara uharteko hondartzek EMAS Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren ziurtagiria ere badute, 2003az geroztik, Donostiako hondartzen ingurumen-portaera hobetzeko.

2008az geroztik, hiru hondartzetan bainatzeko uraren osasun kalifikazioa Oso ona izan da.



URAREN KALITATEAREN EGOERA MONPASEN

Iturria: EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. Emaizten txostena. 2025 Kanpaina. AZTI

Monpas-Pasaia kostaldeko ur-masak 2025an izandako egoeraren laburpena eta diagnostikoa										
KODEA	ESTAZIOA	MI	F	M	BI	CG	SP	EGOERA EKOLOGIKOA	EGOERA KIMIKOA	EGOERA
L-UR20	Monpasko itsasertza	MB	MB	B	B	MB	MB	B	B	B
	Mompas-Pasaia	MB	MB	B	B	MB	MB	B	B	B

(*) Hiru urteko kalkulua, egindako azkenari dagokion sailkapena

MI: Macro Invertebrados | **F:** Fitoplancton | **P:** Fauna Ictiológica | **M:** Macro algas | **BI:** Estado Biológico | **CG:** Condiciones Generales | **SP:** Sustancias Preferentes

- MB Oso Ona
- B Ona
- MO Ertaina
- D Eskasa
- M Txarra

Azaleko uren egoeraren kalifikazioa egoera ekologikoaren baliorik txarrenak eta egoera kimikoak ematen dute. “Ontzat” jotzen da Uraren Esparru Zuzentarauko (UEZ) ingurumen-helburuak betetzen baditu, eta “ona baino okerragoa” helburu horiek betetzen ez baditu. Uren egoera kontzeptuak, bestalde, erakusten du gizakiak uretako ekosistemenari zer presio egiten dion eta ekosistema horiek zer narriadura maila duten, haien baldintzak aldatu gabe izango luketenaren aldean. Monpas-Pasaiaiko kostako ur-masan itsasertzeko estazio bat aztertzen da, eta 2025eko kanpainako diagnostikoan egoera onean zela jo zen, egoera ekologiko onean eta egoera kimiko onean zegoelako. Ingurumen helburu horiek 2014tik hasi eta gaur arteko guztian bete dira.



URAREN KALITATEAREN BILAKAERA MONPASEN

Iturria: EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea. Emaizten txostena. 2025 Kanpaina. AZTI

Monpas-Pasaiko itsasertzeko ur masa. 2013-2025 bitartean izandako bilakaera													
URTEA	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
EGOERA EKOLOGIKOA	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP	BP
EGOERA KIMIKOA	NA	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B
EGOERA	PB	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B	B

AHALMEN EKOLOGIKOA

- MP Potentzial Maximoa
- BP Potentzial Ona
- MO Potentzial Ertaina
- PD Potentzial Eskasa
- M Potentzial Txarra

EGOERA KIMIKOA

- B Ona
- NA Ez da egoera onera iristen

EGOERA

- B Ona
- PB Ona baino okerragoa

2001eko kanpainara arte, orduan eraman baitzen Monpasko kolektorea itsaspeko hustubidera, egoera ekologiko txarra zen nagusi inguru hartan; baina, harrezkero, hobetu egin da hango egoera. Saneamendu eta arazketa lanak ari da antz ematen kostaldea berreskuratze horretan.

2013an ez zen egoera kimikoaren aldetik bete beharreko helbururik bete, baina, 2014az geroztik, ari dira ingurumen helburuak betetzen, eta, beraz, ematen du ari dela bere onera etortzen sistema.



PAKEA ETA ALTZAERREKA ERREKETAN ESKU HARTZEA, URUMEA IBAIRA ANOETAKO ERREKASTOAREN BIDEZ ISURTZEN DIREN UREN KALITATEA HOBETZEKO

2025. urtean zehar, Donostiako Udalak aire zabaleko azpiegitura berdearen proiektua gauzatu du, Europar Batasunak – NEXTGeneration EUk finantzatuta. Proiektu horren helburu nagusia da Anoeta erreken hustubide-ahalmena hobetzea, Pakea eta Altzaerreka erreketatik datozen emari zirkulatzailerak gutxituz (Miramongo hiri-basoan). Jarduera honekin helburu bikoitza lortu nahi da. Alde batetik, prezipitazio handiko aldietan emariak mugatzea, kolektoreak kargan ez sartzeko eta, horrela, uholdeak saihesteko, eta, bestetik, uholdeen laminatze-efektua lortzea.

Esku-hartzeak Pakea erreken goialdean dagoen olgetarako urmaeleen eta Altzaerreka erreken behealdean egin dira, Miramongo bidearen azpiko lurperatzearen ondoan. Bi kasuetan, hormigoizko harri-lubeta osatutako egitura hidraulikoak eraiki dira zimenduetan, eta harri-lubeta lehor begetatua altxaeretan, lurra-
ren ertzetan sartuta. Gainera, maila-sentsoreak instalatu dira erreketako ur-maila etengabe neurtzeko, datalogger kontrolagailuarekin eta komunikazio-antennarekin.

Ingurumen-balio interesgarriak dituen ingurune natural batean egindako jarduketari horiei esker, 480 m³ -ko gehieneko atxikipen-bolumena lortu da Pakea erre-
kastoaren kasuan, eta 901 m³ Altzaerreka erre-
kastoaren kasuan. Hala ere, bi kasuetan, igarobide-irekidura bat utzi da, batez besteko emari ekologiko bati eusteko diseinatua, inolako errententziorik gabe. Pakea eta Altzaerreka erreken hobekuntza hidrauliko horiek ibaian behera uholde-arriskua murriztea ekarriko dute, Amarako eremuan, eta horrek klima-aldaketara modu eraginkorrean egokitzeko lagunduko du.

2.

MUGIKORTASUNA



Hirietan mugikortasuna aztertzeke ezinbestekoa da pertsonak joan-etorrian ibiltzeke eta haiek hornitzeke baliatzen dituzten produktu eta salgaiak batetik bestera eramateke moduak ulertzea, eta baita mugimendu horiek espazio eta denbora jakin batean egiteke dauden bitartekoak ulertzea ere.

Orografia, klima eta giza eredua ez ezik, pertsonak bere joan-etorrietan dituzten desira eta premiak gauzatzeko erabakigarriak diren beste zenbait faktore hartu behar

dira kontuan, esate baterako, faktore ekonomiko, kultural eta sozialak, eta baita adin eta genero arlokoak ere, joan-etorri horiek egiteke autonomia pertsonalean dauden baldintzatzaileak ez ezik.

Era berean, mugimendu horiek tokiko mailan eta orokorki ingurumenean eta alderdi sozioekonomikoetan izan ditzaketan ondorioak ere kontuan izan behar dira, batetik bestera mugitzeko baliatzen diren bitartekoen arabera: oinez, txirrinduan garraio publikoan edo motordun ibilgailuan.



SARRERA

Udalerrian sortzen den mugikortasun mota zehazteko, kontuan hartu behar dira pertsonak eta salgaiak hirian batetik bestera mugitzeko baliabideak, aldi bakoitzean egin beharreko distantziak eta joan-etorri horien beharrak edo nahiak. Urteen poderioz taxutu den hiri ereduak eta 500.000 biztanle inguruko hiri eremuko turismo eta zerbitzu hiriburuak izateak eragiten dute egunero egiten diren joan-etorri kopuru handi bat. Motordun ibilgailu asko egoteak hainbat inpaktu ditu, hala nola gehienetan erregai fosiletatik datorren energia-kontsumo handia, berotegi-efektuko gasen isurketa handiarekin, atmosfera kutsatzea, ibilgailu motordunen zarata eta eremu publikoa nabarmen okupatzea, dela aparkatzeko dela mugitzeko.

Testuinguru horretan, mugikortasun politikak bideratzen dituen helburu nagusiak hauek dira: hiri eta metropoli mugikortasun iraunkorreko eredu bat garatzea, garraiobide aktiboak indartzea, hala nola oinez eta bizikletaz ibiltzea, motordun joan-etorriak murriztea eta Donostia barruko nahiz Donostiaren beraren mugikortasuna deskarbonizatzea eta elektrifikatzea.

Alde horretatik, garraio publiko irigarria, eroso eta Donostiako auzo guztiei zerbitzua ematen dien sare trinko baten jabea sustatzea izan da Udalaren apustu nagusietako bat, mugikortasun sostengagarriago bat, ibilgailu pribatuaren mende-kotasun txikiagoa duena lortzeko. Azken urteetan, bizikleta sare zabalak eta horri lotutako azpiegiturek bizikletaren erabilera garrantzitsua ahalbidetu dute. Oinez egiten diren joan-etorrien kopurua handitzeko, espazio publikoaren baldintzak hobetzen jarraitu behar da, eta lehentasuna eman behar zaie oinez doazenei elkarguneetan eta semaforo-zikloen banaketetan. Era berean, zenbait neurri ezartzeak, hala nola aparkatzeko denbora arautzea (TAO) gero eta auzo gehiagotan, 30 Zonaldeak arian-arian ezartzea eta erdigunean zirkulazio-aldaketak egitea, automobilaren erabilerari pizgarriak kentzea du helburu. Beste apustu garrantzitsuak dira Isuri Gutxiko Eremu bat ezartzea hiriaren erdigunean 2024an eta 2024-2029 aldirako Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Plana onartzea. Eusko Trenen trenbide-sarea garatzea, hiriaren erdialdean geltoki berriak eginez eta ekialde-mendebalde konektibitatea erraztuz, horixe da mugikortasun iraunkorragoa, osasungarriagoa eta seguruagoa lortzeko egin den apusturik



2.1.


GARRAIOBIDEAREN ARABERAKO BANAKETA

Lokomoziorako bitarteko ezberdinen erabilerari dagozkion proportzioak faktore oso ezberdinen baitan daude, gastu energetikoak, airearen kalitatea, kutsadura akustikoaren mailak edota CO₂ emisioak baldintzatuz. Mugikortasuna da hiriari gertatzen diren emisioen arduradun nagusia, inbentarioan jasotako emisio guztien %40 suposatzen duelarik, ibilgailu pribatua delarik foku emisore nagusia. Banaketa modala aldatzeko faktore erabakigarri bat norberaren joan-etorriekiko portaeretatik eta modu kolektiboari (bereziki autobusa eta metroa) eta motorrik gabeko bitartekoei garrantzi gehiago ematek eratorriko da.



GARRAIOBIDEAREN ARABERAKO BANAKETA


Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanak. 2007, 2011, 2016 eta 2021. Eusko Jaurlaritza



Oinez ibiltzea da Donostian ibiltzeko modurik erabiliena. Joan-etorrien %45,6 oinez egiten dira. Hala ere, jaitsiera jarraitua ikusten da; 2016an %46,2 zen, eta 2011n %48,9. Bizikleta gero eta gehiago erabiltzen da, eta %4,4ko erabilera kuota izatera iritsi da. Garraio-bide aktiboak Donostiako barne mugimendu guztien %50 baino gehixeago dira. Garraio-bidearen arabera banaketaren %16,1 da autobusa. Hala ere, urte bakoitzean garraiatutako bidaiari kopurua oso garrantzitsua izan arren, ehuneko hori jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta. Ibilgailu motordunen joan-etorriek behera egin dute zertxobait aurreko urteetakoekin alderatuta, eta joan-etorrien %25,5 izan dira 2016an %26,9 zirelarik. Motozikletak dira Donostiako mugikortasunaren beste ezaugarri bat, %4,3 baitira.



Garraiobide sostengagarrienak (oinez ibiltzea, bizikletan ibiltzea eta garraio publikoa erabiltzea) joan-etorrien % 68,8 dira, eta ibilgailu motordun pribatuak, berriz, joan-etorrien % 29,8 baino ez dira. Hala ere, bide espazioa askoz gehiago okupatzen dute, bai joan-etorrietarako bai aparkatzeko.





2.2.

HIRI BARNEKO JOAN-ETORRIAK


Hirian sortzen diren barneko joan-etorriak motorrik gabeko mugikortasunarekin eta garraio publikoko bidaiekin lotutako osagai garrantzitsu bat dute. Lanaren, ikasketen eta aisiaren ondoriozko joan-etorriei gain, etxeko ekonomiak eta normalean hurbileko distantzietan garatzen diren familiako zaintzek ere joan-etorri ugari sorrarazten dituzte. Sorrera erakarren balantzean Gros auzoaren erdigunea eta mendebaldea nabarmentzen da erakarren zonalde gisa, bertan pilatzen baita jardura komertzial, ostalaritzako, bulegoetako eta zerbitzu publikoetako asko. Hiriaren ekialdea, bizitegi erakoa da nagusiki (Egia, Intxaurrondo edota Altza auzoekin, besteak beste). Bertan beste auzo batzuetarako joan-etorriak sortzen dira. Mendebaldean, ordea, sortzen dituenak baino gehiago dira erakartzen dituen bidaiak, unibertsitateak, beste ikastetxe batzuekin eta Igara eta Zuatzuko ekonomia jardueren eremuen garrantziaren ondorioz. Hegoaldean eta Aiete edo Errondo au-

zoetan gehiago dira sortzen diren joan-etorriak erakartitakoak baino, Miramon eta Ospitaleen zonaldea alde batera utzita. Udalerriko politika publikoak garraibide iraunkorrak indartu eta motordun joan-etorriak murrizteari begira daude. DSS Klima 2050 planaren helburua 2030ean joan-etorri aktiboen (oinezkoak eta txirrinduan) %55eko portzentajera iristea da, barneko joan-etorri guztiekiko, eta motordun ibilgailu pribatuetan egiten diren ibilbideak %20 murriztea 2030ean urtez urteko zifrarekiko. Pandemiaren hasieran onartutako Klima-larrialdiaren Adierazpenari erantsitako beste ekintza-ildo batzuk honako hauek dira: batetik, garraiomodu publikoaren eta pribatuaren arteko joan-etorrien proportzioa inbertitzea, 60/40 erlazioa igaroz, eta, bestetik, emisio txikiak dituzten ibilgailuen ehunekoa handitzea teknologia elektrikoetan edo bestelakoetan oinarrituta.



JOAN-ETORRI AKTIBOAK VERSUS MOTORDUNAK

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanak. 2007, 2011, 2016 eta 2021. Eusko Jaurlaritza




Donostiako eguneroko joan-etorrien %50,7 garraibide aktiboen bidez egiten dira. Gehienak oinez egiten dira (%91,1); bizikleta, berriz, garraibide aktibo guztien %8,7 izango litzateke, gero eta gehiago erabiltzen baita.



BIZIKLETA ERABILERA

Iturria: Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentua; Bizikletaren Behatokia



Apiriletik urrira egindako txirrindularien zenbaketaren arabera, hirian egunero, batez beste, 28.412 joan-etorri izan dira. Azken urteetako datuak kontuan izanik, ikus daiteke 2024 urtearekin alderatuta iguera txiki bat dagoela eta pandemiarekin gertatu zen bizikleta bidezko joan-etorrien gorakada finkatu egin dela.

2019ko datuak erreferentziazat hartuta, bizikletaren erabilera %30 handitu da. 2025ean begiz egindako txirrindularien zenbaketetan, txirrindularien %40 emakumeak ziren.



JOAN-ETORRI MOTORDUNAK: BANAKAKOAK VERSUS KOLEKTIBOAK




Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanak. 2007, 2011, 2016 eta 2021. Eusko Jaurlaritza

Donostiako eguneroko joan-etorrien %49,3 garraiobide motordunen bidez egiten dira. Gehienak, banakakoak diren ibilgailuetan egiten dira, autoetan edo motorretan (%61,3); garraio kolektiboa, berriz, %38,7 da: banaketa modal horren proportzioak ia hiru puntu egin du gora 2016aren aldean.

- Motorizatutako joan-etorriak garraio-modu kolektiboan
- Motorizatutako joan-etorriak garraio-modu indibidualean



HIRI BARRUKO GARRAIO PUBLIKOA ERABILERA






2025ean, dBuseko bidaia-kopuruak gora egiten jarraitu du, udal-garraio konpainiaren historiako bidaia-kopururik handienara iritsiaz, 33 milioi bidaiatik gora. 2020an, pandemia-egoerak guztiz baldintzatu zuen joan-etorrien kopurua, eta %39,8ko beherakada izan zen 2019arekin alderatuta. Pixkanaka gora egin ondoren (%25 2021ean, %15 inguru 2022an eta 2023an eta %8,2 2024an), 2025ean 33.735.379 bidaia izan dira, hau da, 2024an baino %5,3 gehiago. Pandemiaren aurreko erabilera-maila berreskuratu dela egiaztatzen da, 2019an goia jo baitzuen 29,6 milioi bidaiarekin. Garraiobide hau erabiltzen dutenen %67,5 emakumeak dira eta %32,5 gizonak.

2012. urtearen amaieran, Intxaurrondon eta Herreran Euskotrenen geltoki berriak martxan jartzeak eta Gipuzkoako garraiobide publikoen tarifa integrazioak, 2013ko martxotik aurrera, bidaiariak garraiobide mota batetik beste batera aldatzea eragin ahal izan dute gaur egun Donostian dauden garraiobide publikoen artean.



JATORRIA EDO HELMUGA UDALERRIKO GELTOKI EDO GERALEKUETAN DUTEN BIDAIAK, LURRALDEBUS, EUSKOTREN ETA RENFEREkin

Iturria: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza





2025ean, Donostia barruan, guztira, 5.581.547 bidaia egin ziren hiriarteko autobusetan, Euskotrenen eta Renfen (azken operadore horrek 2019ko apiriletik aurrera kontabilizatutako bidaiak). Hartara, 2020ko eta 2021eko pandemia-urteetan garraio publikoaren erabilera jaitsi egin zen arren, hiru garraiobide horietan egindako joan-etorriak nabarmen handitu dira ondoren. 2025ean 2024an baino %4 gehiago izan dira bidaiak.

Hala, hirian garraiobide publikoetan guztira 39.316.926 bidaia egin dira, hau da, 2024an baino %5 gehiago.


Hirian biztanleko batez beste 207 bidaia egin dira urtean, hiri-garraioaren osotasuna kontuan hartuta. 2024an biztanleko 197 bidaia izan ziren, eta 2019an 179 bidaia.

Lurralde osoa erreferentziazat hartuta, emakumeen proportzioa %63koa da Lurraldebusen, %60koa Euskotrenen eta %57koa Renfen.



MOTORIZAZIO-INDIZEA

Iturria: Finantza Zuzendaritza. Zerga Ikuskaritza. Donostiako Udala



2025ean, Donostian matrikulatutako turismoak 430 auto izan ziren, 1.000 biztanleko; 2024 urtearekin alderatuta, %0,15 gehiago. Aztertutako urteetako kopururik handiena izan da berriro ere. Autoen motorizazio indizea jaitsi egin zen 2009tik 2015era bitartean (ekonomiaren atzeraldia), eta berriro igo da 2016.

urtetik aurrera. Ziklomotorren indizeak gora egin du ere (%1,45), hau da, batez beste 163 ziklomotor daude 1.000 biztanleko. Autobusen, kamioien eta traktoreen matrikulazioek gora egin dute. Horrela, 1.000 biztanleko 614 ibilgailu dauke hirian, 2024 urtearekin alderatuta %0,69 gehiago.



2.3.


HIRIRA SARTZEKO JOAN-ETORRIAK

Udalerria historian zehar zerbitzuetako hiri modura egituratu da. Asko dira bertan jarduera komertzialak, hezkuntzakoak, finantza arlokoak, osasun arlokoak eta asistentziazkoak, eta baita kultural eta ikerketa arlokoak ere, instituzio eta herri administrazioen ordezkaritzak egoteaz gainera; halaber, hiriarekin eta ingurunearekin lotutako turismo jarduera adierazgarria ematen da. Horrek guztiorrek mugikortasuna erakartzea dakar modu garrantzitsuan, era berean, Gipuzkoako eskualde arteko harremanen konplexutasunak, nazioarte mailako garraiorako korridore batean duen kokapenak (NI) eta Pasaia Portuaren hurbiltasunak eraginda.



KANPOALDETIK HIRIRAKO SARBIDEAK JATORRIZKO ESKUALDEAREN ARABERA

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana. 2021. Eusko Jaurlaritza




Donostiara sartzeko bidaien bi heren probintziari berari dagozkio (% 60,2), bereziki Donostialdeari (%35). Gainerako eskualdeetatik, Bidasoa Behera (%6,4) eta Urola Kosta (%5,6) nabarmentzen dira. Bizkaitik eta Arabatik datozen bidaiak, berriz, %29 eta %8,3 dira, hurrenez hurren, eta 2016. urtearekin alderatuta, hazkunde handia izan dute; izan ere, Bizkaitik egindako joan-etorriak inkestako laginean erregistratutako mugimendu guztien %3,9 baino ez ziren, eta Arabakoak, berriz, %1,7. Lurralde Historikotik bertatik eta Donostialdetik datozen joan-etorrien pisua txikitu egin da aurreko inkestaren aldean (2016), orduan %78,9 eta %52,7 baitziren, hurrenez hurren.



KANPOALDETIK HIRIRAKO SARBIDEAK GARRAIOBIDE MOTAREN ARABERA

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana. 2021. Eusko Jaurlaritzza




Donostiara autoz sartzen dira, gehienbat (%74,5), 14 puntu igo da erreferentziako azken urtearekiko (2016). Hurrengo garraiobiderik erabiliena autobusa da (%11,9); autobusaren erabilerak hirira sartzeko behera egin du; 2016an, kontabilizatutako fluxu guztien %18,4 bait zen. Trena inkestatuena %7,2k erabiltzen du. Donostialdetik datozen bidaia gehienak autoz egiten dituzte, baina batez besteko orokorra baino zertxobait gutxiago (%56,4, %74,5 orokorraren aldean). Donostialdetik hiriburura garraio publikoan sartzen direnek %18,6k autobusa darabilte, eta beste %11,8k trena erabiltzen dute.



SSTURISMOAREN ERABILTZAILEAK HIRIRA ETORTZEKO MODUEN BILAKAERA

Iturria: SSTurismo



	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Autoa	% 64	% 63	% 60	% 55	% 56	% 61	% 60	% 56	% 59	% 56	% 56	% 55	% 56	% 52	% 46,6	% 58,3	% 68,1	% 57,3	% 47,7	% 47,8	% 48,7
Autobusa	% 24	% 27	% 20	% 24	% 26	% 17	% 17	% 18	% 15	% 13	% 12	% 16	% 16	% 25	% 33,8	% 20,4	% 9,7	% 15,3	% 17,0	% 19,1	% 17,9
Tren	% 8	% 7	% 7	% 12	% 11	% 9	% 8	% 8	% 8	% 8	% 7	% 7	% 8	% 7	% 7,9	% 9,5	% 18,0	% 9,7	% 10,5	% 11,5	% 11,9
Hegazkina	% 4	% 3	% 5	% 4	% 4	% 6	% 7	% 8	% 8	% 9	% 9	% 10	% 9	% 8	% 5,7	% 2,8	% 4,8	% 9,8	% 15,5	% 14,6	% 14,4
Autokarabanak	—	—	% 1	% 1	% 1	% 2	% 2	% 2	% 2	% 3	% 4	% 3	% 3	% 3	% 2,2	% 2,3	% 2,6	% 3,4	% 3,5	% 3,0	% 3,3
Besteak	% 1	% 1	% 8	% 4	% 1	% 1	% 2	% 2	% 2	% 3	% 3	% 3	% 2	% 1	% 0,5	% 0,2	% 0,4	% 0,5	% 1,6	% 0,6	% 0,3
Oinez	—	—	—	—	% 1	% 4	% 5	% 7	% 6	% 8	% 9	% 6	% 6	% 4	% 3,0	% 6,2	% 4,1	% 3,6	% 3,8	% 3,1	% 3,3
Bizikleta	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	% 0,1	% 0,2	% 0,3	% 0,2	% 0,3	% 0,3	% 0,4	% 0,3	% 0,3	% 0,2




Hiriko turismo-informazioko puntuetara joaten diren pertsonei egiten zaizkien inkesten batezbestekoa aldakorra da. 2016an 223.256 inkesta egin ziren, eta 2019an 92.338 izan ziren. Pandemian mugikortasunari ezarritako murrizketen ondorioz, 2020an 20.895 inkesta besterik ez ziren egin eta 2021ean 41.660 inkesta. 2022an, bisitarien kopuru handiagoarekin eta informazio-puntuak irekita, guztira 76.245 inkesta egin ziren. 2025ean 77.697 inkesta izan ziren.

2025ean, bisitarien %48,7 ibilgailu pribatu motordunetan iristen ziren hirira. 2023. urteaz geroztik behera egin du hegazkinez iritsitakoen proportzioak, %14,4 izan baitira. Autobus bidez iristen diren bisitarien kopuruak behera egin du 2024. urteko igoeraren ondoren, %17,9 dira, eta %4,1 gora egin du tren bidez iristen direnen kopurua, %11,9ra iritsiaz. Autokarabanan iristen dira inkesta erantzun dutenen %3,3 eta oinez beste %3,3. Bizikletan etorritakoak inkestak bete zituzten pertsonen %0,2k baino ez dira.



SSTURISMOAREN ERABILTZAILEAK HIRIRA ETORTZEKO MODUEN BANAKETA

Iturria: SSTurismo



Mugikortasun-fluxuak leheneratu ostean, inkesta erantzun dutenen %65 atzerrikotarrek eta %29 estatukoak dira, eta %6 beraz, atzerrikotarrek eta estatukoak dira.

Hegazkina da turista atzerrikotarrek gehien erabiltzen duten garraiobidea, eta autoa eta autobusa, berriz, estatuko eta frantziako beste leku batzuetatik datozen pertsonen gehien erabiltzen dituzten garraiobideak dira. Bisitari mota hori izan daiteke hiru garraiobide horiek gehiago edo gutxiago erabiltzea eragin dezakeen arrazoi bat.



2.4.

GARRAIOA ELEKTRIFIKATZEA

Garraioaren sektorean elektrifikaziorako eta emisioak murrizteko dagoen tarte oso ezberdina da bitarteko ezberdinen arabera. Karbonizazio gabetzeari dagokionez aurrera egiteko abagune handienak errepide bidezko garraioan ematen dira. Mugikortasunaren karbonizazioa gabetu eta elektrifikazioa bultzatzea da DSS Klima 2050 planean ezartzen diren helburuetako bat. Horretarako, DBus autobus flotaren elektrifikazioa eta udal mugikortasun parke garbi bat lortzea dira 2030. urteari begira finkatutako helburuak, udalerriko automobilen parkea %20an ibilgailu hibridoekin eta %10ean ibilgailu elektrikoekin osatzeaz batera.


2021ean onartutako Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko Legearen arabera, 50.000 biztanletik gorako udalerriek ibilgailu kutsatzaileetarako zirkulazio murriztuko eremuak ezarri behar dituzte. Eremu horiek, beraz, emisio txikiko eremuak dira, eta kutsadura maila maximoak gainditzen dituzten 20.000 biztanletik gorako udalerrietan ere ezarri beharko dira. Hiri bakoitzaren barruan mugatutako dira isuri gutxiko eremuak, eta eremu horietan ibilgailu kutsatzaileak sartzeko, zirkulatzeko eta aparkatzeko mugak ezarriko dira, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztu daitezen, airearen kalitatea hobetu dadin eta zarata murriztu dadin, besteak beste. 2024ko maiatzean, jendaurrean jarri eta alegazioak jaso ondoren, Donostiako Udalak 2024-2029 Hiriko Mugikortasun Jasangarriaren Plana eta haren IGE onartu zituen, eta Airearen kalitatea hobetzeko, Klima Aldaketa arintzeko eta Isuri Gutxiko Eremuak arautzeko Udal Ordenantza 2024ko abenduan onartu zuen.



GARRAIO PUBLIKO SOSTENGAGARRIA

Iturria: Dbus eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza

dBusen flota, Euro igorpen-arauen arabera




Egun Dbus-ek 144 autobuseko ibilgailu-flota du; horietatik 18 metroko 41 autobus artikulatu, 12 metroko 92 autobus eta 11 mikrobus. 12 metroko 48 autobus % 100 elektrikoak dira eta 54 hibrido ere. Hau da, ibilgailu-flotaren % 71an teknologia hibridoa edo elektrikoa dago.

Lurraldebusek 2019an 258 autobus zituen, eta horietatik 10 hibridoak ziren (%4). 2020an 19 autobus hibrido gehiago erosi dira.



IBILGAILUEN BANAKETA INGURUMEN ETIKETAREN ARABERA





Ingurumen bereizgarriak ibilgailuak beren energia efizientziaren arabera sailkatzeko balio du, ingurumenean duten inpaktua kontuan izanik, eta ibilgailuei (autoak, furgonetak eta motorrak) ematen zaizkie, fabrikazio-urtearen eta emisio-mailaren arabera. Lau dira, efizientzia handitik txikira, hiriko ibilgailuen zentsuan banaketa hau ageri duten ingurumen bereizgarriak:

O emisio etiketa: ibilgailu efizienteenak identifikatzen ditu, esate baterako, bateria bidezko ibilgailu elektrikoak, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak, 40 kilometroko autonomia duten ibilgailu elektriko hibrido entxufagarriak edo erregai pilako ibilgailuak. Hirian zentsatuta dauden ibilgailu guztien %2,1 dira, 2.481 ibilgailu guztira, %61eko igoera; 2024an 1.539 ziren soilik. Gehienak turismo erakoak dira (%85), nahiz eta motozikleta eta ziklomotor ugari ere badiren (%10).

ECO etiketa: gehienak ibilgailu hibridoak, gas erakoak edo bietakoak: 40 kilometrotik beherako autonomia duten ibilgailu elektriko entxufagarriak, hibrido ez entxufagarriak, gas naturalarekin bultzatutako ibilgailuak eta gasarekin edo petrolioaren gas likidotuarekin bultzatuak. Hirian zentsatuta dauden ibilgailuen %6,2 dira, guztira 7.129 ibilgailu (%35eko igoera 2024ko datuekin alderatuta), gehienak turismo erakoak (%99).

C etiketa: kategoria honetan sartzen dira Euro araudiaren azken emisioak betetzen dituzten barneko errekuntzako ibilgailuak, 2006. urtetik aurrera matrikulatutako gasolina bidezko eta 2015. urtetik aurrera matrikulatutako diesel bidezko turismo eta furgoneta arinez gain, eta 8 plaza baino gehiagokoak diren eta astunak direnak, hala gasolina nola diesel bidezkoak, 2014. urtetik aurrera matrikulatuak. Ibilgailu zentsatu gehien dituen ingurumen bereizgarria da, %48,9arekin, guztira 56.581 ibilgailu (%3ko igoera 2024ko datuekin alderatuta), gehienak turismo erakoak (%64), eta herena baino gehiago motozikletak eta ziklomotorrak (%34). Gainontzekoak, %2, kamioiak eta autobusak dira.

B etiketa: kategoria honetan sartzen dira Euro arauen azken zehaztapenak betetzen ez dituzten arren, aurreko araudiak betetzen dituzten barneko errekuntzako ibilgailuak, 2001. urtetik aurrera matrikulatutako gasolina bidezko eta 2006. urtetik aurrera matrikulatutako diesel bidezko turismo eta furgoneta arinez gain, eta 8 plaza baino gehiagokoak diren eta astunak direnak, hala gasolina nola diesel bidezkoak, 2006. urtetik aurrera matrikulatuak. Bigarren ibilgailu zentsatu gehien dituen ingurumen bereizgarria da, %24,7arekin, guztira 28.521 ibilgailu, gehienak turismo erakoak (%82) eta %15 motozikletak eta ziklomotorrak. 2024ko datuekin alderatuta %7 egin du behera B etiketadun ibilgailu kopurua.

Ingurumen bereizgarriak gabeko ibilgailuak: gainerako ibilgailuek (%19,0) ez dute inolako bereizgarriarik, ibilgailu garbi modura etiketatzeko betekizunak betetzen ez dituztelako. Hirian erregistratutako 116.660 ibilgailuetatik 21.948 dira, eta %7 egin du behera 2024arekin alderatuta. Erregistratuta dauden eta ingurumen-bereizgarria lortu ezin duten ibilgailu gehienak turismoak dira (%57), eta motozikleta eta ziklomotorren kopurua ere nabarmentzekoa da (%33).



2.5.

ESPAZIO PUBLIKOAREN BANAKETA

Espazio publiko irekien konfigurazioa eta banaketa erabakigarria da herritarren premiak asetzeko, beren bizi kalitatea ziurtatuz. Hiriko paisaia eta hiriaren funtzionaltasuna, funtsean, bertako eraikinen arkitekturak eta espazio publikoaren hedadura, banaketa eta kalitateak baldintzatzen ditu. Espazio publikoa bizikidetzarako, kidesunerako eta erabilera eta jarduera ezberdinak hartzen dituen leku modura ulertuta, baina, era berean, garraiobide ezberdinak baliatuz pertsona eta salgaien joan-etorria ahalbidetzen duen espazio modura ulertuta, non gaur egun motordun ibilgailu pribatuak toki nabaria hartzen duen, hala joan-etorrian nola aparkalekutan. Mugikortasun politiken helburuetako bat trafikoaren espazio publikoa arintzea da, kalitatezko hiri inguruneak berreskuratzeko, aldi berean, baliabide eta energia gutxiago kontsumitzea eta oinezko irisgarritasun gehiago izatea ahalbidetzen duten mugikortasun sareak egituratuz.



HIRI BIDEAK

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila




Gaur egun, 559,82 bat hektarea hartzen ditu Donostiako bide komunikazioko sareak, eraikitako hiri azaleraren eta azalera urbanizagarriaren %28,5; 2010ean HAPOa onartu zenetik portzentajezko 3,4 puntu gora egin duen arik. Azalera horretan komunikazio azpiegiturak sartzen dira, erabiltzen den mugikortasun mota

edozein dela ere (oinez, bizikletaz, automobiler, garraio publikoz, etab.). Tren azpiegiturek, trenbideak eta elementuak (geltokiak eta geralekuak) barne, udal azaleraren % 1,2 hartzen dute.



BIDEGORRI SAREA: UDAL BARRUTIA

Iturria: Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentua; Biziletaren Behatokia.




- Bidegorri
- Bizikleta ibilbidea oinezkoentzako lehentasunarekin
- Bizikleta ibilbidea oinezkoentzako lehentasunarekin eta orduategia murriztua ibilgailuentzat
- Bide partekatua: autoa-bizikleta



BIDEGORRI SAREA: ERDIALDEA


Iturria: Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentua; Biziletaren Behatokia.





BIDEGORRI SAREAREN TIPOLOGIA


Iturria: Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentua; Biziletaren Behatokia.





BIDEGORRI SAREAREN LUZERA: MOTORDUN ZIRKULAZIOTIK BEREIZITAKO BIZIKLETA-BIDEAK

Iturria: Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentua; Biziletaren Behatokia





2025ean 815 metro egin dira hiriko bizikleta-sarean: 570 metroko bide bereiziak, 85 metroko koexistentzia oinezkoekin eta 160 metroko koexistentzia motordun ibilgailuekin Easo kaleko ardatzean. Egin diren zati batzuetan baziren jada bizikleta-konexioak, eta ezaugarriak hobetu eta oinezkoentzako baldintzak hobetu dira: bere garaian espaloietan egokitutako 205 metroko bizikleta-azpiegitura kendu da. Horrela, 2025ean zehar, bizikletaz ibiltzeko egokitutako 610 metro gehiago gehitu.

Ibilgailu motordunen trafikotik bereizitako bideetako 66.830 metroak erreferentziatzat hartuta, %87 patineteek eta bizikletek bakarrik erabiltzeko bizikleta-azpiegiturak dira, eta gainerako %13, berriz, oinez ibiltzen direnekin batera ibiltzen diren bide-zatiak.

3. ENERGIA



Hiri kontsumoak munduko energia kontsumoaren %70 gainditzen du. Energia erabilgarri izatea funtsezkoa da hirien biziraupenerako eta ezinbestekoa da herritar guztiek hartarako eta bertan egiten diren jarduera guztietarako sarbidea modu efizientean izan dezatela bermatzea. Baina energiaren ekoizpenean baliabide fosilak erabiltzen dira nagusiki eta planetaren iraunkortasunerako eta pertsonen osasunerako mehatxu nagusietako bat da hori.

Hiritik kanpoko jatorriak, hornidurarako azpiegitura handiak behar izateaz gain, kontsumitutako energia atera, eraldatu eta banatzeak jatorrian dituen ondorioak ikusezin bilakatzen ditu.



SARRERA

Energiaren kontsumoa da berotegi-efektuko gasik gehien sortzen duena gizakiak egiten dituen jardueretatik. Isurtzen diren berotegi-efektuko gas horien hirutatik ia bi erregai fosilak erretzeari lotuta daude; berotzeko, argindarra sortzeko, garraiorako eta industriadako erretzeari. Gure energia-kontsumoaren %80 baino gehiago jatorri fosileko erregaien mende dago. Orain arte izan diren estrategien oinarriak hauek izan dira: energia-eraginkortasunerako neurriak jartzea, energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatu eta ezartzea, lurraldeak dituen mugekin, energia berriztagarriak ezartzeko. Izango dugun energia-ereduak eusteko modukoa izan behar badu, hornidura bermatzeko modukoa izan beharko du, baina emisio gutxikoa, ordaintzeko moduko prezioa duena eta orain baino askoz ere gutxiago erasango diona ingurumenari eta osasunari, nola ekoizteko hala kontsumitzeko orduan ere.

Udal-politiken ardatza energia segurua, jasangarria eta eskuragarria sustatzea da, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera handituta.

Energia-iturriak deskarbonizatzeko, energia aurrezteaz eta eraginkortasunez erabiltzeaz gain, badu beste helburu bat ere: %40 murriztea energia kontsumitzean sortzen diren berotegi-efektuko gasak 2030erako, kontsumo horren %20 iturri berriztagarrietatik ateratakoa izatea eta 2007koa baino %20 gutxiago izatea energia primarioaren kontsumoa udalerrian. Helburu horiek, sektore zaurgarriei oinarritzeko energia-beharrak asetzen laguntzeko neurriekin osatzen dira.



3.1. SORRERA


DSS Klima 2050 planeko esku hartze estrategikoko esparru bat energia berriztagarriaren sorrera bultzatzea da. Alde batetik, haren eskaera akuilatuz, jatorri berriztagarria duen energia hornidura bermez kontratatuz eta iturri berriztagarrien sorrera, banaketa eta merkaturatzearen alde egingo duen Energia Zerbitzuen udal enpresa baten sorrera aintzatetsiz; beste alde batetik, iturri berriztagarri pribatuak eta autokontsumo banatua txertatzea sustatu eta bultzatuz. Helburua 2030. urterako udalerriaren energiaren azken kontsumoan energia berriztagarrietan %20ko kuotara iristea da.

Oraindaino mugatua izan den energia berriztagarria sortzeko iturrien aniztasun batekin, udalerrian azken urteotan energia berriztagarria sortzen duten hainbat azpiegitura instalatu dira. Hirian urtero kontsumitzen den elektrizitate eta gasaren kontsumoa erreferentzia modura hartuta, berriztagarrien ekoizpenak %6 hartuko luke. Klima-Larrialdiaren Adierazpenak ezohiko aurrekontu bat gaitzea aurreikusten du hirian energia berriztagarriaren ekoizpena bultzatzeko, batez ere udal-eraikinetan panel fotovoltaikoak instalatuz; baita Anoetan District Heating proiektua inplementatuz eta San Markosen ekoizpen fotovoltaikoa instalatuz ere.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOA


Iturria: Energiaren Euskal Erakundea- EEE eta Donostiako Sustapena





ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOA

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea- EEE eta Donostiako Sustapena





2025ean, instalazioen ahalmen metatuak, funtsean, beste biomasa batzuk eta hiri-hondakin solido berriztagarritik, eguzki-energia fotovoltaiкотik, biomasatik, geotermiatik eta eguzki-energia termikotik eratorritako energia-iturri berriztagarrietan izan du jatorria; eoliko eta biogas instalazioak ere zenbatzen dira. 2014tik hona, instalatutako eguzki-energia fotovoltaiкoa eta termikoaren ahalmenak egin du gora, eta, batez ere instalatutako biomasaren ahalmena nabarmen handitu da: 2018an, batez ere Txomin Eneko District Heating abian jarri zelako, 7.400 kW-ko potentzia instalatua, 1.400 kW-ko bi biomasa-galdara eta berokuntza eta ur beroaren zerbitzua 1.500 etxebizitzarentzat, eta 2021ean, Zubietako balorzazio energetikoko instalazioa gehituta, Beste biomasa batzuk eta HHS berriztagarri gisa sailkatutako instalazioa. 2025ean, eguzki-energia fotovoltaiкoaren hazkundera nabarmendu behar da, ziur aski hainbat administrazio bultzatutako autokontsumorako instalazioak sustatzearen ondorioz.

Bestalde, dauden laguntzei esker, berokuntza-instalazio askotan, batez ere etxebizitzetan, biomasa gasolioa ordezkatzuz joan da. Azken urteotan, eguzki-energia termikoko plaka gehiago instalatu dira, baina geotermia-instalazioen ahalmena antzeko kopuruetan mantentzen da 2017tik hona. Geotermia-instalazioen ahalmena %41 handitu da 2024. urtearekin alderatuta.


2025ean, eguzki-energiako 390 instalazio fotovoltaiкo (319 izan ziren 2024an) eta 106 instalazio termiko daude, 42 instalazio biomasa eta 41 instalazio geotermia, bi instalazio mini-eoliko eta biogas instalazio bakarra.

Donostiako Udalak, 2025ean, sareari lotutako 27 instalazio fotovoltaiкo operatibo mantendu ditu, 798,30 kWp-ko potentzia instalatua eta 11,62 m²-ko eguzki-energia termikoa dituztenak.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA


Iturria: Energiaren Euskal Erakundea- EEE, GHK eta Donostiako Sustapena





ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea- EEE, GHK eta Donostiako Sustapena





Instalatutako ahalmenari buruzko datuetatik ondorioztatzen da ekoiztutako energia zenbatetsia 71.514.307 kWh-koa izan dela 2025ean, hau da, 2024an ekoiztutako energia zenbatetsia baino %4 gehiago; bestela esan, energia hori 376 kWh/biztanleko izan da. Ekoizpen zenbatetsia handitu egin da eguzki-energia fotovoltaikoan, eguzki-energia termikoa, biomasa, geotermia eta biogasan; behe-
ra egin du, ordea, beste biomasa batzuk eta hiri-hondakin solido berriztagarrien kasuan. Minieolikoaren kasuan, energia iturri honen ekoizpen zenbatetsia zifra beretan dago 2014az geroztik.

2014an biogasaren ekoizpena %93 jaitسي zen, San Markos zabortegia 8 hilabetez geldirik egon zegoelako. 2010etik aurrera, ekoizpena jaitسي da San Markos zabortegian askoz ere biogas gutxiago ekoizti delako; izan ere, 2008tik aurrera ez da isurketarik egin eta zabortegia zigilatze- eta ixteko proiektua dago (gausatzefasean). 2020an, 26 urtetik gora biogasetik abiatuta elektrizitatea sortu ondoren, ekoizpena %74 jaitسي da: 2020ko ekainetik ez dago elektrizitaterik biogasetik abiatuta, dagoen emaria ez baita nahikoa energia elektrikoaren sortzaile gisa aprobeztatzeko, eta instalazioaren mantentze-zuzian kontsumitzen da.

2019an, nabarmen handitu zen ekoizpen zenbatetsia, batez ere biomasako instalazioak areagotu zirelako, zehatzago esan, Txomin Eneko District Heating instalazioaren ekoizpena zela eta. 2025ean bere ekoizpenak gora egin du, %8, 3.059.461 kWh-ra iritsiz.

2021ean, Zubietako balorizazio energetikorako instalazioa gehitu zen, eta horrek esan nahi du zenbatetsitako ekoizpena nabarmen handitu zela, 2025ean Beste biomasa batzuen eta HHS berriztagarrien ekoizpena 40.247.810 kWh-ra iritsiz, 2024an baino %4 gutxiago.

2025ean, eguzki-energia fotovoltaikoaren gutxi gorabeherako ekoizpenak %21 egin du gora eta geotermiaren ekoizpenak %41, batez ere mota horietako instalazioen kopurua handitu delako.

Donostiako Sustapenaren eguzki-energia fotovoltaikoen instalazioek 610.958 kWh zenbatetsi ekoizti dituzte 2024an, hau da, 2023an baino %3 gutxiago.




3.2. KONTSUMOA

Energia primarioaren kontsumoa murriztea DSS Klima 2050 Planaren helburu nagusietako bat da. Gasaren eta elektrizitatearen kontsumoa da hiriko etxeetan eta establezimenduetan sortzen diren berotegi-efektuko gasen emisioen foku nagusia. Sektore horien kontsumo elektrikoa kontsumo osoaren %91 da, baita urtero kontsumitzen den gasaren %80 ere. Horrek agerian uzten du herritarren jokabideak eta konpromisoak energia aurrezteko eta kostuak murrizteko duten garrantzia.



ELEKTRIZITATE-KONTSUMOA

Iturria: Iberdrola




2001. eta 2009. urteen artean, udalerriko elektrizitate-kontsumo osoa urteko %3 igo zen batez beste, aldi horretan %23ko hazkundera metatuz. Aurreko urteetan izandako kontsumo elektrikoaren pixkanakako hazkundera gelditu egin zen 2010ean, lehenengo aldiz jaitsi baitzen. 2010. urtetik 2025. urtera, 2015a, 2018a eta 2021a albo batera utzita, beharanzko joerari eutsi zaio; aldi horretan zehatz esan, jaitsiera %19koa izan da. 2025ean, elektrizitate-kontsumoa %0,1 jaitsi zen 2024aren aldean, eta, guztira, 620.221.739 kWh-koa izan zen, 2020. urtean erregistratutako kontsumoa baino txikiagoa, pandemiak eragindako mu-

rrizketa handienekin. 2019ko erreferentzia-urtearekin alderatuta, elektrizitatearen kontsumoa %11 jaitsi da. 2020an eta 2021ean kontsumo elektrikoaren bilakaera pandemiaren egoerak baldintzatzen du; 2022an kontuan hartu beharreko faktore bat elektrizitatearen prezioa da, Espainiako handizkako merkatuko batez besteko prezioa 2021ekoaren ia bikoitza izan baitzen. 2025ean elektrizitate-kontsumoa %0,1 jaitsi zen 2024aren aldean, eta EAEn ikusitako bilakaeraren ildotik doa, izan ere, EAEn elektrizitatearen kontsumoa %1,2 jaitsi baita.



ELEKTRIZITATE-KONTSUMOAREN BANAKETA BIZTANLEKO

Iturria: Iberdrola






Etxeetako per capita kontsumo elektrikoa antzeko zifratan mantentzen da 2024arekin alderatuta (hiriko etxeko kontsumoan % 0,1eko igoera dago), 2023an aztertutako seriean erregistratutako kontsumo-mailarik txikiena lortu ondoren. Zerbitzu sektorekoko per capita kontsumoak gora egin du, % 1,5 2024arekin alderatuta. Industria-sektoreko kontsumo elektrikoa, berriz, % 10,5 jaitsi da, 2020. urtean hasitako beheranzko joerarekin jarraituaz 2023an gora egin ondoren. Bizitegien eta zerbitzu sektorearen kontsumo elektrikoaren bilakaera hori bat dator EAEn ikusitako bilakaerarekin; izan ere, sektore horietan %0,7ko eta % 0,4ko igoera gertatu da hurrenez-hurren, eta baita industriaren kasuan, EAEn %1,5eko jaitsiera gertatu baita.

Udalerriko elektrizitate-kontsumoaren sektorekako banaketa ehuneko berdinetan mantendu da, gutxi gorabehera, azken urteetan, baina, 2020tik kontsumoan izandako aldaketek zerbitzu-sektorearen adierazgarritasuna handitzea eragin dute, bizitokien eta industriaren sektoreen kaltetan: kontsumoaren erdia baino gehiago zerbitzu-sektoreari dagokio (2019an %52,1 izatetik 2025ean %57,6 izatera); heren bat etxebizitza sektoreari (2019an %32,4tik %33,4ra 2025ean), eta gainerakoa, industria-sektoreari (2019an %15,4tik 2025ean %9,0ra). Sailkatu gabekoen ekarpena gutxituz joan da pixkanaka, eta 2023 urteaz geroztik ez dago energia-kontsumorik epigrafe honetan, hornidura bakoitza dagokion sektore ekonomikoari esleitzea ahalbidetzen duen EJSNen definizioaren etengabeko hobekuntzaren ondorioz.



GAS-KONTSUMOA

Iturria: Nortegas



Udalerriko gas-kontsumo osoaren bilakaerak zerra-hortz asimetrikoen itxura du; kontsumo-gailurra 2012an izan zen, ordu arte lortutako kontsumoak gaindituta. 2014tik 2018ra, goranzko joera izan du: bost urte horietan %17ko hazkundea izan du, 2018an, aurkeztutako seriearen bigarren kontsumo handiena izanik. 2020an, %6 jaitsi zen gas-kontsumoa, 2021ean %8,5 igo da aldiz, pandemia


egoerak baldintzatutako urteak. 2025ean gas-kontsumoak gora egiten du berriro ere 2022 eta 2023ko jaitsieren ondoren, %1,8 2024arekin alderatuta, guztira, 568.916.112 kWh-koa izan zen. Gas-kontsumoaren bilakaera hori EAEn ikusi-tako bilakaeraren kontrako ildotik doa; izan ere, gas-kontsumoa %5,7 jaitsi zen.



GAS-KONTSUMOAREN BANAKETA BIZTANLEKO

Iturria: Nortegas

Etxeak Industria Zerbitzuak






2025ean, gora egin dute etxebizitzaren (%3,3) eta industria (%4,7) sektoretako biztanleko kontsumoak; zerbitzuen sektoreak, aldiz, behera egiten du (%1,5). Sektore guztietako kontsumoak 2019ko kontsumoen azpitik daude; industria-sektorearen kontsumoa ia erdira jaitsi da, eta aztertutako seriean erregistratutako kontsumo-mailarik baxuenetara iritsi da etxe-sektorean. Etxeko sektoreko gas-kontsumoaren bilakaera hori dator bat EAEn ikusitako bilakaerarekin (%5,4ko igoera); zerbitzuen eta industriaren sektoreetan ez dator bat, ordea, EAEn %1,5eko igoera izan baita zerbitzuetan eta %6,7ko jaitsiera industrian.

Sektorekako banaketari dagokionez, 2022an emandako aldaketen ondoren, 2024an antzeko zifretan mantentzen da: etxeko gas-kontsumoa kontsumoaren %41 da (%41 zen 2024an); ondoren, zerbitzu-sektorea, %39 (2024an %40 zen) eta industria-sektorea, %20 (2024an baino portzentajezko puntu bat gehiago, %19 bait zen).



GASOLIOAREN ETA PETROLIO-GAS LIKIDOTUAREN KONTSUMOA ETXEBIZITZA-SEKTOREAN




Etxebizitza-sektoreko Petrolio-Gas Likidotuaren (PGL) kontsumoa behera joan da 2015etik, eta, harrezkero, antzeko zifrak izan ditu. 2020ko datuek adierazten dutenez, urtean %9 egin du behera, etxebizitza-sektorean PGLaren kontsumoa 7.775.000 kWh-koa izanik; horrek esan nahi du biztanleko 41 kWh kontsumitu dela.

Etxebizitza-sektorearen gasolio-kontsumoak goranzko joera izan du 2014tik 2018ra; azken urte honetan, aurreko urteetan baino askoz gehiago kontsumitu zen, 2017an baino %123 gehiago, hain zuzen. 2020ko datuek erakusten dute, berriz, %23ko jaitsiera izan dela urtean, etxebizitza-sektorean gasolioaren kontsumoa 27.760.000 kWh-koa izanik, hau da, 148 kWh-koa biztanleko.



GASOLIOAREN ETA PETROLIO-GAS LIKIDOTUAREN KONTSUMOA ZERBITZU-SEKTOREAN




Zerbitzuen sektorean, PGLaren kontsumoak beherakada handia izan du 2014. eta 2015. urteen artean, eta beheranzko joera nabari da 2017tik aurrera ere, nahiz eta hau txikiagoa izan den. 2020ko datuek erakusten dutenez, urtean % 24 egin du behera PGLaren kontsumoa, zerbitzuen sektorean 580.000 kWh-koa izanik, hau da, 3 kWh-koa biztanleko.

Zerbitzu-sektorearen gasolio-kontsumoak goranzko joera izan du 2014tik 2018ra; azken urte honetan, aurreko urteetan baino askoz gehiago kontsumitu zen, % 123 gehiago hain zuzen, 2017arekin alderatuta. 2020ko datuek erakusten dute, berriaz, % 23ko jaitsiera izan dela urtean, zerbitzu-sektorean gasolioaren kontsumoa 14.948.000 kWh-koa izanik, hau da, 80 kWh-koa biztanleko.



UDALERRIKO GUZTIZKO ENERGIA-KONTSUMOA

Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE) eta Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)



2014. urtetik 2018. urtera, urteko energia-kontsumoa %30 handitu da udalerrian, eta hazkunderik handiena 2015. eta 2016. urteen bitartean izan da. Kontsumoa 2.581.885.359 kWh-koa izan zen 2014. urtean, eta 3.364.227.989 kWh-koa 2018an; hau da, per capita kontsumoaren bilakaera 13.874 kWh/biztanleko izatetik 17.950 kWh/biztanleko izatera pasa zen.



3.3. ERAGINKORTASUNA

DSS Klima 2050 planaren helburuetako bat 2030. urterako udalerrian lehen mailako energiaren kontsumoa %20 murriztea da 2007tik abiatuta. Horretarako, klima aldetiko irizpideak izango dituen Eraikinen Energia Efizientzia eta Ingurumen Kalitaterako Udal Ordenantza berri bat eratzeaz gain, planean udal eraikinak zaharberritu eta birsortzeko programa baten garapena aurreikusten da, etxebizitzak energiari dagokionez birgaitzeko eta merkataritza, zerbitzu eta jatetxeetako energia efizientzia hobetzeko laguntza, finantzaketa eta fiskaltasun programekin batera, ekonomikoki ahulak diren pertsona-taldeetan etxebizitzaren birgaitze energetikoa bultzatuz eta 1940tik 1980ra bitartean eraikitako etxebizitza-taldeen berrikuntza bereziki bultzatuz. Beste programa batzuk merkataritzaren, zerbitzuen eta jatetxeen eraginkortasun energetikoa hobetzeari buruzkoak dira, eta jarduera-zentroetan (industrialdeak, enpresak, unibertsitateak, ospitaleak, etab.) Klima Planak garatzea ere aurreikusten dute.



ETXEBIZITZEN ENERGIA-ZIURTAGIRIAK

Iturria: Ekonomia Garapena eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritzza)

2025	Ziurtagiri kopurua				Ziurtapena jasotako eraikin eta etxebizitza kopurua		Ziurtapena jaso duen azalera osoa	
ENERGIA KONTSUMOAREN ARABERAKO KALIFIKAZIOA	ETXEBIZITZAK	BESTE ERABILERA DUTEN ERAIKINAK	GUZTIKOA	%	GUZTIKOA	%	GUZTIKOA (m ²)	%
A	65	25	90	% 3,8	665	% 7,3	135.386	% 13,5
B	8	9	17	% 0,7	17	% 0,2	19.938	% 2,0
C	10	10	20	% 0,8	172	% 1,9	64.089	% 6,4
D	145	59	204	% 8,7	987	% 10,8	141.604	% 14,2
E	1.106	92	1.198	% 50,8	4.896	% 53,7	446.759	% 44,7
F	326	89	415	% 17,6	1.264	% 13,9	113.070	% 11,3
G	376	38	414	% 17,6	1.119	% 12,3	78.922	% 7,9
GUZTIKOA	2.036	322	2.358		9.120		999.768	


Higiezinaren eraginkortasun energetikoa ebaluatuko du ziurtagiriak, eta kalifikazio bat emango dio A, eraginkortasun handiena dutenentzako, eta G arteko letra baten bidez, eraginkortasun gutxiena dutenentzako. Donostian, 2025. urtean erregistratutako ziurtagiri kopurua 2.358 da; ziurtagiri hauek 9.120 etxebizitza eta beste erabilerako eraikinei dagozkie.

Ziurtagiria duten higiezin gehienak (%53,7) E energia-kategorian sailkatzen dira. Beste erabilera batzuetarako diren etxebizitza eta eraikinak, A, B edo C energia eraginkortasuneko ziurtagiriak dituztenak —hau da, energia-eraginkortasunik handiena duten kategoriak—, ziurtagiria duten higiezinaren %9,4 izan dira 2025en —hau da, ziurtagiria duen azalera osoaren %21,9— eta m²-ko 66 kWh-ko kontsumoa izan dute urtean.



ETXEBIZITZEN ENERGIA-ZIURTAGIRIEN URTEKO BILAKERA

Iturria: Ekonomia Garapena eta Azpiegitura Saila (Eusko Jaurlaritza)



2025ean, 9.120 eraikinek ziurtagiria jaso dute, eta horietatik % 9,4k A, B edo C kalifikazioa lortu du, hau da, ziurtagiria lortutako azalera osoaren % 21,9.

2025ean ziurtatutako higiezin kopurua 2024an baino handiagoa izan da, urte hartan behera egin zuen 2023ko igoeraren ondoren, aztertutako seriearen kopuru handiena izan zelarik (10.049 higiezin 2023an), eta gehiago izan dira halaber A, B edo C kalifikazioa lortu duten higiezin kopurua ere (854 higiezin 2025ean eta 440 higiezin 2024an).



ETXEBIZITZA ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOA

Iturria: Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)


Duela 15 urte baino gehiagotik, 2009ko ekainean Eraikuntzako Energia Eraginkortasunari buruzko lehen Ordenantza onartu zenetik, Donostiako udalerriak eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzeko hainbat politika eta araudi landu ditu. Helburu orokorra izan da jabeek higiezin bizi zikloan zehar egiten dituzten birgaitze obrek dakarten aukera baliatzea, inguratzaile termikoa termikoki eta energetikoki hobetzeko eta instalazioak berritzeko. Esku hartze horien ondorioz, eraikinek gero eta energia gutxiago eskatzen dute konfort termikoa lortzeko, eta, era berean, dagoen parke eraikia konfort handiagokoa eta osasungarriagoa izateko.

Eraikinak XXI. mendeko eraikuntza estandarrekin berritzen dituen birgaitze bat bultzatu da, hiriari aukera ematen diona karbono aztarna murrizteko klima aldaketa aurrak borrokan. 2021ean, aipatutako lehen ordenantza indargabetu zen, gaur egun indarrean jarraitzen duen beste bat onartzeko. Beste aldaketa batzuen artean, arau berri horrek isolamenduen exigentzia mailak eguneratu zituen, eta zehaztasun handiagoz mugatu zituen araua aplikatzea edo ez aplikatzea baldintzatzen duten obren ezaugarriak.

2021-2024 aldian, 2021ean onartutako Eraikuntzako Energia Efizientziari buruzko azken Udal Ordenantzarekin, 674 birgaitze obra tramitatu dira egoitza edo etxebizitza eraikinetan, eta horietatik 582k obra lizentzia lortu zuten. Onartutako obren % 25,6 estalkien birgaitzeak izan dira, % 27,4 fatxaden birgaitzeak, % 29,9 fatxada eta estalkien baterako birgaitzeak, % 16,3 unean birgaitze puntualak (terrazak, arkupeak...) eta % 0,7 bestelako esku hartzeak. Aldi horretan baimendutako birgaitze obrek 8.317 etxebizitza biltzen dituzten bizitegi eraikinetan dute eragina.

Birgaitze lanak egin aurreko energia ziurtagiriek jarraian adierazten den erradiografia erakusten dute lehendik dagoen parke eraikiaren egoerari buruz, energia berriztaezineko energia kontsumoari dagokionez. Eraikinen % 47,4k G (146 eraikinek) eta F (128 eraikinek) kalifikazio energetikoa zuten. Dena den, eraikinen % 0,5ek A, B edo C kalifikazio energetikoa zuten.

Eraikinen birgaitu aurretiko kalifikazio energetikoa energia primario ez berriztagarriaren kontsumoan






Birgaitzeen ondoren, energia primario ez berriztagarriaren kalifikazio energetikoe-tan 352 jauzi egin dira letraren hobekuntzan; hau da, batez beste 0,61 jauzi obra bakoitzeko. Hala ere, 329 obratan (% 56,9) birgaitzeak ez du inolako hobekun-tzarik ekarri kalifikazioaren letran. 160 lizentziatan (% 27,7) hobekuntza jauzi bat egon da, 73 obratan (% 12,6) bi hobekuntza jauzi, 13 jarduketatan (% 2,8) hiru jauzi eta obra bat hobetzeko lau, bost eta sei jauzi, hurrenez hurren.

Eskalan kalifikazio energetiko okerrenak (G eta F) zituzten eraikinen portzentajea % 22,4ra jaitsi zen; hau da, ehuneko 25 puntuko jaitsiera izan zen. A, B eta C kalifikazio energetikoei dagokienez, tramitatutako eraikinen portzentajea % 2,9ra igo da (20 eraikin).

Eraikinen birgaitu ondorengo kalifikazio energetikoa energia primario ez berriztagarriaren kontsumoan



Birgaitze lanen aurretiko eta ondorengo energia ziurtagirien arteko konpa-razioak adierazten du hirian sustatutako esku hartze horiek, guztira, urteko 48.403.079,59 kW/h-ko aurrezpen teorikoa dakartela energia primario ez be-rriztagarriaren kontsumoan, eta horrek esan nahi du urteko 10.522,58 t CO₂-ko emisioa saihestu dela. Obra bakoitzeko batez besteko aurrezkiak urteko 83.742,35 kW/h-koa izan da; hau da, hasierako energia-kontsumoaren gaineko % 22,43ko hobekuntza egon da.

Donostiako Udalaren webgunean, Ingurumen atariko Energia atalean (<https://www.donostia.eus/ataria/web/ingurumena/energia>), Eraikuntzako Energia Efizien-tziari buruzko Ordenantzaren aplikazioari buruzko datu gehiago lor daitezke, ar-gitaratzen diren urteko jarraipen txostenak kontsultatuta.

4. EKONOMIA ZIRKULARRA



Ekonomia zirkularraren inguruko politika publikoek lehengaien erabileraren “zirkulua ixtea” sustatu eta erraztu nahi dute. Horren bidez, hondakinak lehengai iturri bihurtzen dira, eta gutxitu egiten da energiaren eta uraren kontsumoa, bai eta berotegi efektuko gasen igorpena ere.

Udalak, nagusiki, kontsumo arduratsuago bat sustatzeko jarduerak egin ditu, horrek berekin baitakar hondakinak gutxitzea ere. Gainera, hondakinak behar bezala bereiztea eta bakoitza bere edukiontzian botatzea sustatu du, gerora ere aprobetxatu ahal izan daitezen. Uraren banaketa sarea etengabe hobetzeko eta haren erabilerei eusteko egin den lanari esker ere, karbono aztarna jaisten ari da eremu horretan.



4.1.

ELIKADURA


Udalaren elikadura-estrategiak, hiriko elikadura eta elikadura-sistemaren kudeaketa hobetzea du helburu, eta, horretarako, aldaketak sustatu eta bultzatzen ditu hiriko elikadura-erregimenean, eredu osasungarriagoa, jasangarriagoa eta integratzaileagoa lortzeko. Horretarako, elikadura-ekosistema osatzen duten eragileekin akordioak eta itunak egiten ditu.

Hirian ekimen-aukera interesgarria dago, tokiko ekoizpena, prozesatzea, banaketa eta kontsumoa bultzatzeari dagokionez. Erreferentzia nagusia Guztiona nekazaritzako elikagaien klusterra da; tokiko nekazaritzako elikagaien balio-kate osoaren 70 ekimen baino gehiago biltzen ditu. Tokiko ekoizpen-ahalmena mugatua da, gaur egungo tokiko ekoizpenarekin ez baita iristen fruten eta barazkien eskaeraren %5a ere asetzerara. Kalkuluen arabera, nekazaritzako eremua batez beste, 33,5m² dira, biztanleko. Produktu horien eskaeraren %10 hiriko ekoizpenarekin hornitzeko, 57 hektarea beharko lirateke. Udalerriko elikagaien ekoizpena osatzen duen beste jarduera bat autokontsumoko baratzeak dira. 66 eremu edo baratze-talde daude identifikatuta, 42,10 hektarea hartzen dituztenak. Aisialdiko udal-baratzeak eta hezkuntzarako erabiltzen direnak ere badaude.



SORTZEKO GAITASUNA: NEKAZARITZA USTIAPENAK

Iturria: Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEEK)



Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean inbentariatutako agrologia balio handiko lurak eta ustiapen estrategikoak 327,61 hektarea dira, udal barrutiaren %5,4. Azalera nagusiak Lau Haizetan (batez ere barazki eta fruituetara nahiz abeltzaintzara bideratutako ustiapenak), Urumeako ibarrean (nagusiki barazki eta fruituetara bideratutako ustiapenak), Igeldon (bereziki abeltzaintza erako ustiapenak) eta Zubietan lekutzen dira.

Donostian, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan (ENEEK) izen emandako operadore ekologikoak 12 dira, 24,3 hektarea bideratuta laborantza ekologikora 2025ean zehar: fruituen hazkuntzarako 10,8 hektarea; baratzeazaintzarako 4,1 hektarea; larre eta zelaiak mantentzera bideratutako ustiapenak, 9,4 hektarea dira.



NEKAZARITZAKO JARDUERA EZ-PROFESIONALAK HIRIAN

Ingurumen atalak egina du udalerrian egiten diren nekazaritza jarduera ez-profesionalen azterlan bat. Txosten horretan, lurzoru publiko zein pribatuetako baratze ez-profesionalak aztertu eta sailkatzen dira, bai eta horien mapaketa egiten ere.

Azterlanean identifikatutako azalera oinarritzat hartuta eta partzela bakoitzeko batez beste 100 bat m²-ko eremua hartuta, esan liteke 2500 bat pertsona ari-tzen direla partzela horietan. Beraz, aisialdiko eta autokontsumoko baratzeak oso jarduera esanguratsua dira, eta, gutxi gorabehera, biztanleen % 1,5ek ateratzen die onura. Autokontsumorako baratze horien bidez, barazki eskariaren % 0,9-1,8ri erantzuten zaio.

Horrez gain, azterlanak dio askotan baratzeak langabeei lotuta daudela eta horrek lagundu egiten diela familiei janariz hornitzeko egin behar duen gastua gutxitzen. Erretiroa hartua dutenen eta lanean ari direnen kasuan, jarduera horrek familiaren ekonomiari laguntzen dio edo hura osatzen du. Gainera, espazio horiek funtzio sozial bat betetzen dute zenbait pertsonarentzat, hor aurkitzen baitute aisialdirako, ondo pasatzeko eta autorrealizatzeko tokia.

Ingurumen alderdiari dagokionez, baratzeek berdeguneak mantentzen dituzte, biodibertsitatea eta lehengoratzeko ekologikoa sustatzen dute, zerbitzu ekosistemikoekin laguntzen dute eta baliabide naturalen kontsumoa erregulatzen dute. Nahiz eta hiriko barazki ekoizle profesionalen bidez erantzuten zaion eskariaren ehuneko handienari, aisialdiko baratzeen azalera handiagoa da ekoizpen profesionalaren azalera baino, eta ez da sumatzen beste banaketa bide batzuekiko lehiarik; esate baterako, autokontsumoko saskiekin.



ELIKAGAIAK EROSTEKO ETA KONTSUMITZEKO OHITURAK

Elikadura osasungarria sustatzea da Udalak elikaduraren alorrean duen estrategiaren ardatz funtsezkoenetako bat. Horretarako, 2019an, Ingurumen atalak azterlan bat egin zuen, donostiarrek zer erosi eta kontsumitu ohi duten jakiteko. Lanaren xedea zen adin bateko eta besteko donostiarrek zer elikadura ohitura dituzten eta zer dieta eta menu egiten dituzten jakitea, bai eta herritarrek tokiko produktuekiko zer interes duten eta elikadura osasungarriari zer garrantzi ematen dioten aztertzea ere. Ikerketa horretan, aztergai izan ziren beste hainbat alderdi ere, hala nola: jendeak zer jarrera edo interes duen hurbileko produktuak, produktu freskoak edo prestatuak erosteari dagokionez, eta erosketa zenbatean behin egiten duen.

Etxeetako hornidurari dagokionez, azterlanak nabarmentzen du nork bere auzoan erosten dituela, gehienbat, elikagaiak (%79), batez ere auzoko dendetan eta supermerkatuetan (%80). Erosi ere, maiz erosten dira, hau da, gutxienez astean behin edo gehiagotan (%26 eta %72, hurrenez hurren). Nagusi dira erosketa egiteko autoa erabiltzen ez duten pertsonak (%71), eta gutxiengoa, berriz, autoa hartzen dutenak. Gidariak, eskuarki, gizonak izaten dira. Datu hori, batetik, lotuta dago erosketa auzoan bertan egitearekin, erosketa auzoan egiteko ez baita autorik behar. Autoa, batik bat, irisgarritasun gutxien duten auzoetan erabiltzen dute, hala nola Aieten eta Miramonen.

Inkestan ikusi da jendeak kontuan hartzen duela produktuak freskoak eta kalitatekoak izatea; dena dela, gizarte kontzientzia txikiagoa dago elikagaiaren jatorriari, produzitzeko erari edo enbalaje motari dagokienez. Hau da, produktuak kalitatekoak eta freskoak izatea funtsezko elementuak dira erosteko orduan, baina ez hainbeste produktuak non edo nola ekoizten diren.

Herritar gehienek etxean bazkaltzen eta afaltzen dute aste barruan (%81ek eta %98k, hurrenez hurren); beraz, herritarrek kontsumitzen duten elikagai motaren fluxu handi bat da hori. Horri dagokionez, barazki eta frutaren kontsumo handia da herritarren elikadura ohituraren bereizgarria: %78k astean edo egunean hiru aldiz jaten ditu barazkiak, eta %84k egunean fruta ale bat kontsumitzen du gutxienez. Adinaren arabera, proportzioan fruta jaten duten pertsonak gazteak dira: 18-40 urteko pertsonen %60k egunero kontsumitzen du fruta, eta kontsumoa %40ra jaisten da 40 urtetik gorakoan artean.

Lekaleak, haragia eta arraina astean bizpahiru aldiz kontsumitzen dira. Azpimarratzekoa da, hainbat arrazoi direla eta, haragia kontsumitzeari utzi diola jendeak, batez ere emakumeek. Zerealak astean 1-2 aldiz kontsumitzen dira. Lekaleak eta barazkiak antzera kontsumitzen dira, sexua eta adina edozein direla ere; beraz, pentsa liteke belaunaldiz belaunaldi transmititutako ohitura edo balioen ondorio dela hori.

Kontsumitzen diren bestelako elikagaien artean, honako hauek dira nagusi: gozoak egunero kontsumitzen dira (pertsonen %32), elikagai frijituak astean 1-3 aldiz (inkesta egin zaien pertsonen %68). Era berean, jendea hasia da aurrez prestatutako janaria edo etxera bidaltzen dutena eskatzen; hain zuzen, %35ek egiten du hori, astean behin. Horien artean, gehien-gehienak gizonak dira, 18-60 urte bitartekoak. Azkenik, aipatzekoa da inkestari erantzun dioten pertsonen %74 saiatu dela gatz edo azukre gutxiago kontsumitzen.



4.2.

HONDAKINAK

Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legea onartzeak hondakinen tokiko politika aldatzea dakar. Kontua ez da soilik hiri-hondakinen frakzioak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, modu mankomunatuan edo udal-baliabide propioekin, baizik eta prebentzioan, bilketa bereizian, trazabilitatean, zerbitzuen autofinantzaketan eta ekoizlearen erantzukizun hedatuan oinarritutako kudeaketa-eredu baterantz aurrera egiten jarraitzea.

Arau-esparru berri hori Hondakinen Legea garatu edo osatu duten sektore-arau batzuen bidez zehaztu da. Horien artean, bereziki garrantzitsuak diren bost arau nabarmentzen dira: 1055/2022 Errege Dekretua, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa; 1/2025 Legea, elikagaien galera eta xahuketaren prebentzio-legea; 1093/2024 Errege Dekretua, filtro-dun tabako-produktuen eta plastikoa duten filtroen hondakinei buruzkoa; 712/2025 Errege Dekretua, bizitza baliagarriaren amaieran dauden pneumatikoei buruzkoa; eta 70/2025 Errege Dekretua, giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei buruzkoa.

Donostian, hiri-hondakinen kudeaketak egitura partekatua du. Udalak, funtsean, errefusa eta biohondakina/materia organikoa biltzen ditu; San Markoseko Mankomunitateak, berriz, beira, paper-kartoi, ontzi, ehunki eta pilen gaikako bilketa kudeatzen du, horiei lotutako beste zerbitzu batzuez gain. Ontzien eta ontzi-hondakinen arau-esparru berriak emaitzetan eragiten du: zenbat eta bereizitako bilketa gehiago, orduan eta materialaren kalitate hobea, errefus gutxiago, datu gehiago eta ekoizlearen erantzukizun zabalduari erabat lotutako finantzaketa. Helburuen artean, arauak planteatzen du ekoiztitako ontzien hondakinen pisua, 2010ean sortutakoekin alderatuta, %13 murriztea 2025ean eta %15 2030ean, eta merkaturatutako ontzi guztiak birziklagarriak izatea 2030ean, eta ahal den guztietan, berrerabilgarriak.



Testuinguru horretan, prebentzioak, hondakinak ez sortzeak, berebiziko garrantzia du, baita berrerabiltzeak ere, eta baztertzen diren materialekin, pertsona bakoitzak nahitaez bereizi behar ditu bere etxe, saltoki eta jarduera ekonomikoetan hondakin-frakzioak, eta udal-ordenantzak ezartzen duenaren arabera utziko ditu. Biohondakina/materia organikoa biltzeko baliabideak zabaltzeak garrantzia hartzen du, baina, gainera, 1/2025 Legeak, elikagaien galera eta xahuketaren prebentzio-legeak, fokua hondakinaren kudeaketatik prebentziora lekualdatzen du. Logika argia du: elikagai bat biohondakin bihurtu aurretik, haren galera ekidin behar da, aprobetxamendua erraztu edo dohaintzara bideratu.

Kontuan hartuta plastikodun tabako-iragazkiak direla hondartzetan eta espazio publikoetan erabilera bakarreko plastikozko hondakinik ohikoentako bat, 1093/2024 Errege Dekretuak filtrodun tabako-produktuen

hondakinaren kudeaketa arautu du, udalerriko hareatzak kudeatzeko eta erabiltzeko araudia ere azpimarratuz. Hondartzez gain, arauak berariaz aipatzen ditu parke publikoak, jolas-eremuak, lantoki publikoak, ikastetxe publikoak, ekitaldi handiak, kirol-instalazio publikoak, zerbitzuguneak eta garraio publikoko geltokiak edo espazioak. Araua onartu (2024ko urria) eta bost urteko epean, bilketa-sistema publikoek azpiegitura espezifikoa izan beharko dute hondakin horiek bereizi ahal izateko.

Plangintzaren ikuspegitik, DSS Klima 2050 Planak aurreikusten du, 2010arekin alderatuta, 2030ean sortutako hondakinaren zifra globala %15 murriztea, eta urte horretan bertan %80 gaika biltzea. Udal Gobernuak 2020ko martxoan bere gain hartutako Larrialdi Klimatikoaren Adierazpean, 2025ean gaikako bilketa %60-era iristea planteatzen zen.



HONDAKINEN KOSTU EKONOMIKOA

2025ean, 83.608.890 kg hondakin sortu ziren guztira; horietatik 35.364.037 kg (%42,30) gaika bildu ziren; beste parte handi bat (48.244.853 kg) balorizazio energetikorako eraman zen; hondakin gehienak kaleko edukiontzietan bildutakoak ziren, %91,53, errefusa deritzoguna. Bolumen handi hori askotariko eta nahasiriko materiala da, tonaka bildua, eta material hori Gipuzkoako Ingurumen Gunera eraman da. Hondakin horiek -beira, materia organikoa, ontzi arinak, paper kartoia, ehunak, etab.- behar bezala bereizi eta dagokion edukiontzian botako bagenu, izugarrizko aurrezki ekonomikoa lortuko genuke, kudeaketa ez bai litza-teke ordaindu beharko, eta material aprobetxagarriak berreskuratuko genituzke, eta, ondorioz, erretzea ekiditu.

Bilgarriak, ontziak, botilak, janari hondarrak eta etxetik datozen bestelako elementu berrerabilgarri edo birziklagarriak, ondo bereizten ez badira eta zakar poltsan sartzen badira, kostu gehigarri bat dakarte eta handitu egiten dute donostiarrek ordaindu beharreko faktura.


Hondakinak kudeatzeko eta tratatzeko gastuari aurre egiteko jarri behar den dirua (bilketa pneumatikoa eta tamaina handiko hondakinena barne) 28,89 milioi euro izan zen 2025ean, eta zabor tasaren bidez 25,74 milioi euro besterik ez ziren bildu.

Ekonomia Zirkularrerako Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeak, 2022ko apiriletik indarrean dagoena, fiskalitate-esparrua eta hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten pizgarri ekonomikoak berritu ditu. Legearen 11.3 artikulua ezartzen duenez, hiru urteko epean toki-erakundeek ezarri beharko dute “tasa bat edo, hala badagokio, zergazkoa ez den ondare-prestazio publiko bat, espezifikoa, bereizia eta ez-defizitarioa, sortzeagatiko ordainketa-sistemak ezartzeko bide emango duena eta hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eragiketen zuzeneko edo zeharkako kostu erreala islatzen duena”. Era berean, 11.4 artikulua tasak edo prestazioak zehaztean kontuan hartu ahalko diren elementuak aipatzen ditu, hala nola etxeko edo erkidegoko konpostatzea, gai organikoaren bilketa bereizia edo garbiguneen erabilera.



GUZTIRA SORTUTAKO HIRI HONDAKINAK

Iturria: San Markoko Mankomunitatea




2015etik 2019ra arte, hondakinen sorkuntza %1 handitu zen batez beste, ur- teko. Krisi ekonomikoaren ondorioz, kontsumoa ere murriztu zen, eta hori izan zitekeen aurreko urteetan hondakinak oro har murriztu izanaren arrazoietakoa bat; dena dela, 2016tik, gora egiten ari zen. 2025ean, hondakinen sorrera %0,4 jaitsi da 2024arekin alderatuta, eta 83.608.890 kg bildu dira, hau da, 440 kg biztanle eta urteko, 2 kg gutxiago donostiar bakoitzeko. Hondakinak murrizteko udal-planen helburua 2030erako 2010ean sortzen zen bolumen osoaren %15 murriztea da. 2025ean 2010eko erreferentziazko kopurua %4,6 murriztea baino ez da lortu.

2025ean, hirian dauden jarduera ekonomikoetarako poligo- noetan 3.583.410kg hondakin bildu dira guztira, 2024an baino %1,4 gehiago. Gainera, obratik eta eraispenetik sortu- tako 815.208 kg hondakin bildu dira guztira, 2024an baino %1,4 gutxiago eta hondartzen garbiketara 369.460 kg-ra iritsi da, aurreko urtetik %2,7 gehituaz. Era berean, bide- edukion- tzietatik eratorritako hondakinen kopurua %0,1 gutxitu da, 44.160.200kg- rekin.



GAIKAKO BILKETA

Iturria: San Markoko Mankomunitatea




2025ean, gaika bildutako hondakinen kopuruak behera egin du %0,8 2024arekin alderatuta: 35.364.037 kg hondakin jaso dira, 186 kg biztanle eta urteko. 2015etik 2019ra bitartean, gaika bildutako hondakinak %4 inguru igo ziren urtero batez beste, 2017an izan ezik; urte horretan, %0,12 jaitsi zen tasa. Testuinguru pandemikoarekin, material hauen sorrera eta fluxuak aldatu dira, bai etxeetan, bai jarduera ekonomikoetan, intentsitate handiagoan edo txikiagoan. Biztanle eta urte bakoitzeko hondakin-tasa azken 10 urteetako batezbestekoan dago (188 kg/biz), 2019tik 16 kg murriztu baita, urte horretan batez beste 202 kg/biz.



GAIKA BILDUTAKO HONDAKINEN TASA

Iturria: San Markoko Mankomunitatea




Sortutako hondakin guztiak kontuan hartuta, gaika bildutako hondakinen ehunekoak behera egin du zertxobait 2024arekin alderatuz; hain zuzen, 2025ean, hiri hondakin gisa bildutako material guztiaren %42,30 izan da. Hirian dauden jarduera ekonomikoetarako poligonoetan hondakinen %58a gaika bildu da, 2024an baino portzentajezko puntu bat gutxiago; nahiz eta gogoratu 2020an gaika bildu zirela hondakinen %69 eta 2018an %68.

Gaika bildutako materialen artean, bilketak gora egin duen zatikiak 2024arekin alderatuta honakoak izan dira batez ere: ontziak (%2,7), materia organikoa (%0,1), egurra (%1,7) eta ehun-gaiak (%2,7). Behera egin dute, ordea, honako zatikiek: paper-kartoia (%1,1), beira (%5,9) eta tamaina handikoak (%0,1).



GAIKAKO BILKETAREN TIPOLOGIA

Iturria: San Markoko Mankomunitatea



2014tik aurrera, gaika bildutako hondakinen banaketa aldatu egin zen, aurreko urteekin alderatuz, hainbat faktore zirela eta: 2014an, hiri guztira zabaldu ziren materia organikoa biltzeko edukiontziak, eta etxeko olioak biltzeko edukiontziak jarri ziren auzo guztietan.

Paper-kartoen bilketa, 2020. urteaz geroztik murriztuz joan ondoren, % 1,1 jaitsi da 2024. urtearekin alderatuta, 2023. gora egin ondoren, eta multzo garrantzitsua da oraindik ere, izan ere, 2025ean bildutako material selektiboaren kilogramo guztien % 29,03 da.

Beira-bilketaren pisu-bolumenak behera egin du 2025ean, % 5,9 2024 urtearen aldean, eta gaika bildutako hondakinen pisuan % 19,56 da; ontzi arinak, berriz, % 16,96 dira, % 2,7 gora eginez.

Materia organikoaren bilketak % 0,1eko igoera izan du 2024 urtearen aldean. Hondakinen frakzio hori gaika bildutako material guztien % 15,42 inguru da.

Tamaina handiko hondakinak gaikako bilketaren % 8,04 dira, eta 2024arekin alderatuta % 0,1 jaitsi dira. San Markoko birziklatze eremuan eta Garberako eta Atotzarrekako garbiguneetan bildutako beste hondakin berde batzuetatik datozen zurak eta materialak % 4,21 dira.

Gainerako frakzioek % 6,78 egiten dute guztira, eta horien artean obra-hondakin eta ehun-gaiak nabarmentzen dira, guztizkoaren % 2,31 eta % 1,77 baitira, hurrenez-hurren.



GAI ORGANIKOA

Iturria: Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritza. Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua. Donostiako Udala

MATERIA ORGANIKOAREN BILKETAREN BILAKAERA															
	2011*	2012*	2013*	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira bildutakoa (kg)	858.865	907.410	1.038.062	2.367.960	4.770.700	4.919.800	4.912.600	5.135.120	5.456.155	4.942.270	5.122.650	5.111.570	5.156.520	5.233.150	5.176.210
Atxikitako familiak	3.609	3.839	4.406	17.807	21.050	22.939	24.184	25.731	28.132	29.562	30.691	31.529	32.339	32.339**	34.632
Atxikitako familien %	% 21	% 24	% 26	% 23	% 27	% 30	% 31	% 33	% 36	% 37	% 39	% 40	% 40	% 40**	% 43
Atxikitako establezimenduak	—	—	—	1.348	1.559	1.569	1.627	1.717	1.812	1.863	1.917	2.264	2.340	2.340**	2.519

* 2011, 2012 eta 2013 urteetako datuak Gros eta Amara auzoei dagokie soilik, gainerakoetan ez bait zegoen edukiontzirik. | ** Eguneratu gabeko datuak.

Zubietako digestore anaerobikoan tratatzeko materia organikoa biltzeko programaren barruan, 5.176.210 kg bildu dira 2025ean. Kopuru hori txartel bidezko edukiontzi marroiaren bidez biohondakinaren gaikako bilketan parte hartzen duten familiei eta jarduera ekonomikoei dagokie.

2025ean, 34.632 etxe daude txartel elektronikoko edukiontziaren bidez biohondakina biltzeko borondatezko sistemari atxikiak, hirian dauden familien %43. Hala ere, Donostiako etxe guztien % 17k bakarrik hondakinaren bilketa-tasagatik zerga-kuota zuzentzeko eskubidea ematen duen edukiontziaren erabilera egiten du.

Familiez gain, 2.519 enpresa eta askotariko denda atxiki ziren sistemari, hala nola tabernak eta jatetxeak, hotelak, loradendak, supermerkatuak eta elkarte gastronomikoak. Sistemari atxikitako establezimenduak eta familiak azken ur-


teetan ugaritu diren arren, biohondakinaren kopurua gutxi gorabehera berdina izan da. Bildutako materiala ondo bereizi dute sistemari atxikitako pertsonak eta sal-tokiek. 2019ko urriaren 15etik, bildutako materiala Zubietako Biometanizazio Plantan uzten da, balorizazio energetikoaren ondoren, eta digestoarekin konposta egiten da.

Biohondakinak edukiontzi bidez biltzeaz gain, 786 etxek dute konpostagailua, banakako konpostajearen edo autokonpostajearen programaren barruan, eta 83 familiak hartzen dute parte auzo konpostajeko programan, Añorga Txiki, Aiete, Errotaburu, Igeldo, Morlans, Martutene eta Ulia auzoetan, horretarako instalazioak jarri baitira auzo horietan. Etxe- nahiza auzo- konpostajen parte hartzen duten ia familia guztiek hondakinaren bilketa-tasagatik zerga-kuota zuzentzeko eskubidea ematen duen zerbitzuaren erabilera egiten dute.



BALORIZATUTAKO HONDAKINAK

Iturria: San Markoko Mankomunitatea



2020an, Zubietan dagoen Ingurumen Guneko balorizazio energetikorako instalazioa martxan jarri zen. Gipuzkoako hiri-hondakinen errefusa modu kontrolatuan errausten den instalazioa, non errekuntza-prozesu horretan sortutako beroa elektrizitatea eta beroa sortzeko aprobetxatzen den. Ingurumen Gunean daude ere beste instalazio batzuk: tratamendu mekaniko-biologikorako planta, zepen berreskuratzeko zentroa eta biogasa eta konposta ekoizteko digestore anaerobikoa eta beste instalazio osagarriak ere.

Errefusa kopurua %0,13 murriztu da 2024aren aldean. 2025ean mota horretako hondakinen 48.244.853 kg bildu dira, hau da, udalerrian kudeatutako hiri-hondakin guztien %57,70. Material hori Zubietan eraikitako balorizazio energetikoko instalazioan tratatzen da.



4.3.

KONTSUMO IRAUNKORRA


Kontsumo iraunkorra bizitzeko eta sistemak funtziona dezan beharrezkoak diren ondare eta zerbitzuen erosketa eta hornidura modu arduratsuan egitera dago begira. Partikular, administrazio, enpresa eta korporazioek egiten duten erosketa bakoitza hainbat alderdi (erosgaiaren materialak, berrezartzeko ahalmena, birziklatzeko ahalmena, ekoizpen prozesuak eta energiaren kontsumoa, material eta produktuen iraunkortasuna eta jatorria, karbono aztarna, etab.) kontuan hartuz egin dadila, eta baita produktuak egin dituztenen edo elikagaiak edo beste ondare eta zerbitzu batzuk bildu edo garraiatu dituztenen laneko nahiz gizarte baldintzak ere kontuan izanik.

Ondare eta zerbitzuen ekoizpenean, enpresa eta erakunde publikoek Ingurumena Kudeatzeko Sistema izenekoak txertatzen ari dira, beren jarduera, zerbitzu eta produktuek sorrarazten dituzten ingurumen eraginak identifikatu, prebenitu eta kontrolatze aldera, ondoren horiek murriztu, informazio publikoko ildo bat eraman eta ingurumen arloko antolaketa eta ekoizpen sistemaren txertatze egiazko eta jarraitua bermatuko duen ziurtagiri bat eskuratzeko xedez.



UDALAREN BALDINTZA-ORRIAK INGURUMEN-IRIZPIDEEKIN OSATZEA

Iturria: Donostiako Udaleko Finantza Zuzendaritza eta Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua




2025ean 88 baldintza-orri argitaratu eta esleitu dira ingurumen irizpideekin. Pandemia egoeraren ondorioz, 2020an esleitu behar ziren agiri batzuk atzeratu egin ziren, eta beste batzuk ez ziren argitaratu, eta horrek isla izan zuen 2021eko igoeran. 2025ean baldintza-orriek gora egin dute % 105 2024. urtearekin alderatuz. Europako Berreskuratze Tresnari (Next Generation) lotutako pleguetan ingurumen-klausulak sartzeak eragina izan dezake 2023 urteaz geroztik lortutako kopuruetan. Udaleko sail eta erakunde desberdinek sartu dituzte ingurumen-irizpideak baldintza-orri hauetan, eta lan desberdinak garatzeko dira, besteak beste, askotariko materiala eskuratzea, hala nola kontsumigarriak, arropa eta oinetakoak, altzariak, ur-kontsumoak digitalizatzeko neurketa-ekipoak; hainbat zerbitzu kontratatzea, hala nola streaming zerbitzua, vending makinak, bilketa pneumatikoa, garbiketa, lorezaintza, ibilgailuak erostea; proiektuak, obrak eta hainbat eraikinen birgaitzea; hainbat eremuren berrurbanizazioa; eta abar.



MATERIAL SUNTSIKORRAREN EROSKETA BERDEA

Iturria: Donostiako Udaleko Kontratazio eta Erosketen Saila




“Erosketa Berdea” deitzen zaio, produktuen alderdi ekonomiko eta teknikoez gain, produktuek bizi-ziklo osoan ingurumenari eragin diezaioketen eragina aintzat hartuta egiten den erosketari edo kontratazioari. Pandemia egoera zela eta, telelana egin ahal izan zuten udaleko langile askok, eta material suntsikorraren erosketa arrazionalizatu zen; ondorioz, material suntsikorraren aurrekontuaren beherakada nabarmena izan zen, %87 jaitsi zen 2020an eta %85 2021ean 2019 urtearekin alderatuta.

2025ean, material suntsikorraren aurrekontuak 2020a baino lehenagoko mailen azpitik jarraitzen du, eta %674 igo da 2024arekin alderatuta. 2025ean Udalak material suntsikorrean gastatutako 62.990 €-etatik %89 erosketa berdea izan da. 2025ean Udalak erositako material suntsikorraren %80 inguru “produktu berdeak” kategorian sartzen da, azken zazpi urteetako batezbestekoaren antzekoa baino aurreko urteetan baino txikiagoa.



KONTSUMO IRAUNKORRA SUSTATZEA

Iturria: Ingurumen Saila, Erosketen Saila, Cristina Enea Fundazioa





Udalak eta Cristina Enea Fundazioak sustatutako kontsumo iraunkorraren ekintza kopuruak behera egin badu ere 2025ean 2024. urtearekin alderatuta, %29, aurrekontuak, aldiz, %3 egin du gora.


Kontuan hartu behar da ekintza askok, gainera, gasturik eragiten ez dutela. 2025. urtean nabarmentzekoak dira Donostitruk, hilabetero ospatzen den merkatu herrikoa; Haziera, hazi-trukaketa eta laborantza eta agroekologiaren inguruko jakin-duria zabaltzeko eta partekatzeko leku iraunkorra; Eskolan Konposta, hezkuntza

zentroei zuzenduriko programa, hondakin organikoak sorburuan egoki ustiatzeko; eskola-baratzeen sarea, hiriko eskola-baratzeak sortu, indartu eta elkarren artean erlazionatzeko proiektua; EtxeEKOlanda proiektua, kultur etxeetako eta udal ekipamenduen terrazetan eta lur eremuetan barazki laborantzarako gunak ezarri; eta baita Saretuz, kontsumo kontziente eta eraldatzailearen aldeko sare donostiarren baitan kontsumo iraunkorragoa, kontzienteagoa eta bidezkoa- goa lortzeko egindako sentsibilizazio eta sustatze ekintzak.



ENPRESAREN ETA ERAKUNDE PUBLIKO NAHIZ PRIBATUEN INGURUMEN KUDEAKETA

Iturria: Ihobe



* Eguneratu gabeko datuak

2015. urtean udalerrian 118 ziurtagiri zeuden, 2014. urtean baino %17 gehiago. 22 ziurtapen udal-sozietateei, Euskal Herriko Unibertsitateari, Osakidetzaari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari zegozkien batez ere.

2020. urtean berdin mantentzen da ISO 14006 ziurtagiri kopurua (11), EMAS ziurtagiri bat gehiago dago (9) eta behera egin du Ekoscan ziurtagiri kopurua (3). ISO 14001 ziurtagiriaren kasuan, ez dago datu eguneraturik 2020. urtean.



4.4.

UR-KONTSUMOA

Zuzenean kudeatzen ditu Udalak ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak. Horretarako, azpiegitura zabal bat du, eta, horri esker, urtean 14.465.865 litro ur kudeatzen ditu.

Osagai moduan, 464 km hodi eta edateko ura presioan daramaten manio-bra eta kontrol elementu guztiak ditu ura banatzeko sareak. Etxeetara iristen den ura edateko ona izatea bermatzen dute udal zerbitzuek, eta azken hemezortzi urtetan kalitate egokiaren kalifikazioa lortu da udalerriko ur horniduran. 2025. urtean edangarritzat sailkatu dira analisien % 100.

764 km hodik eta behar diren gainerako elementuek saneatzen dute ura, grabitatearen edo ponpatzearen bidez garraiatzen baitute ur zikina hondakin uretarako araztegira edo isurtzeko gunera.


Uztailaren 18ko 665/2023 Errege Dekretuak, besteak beste, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua eta Uraren Administrazio Publikoaren Erregelamendua aldatzen dituenak, eskatutakoa betez, Donostiako Udala Saneamendu Sistemaren Plan Integrala prestatzen ari da hiriarentzat. Plan horren helburu nagusia sistemaren akatsak identifikatzea eta Urumea ibaiaren eta udalerriko gainerako erreken uren kalitatea hobetzea da.

Era berean, Udala ibai-, euri- eta itsas-uholdeei buruzko plan bat idazten ari da, udalerrian gerta daitezkeen uholdeei aurre egiteko plangintza eta prozedura bat izateko, arrisku handieneko eremuak identifikatuz eta balizko uholdeen inpaktuari aurre egiteko erantzuna planifikatuz, alerta-jarduera, -fase eta -mailekin.



ALTAKO ZUZKIDURA: GUZTIZKO UR-KONTSUMOA

Iturria: Añarbeko Urak Mankomunitatea. Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala




2003tik 2018ra bitartean, behera egin du uraren guztizko kontsumoak, eta, hama-hiru urteotan, pertsonako 140 litro aurreztu dira egunean. Banaketa sarea hobetu izana (ihesak kentzea, hodiak berritzea, etab.) izan daiteke azken urteotako joera horren azalpena. 2025ean, ur-kontsumoa % 1,5 jaitsi da 2024arekin alderatuta, eta biztanleko eta eguneko 206 litrotan jarri da, azken urteetako batezbestekoaren parekoa. 2020an ziurrenik hainbat faktorek eragin zuten igoera

(Elordin depositu berria martxan jartzea 2019 erdialdean, Zubietako azpiegitura berriei ura ematen diena; 2020an bisurtea izateagatik egun bat gehiago kontsumitzea; eta pandemia-egoera, non ur-galerak eta, batez ere, etxeko kontsumoa areagotu ziren). 2025eko jaitsiera fakturatu gabeko udal-kontsumoaren jaitsieran eta, neurri txikiagoan, etxeko ur-kontsumoren jaitzieran egon daiteke batez ere.



ETXEKO UR-KONTSUMOA

Iturria: Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala




Etxeko sektoreari dagokionez, 2025ean, biztanleko 129 litro ur kontsumitu ziren, egunean, 2024arekin alderatuta % 1,1 gutxiago; 2019ko erreferentziazko aldiaren baino % 4 gutxiago. Etxeko kontsumoaren hazkundearen hasiera 2020an bat etorri zen etxeratze-aldiarekin, eta altu mantendu zen hura amaitu ondoren; kontsumo globalean konpentsatu zuen jardura ekonomikoetako kontsumoaren beherakada. 2023an, etxeko sektoreko kontsumoa aztertutako serieko zifrarik txikiena izan zen; 2025ean pandemiaren aurreko bost urteetan lortutako batez bestekoa baino askoz txikiagoa da ere (138 litro biztanleko eta eguneko). 2022ko

jaitzieraren arrazoia izan daiteke kolektiboen jardura gutxiago kontsumitzea (% 12 jaitsi da) eta kontagailuen antzintasunaren ondorioz etxeko kontsumoan azpikontulajea handitzea. Etxeko per capita kontsumoa gutxituz joan den arren, 2025ean, ur kontsumo osoaren % 62,7 da, azken urteetan goranzko joera erakusten duen proportzioa (2007an, kontsumitutako ur guztiaren % 50 zen).



UR-KONTSUMOAREN BANAKETA

Iturria: Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala




Zerbitzua ematen diegun sektoreei (etxeak, jarduera ekonomikoak eta udal jarduerak) fakturatutako guztizkoari dagokio ur kontsumoaren %84,6. Berriz, fakturatu gabeko urari dagokio beste %15,4, hainbat arrazoi direla kausa (erre-gistro errorea eta kontagailuetako irregulartasunak; irakurri gabeko kontagailuak; neurtzen diren baina fakturatzen ez diren udal kontsumoak —hala nola lorategiak ureztatzea, bideak garbitzea, iturriak eta hondartzak—; isuri edo jarioengatik kontsumitzen ez den ura eta kontsumitu arren, iruzurragatik fakturatzen ez dena). 2024an etxeko kontsumoa %62,5 zen bitartean, 2025ean %62,7ra igo da, jarduera ekonomikoen kontsumoarekin gertatzen denaren antzera, 2024an %19,5 izatetik 2025ean %19,8 izatera igaro baita.



UR-AURREZPENAREN BILAKAERA

Iturria: Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala





2008tik 2019ra bitartean, hirian kontsumitzen den ur kantitatea ia laurdena murriztea lortu dugu. 2008an, 18 milioi metro kubiko ingurukoa zen Donostiara iristen zen hornidura, eta, 2019an, kopuru hori 14 milioira murriztu da, hau da, lau bat mila milioi litro aurreztu ditugu urte horretan. Hornidura sarean eta ihesen eta kontagailuen kontrol sisteman egindako hobekuntzei esker, handitu egin da hornidura sistemaren eraginkortasuna.

Hala ere, etxeko kontsumoa ere jaitsi den arren, proportzio txikiagoan murriztu da: 2008an, biztanleko eta eguneko 148 litro kontsumitzen zituzten etxeetan, eta 2019an, berriz, 134 litro. Hau da, epe horretan, %8 murriztu da.


Antzeko zerbait gertatu da jarduera ekonomikoetako kontsumoarekin: 2008an, batez beste, 46 litro kontsumitzen ziren biztanleko, eta 2019an, berriz, 43 litro eguneko.

Hala ere, pandemia-egoerak eragina izan zuen bai etxeko kontsumoan (2020an 144 litrora igo zen biztanleko eta eguneko), eta 2025ean 129 litrora jaitsi da biztanleko eta eguneko (pandemiaren aurreko bost urteetako urteko batez bestekoaren antzeko zifrak, 137 litro biztanleko eta eguneko), baita jardueren kontsumoan ere: 2020an batez besteko 35 litrora jaitsi zen biztanleko eta eguneko eta 2025ean biztanleko eta eguneko 46 litrora igo da (pandemiaren aurreko bost urteetako urteko batez bestekoaren gainetik, 41 litro biztanleko eta eguneko). Guztizko kontsumoari erreparatuz, 2020an jarduera ekonomikoen kontsumoaren jaitsiera etxeko kontsumoaren eta fakturatu gabeko uraren hazkundeak konpentsatu zuen; 2021 urtea ezkerotik, berriz, etxeko kontsumoaren jaitsierak eragin handiagoa izan du jarduera ekonomikoen kontsumoaren hazkundeak baino.



FAKTURATU GABEKO URA

Iturria: Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala



2005az geroztik, %3 inguru jaitsi da fakturatu gabeko ur bolumena, batez beste, eta, 2007tik aurrera, murrizketa nabarmenenak gertatu dira, batez ere Banaketa Sarea Kudeatzeko Udal Planeko zenbait neurri ezartzearen ondorioz, honako hauek lortu ditugu:


- Banaketa sarea sektoreka banatzea, jarioak hauteman eta konpontzeko.
- Udal instalazio eta zerbitzuetako kontsumoa kontrolatzea eta gutxitzea.
- Euri ura kaleak garbitzeko eta iturri apaingarrietan erabiltzea.

2025ean, fakturatu gabeko ura %4 jaitsi da, 2024ko beranzko joeran jarraituaz; 2008 eta 2014 artean beheranzko joera izan zen, baina 2015etik 2023ra joerak gora egin zuela zirudien. Sistemaren eraginkortasunak gora egiten jarraitzen du: 2005ean, ur eskari osoaren %38 zen fakturatu gabeko ura; 2025ean, berriz, %15ekoa izan zen kopuru hori, hau da, 2020tik izandakoaren antzekoa.



GALDUTAKO URA

Iturria: Uren Ustiapen eta Saneamenduko Zerbitzua, Donostiako Udala



2005az geroztik, galdutako uraren bolumena, hau da, itxurazko galerak (iruzurra eta irakurketa akatsak) eta galera errealak (ura banaketako sareko edo instalazioetako jarioak) barne, urteko %1 jaitsi da, batez beste, eta 2025ean 1,89 bat milioi metro kubiko galdu da. Monseko biltegia berritzeko obretan izandako matxura baten ondorioz 2015. urtean gehikuntza puntuala izan den arren, 2007tik aurrera, asko gutxitu dira galerak, eta 2007. eta 2025. urteen artean %63ko ur aurrezkia izan da, batez ere, edateko ura banatzeko sarearen sektorizazioarekin


jarioak hauteman eta kentzearen ondorioz. 2025ean, galdutako ur-bolumenaren urteko aldakuntzak %8ko iguera ekarri du.

2005ean, uraren guztizko eskaeraren gaineko ehuneko gisa, galdutako ura %29 zen; 2025ean, berriz, %13koa izan da kopuru hori, 2010etik lortutako zifren ildotik.



HONDAKIN-UREN KUDEAKETA

Iturria: Añarbeko Urak Mankomunitatea



2005etik 2009ra, Donostiako saneamendu sarean jaso eta Loiolako Hondakin Uren Araztegiaren tratatzen den hondakin uraren bolumena urtean %6 jaitsi zen, batez beste, eta aldi horretan, guztira, ia %30 jaitsi zen. Ur horiek, batez ere, edateko uraren horniduratik datoz, erabiltzaileek erabili eta estolderia sarera itzultzen baitute, bai eta kolektoreetan doan euri uraren parte batetik ere. 2010ean, Loiolako HUaren eta Monpaseko itsaspeko hustubidearen artean

lurreko hustubidea abian jarri zenean, handitu egin zen euri ura biltzeko ahalmena, eta, beraz, tratatutako uraren bolumena handitu. Prezipitazioei dagokienez, 2025a Igeldoko Meteorologia Behatokiak “lehor” gisa sailkatu du urtea, eta urte horretan kudeatutako hondakin uraren bolumena %9 jaitsi zen 2024koarekin alderatuta (hau “oso heze” bezala sailkatua).

5. BIZI- KALITATEA



Hirietako biztanleen bizi-kalitatea bermatzea eta hobetzea da hiriak klima aldaketaren aldetik birmoldatzeko politika publikoen helburu nagusietako bat. Oinarrizko elementu batzuen mende egongo da hiri bat sostengagarri izatea: pertsonen ongizate fisiko eta psikologikoa; bizitoki ingurunearen ingurumen kalitatea, era batera edo bestera, norbanakoaren eta taldearen osasunean eragina izango dute; lanerako eta etxebizitza duinak eskuratu ahal izatea, eta

gizartean parte hartzeko eta integratzeko aukerak; baita hezkuntza edo aisialdi aukerak ere, besteak beste. Askotariko baldintzak dira, konplexuak, eta, neurri batean, faktore subjektiboek eta kulturek ere baldintzatzen dituzte.

Dugun informaziotik abiatuta, hirian bizi direnen bizi-kalitatean eragina duten parametro batzuk bildu ditugu, aurreko ataletan jasotakoez gain.



5.1.


ALDERDI SOZIOEKONOMIKOAK

Hiriaren iraunkortasunaren oinarritzko habeetako bat hiriak berak bertan bizi direnentzat sorrarazten dituen baldintza sozioekonomikoak dira. Lan merkatura sartzeko erraztasunak, diru sarrerak, gaikuntzak, garapen profesionala eta gizarte babesa alderdi erabakigarriak dira Donostian bizi direnen bizi kalitateari eta oreka emozionalari so.



LANGABEZIA-TASA

Iturria: Lanbide eta Donostia Sustapena





Mendea nahiko egonkor mantentzen den langabezia-tasarekin hasi zen, %7aren inguruan. Joera hori eten egin zen 2008. urtean krisi ekonomikoaren ondorioz, eta areagotzen jarraitzen du, 2014ko amaieran zifra handienera helduaz, %12,7. 2025eko abenduan, langabezia-tasa %7,1 izan zen, urtetik urterako portzentajezko 0,1 puntu behera egin duelarik. 2024. urtean, langabezian zeuden pertsonak 6.479 ziren, 2025. urte bukaeran 6.513 direlarik, langabeen kopuruan urtetik urterako %0,5eko igoera suposatuz. 2025eko langabezia-datuak 2019ko mailen azpitik daude; izan ere, 2019ko amaieran langabezia-tasa %8,3koa izan zen, eta 7.246 pertsona zeuden langabezian. Langabezia-tasak, 2020an gora egin ondoren, pandemiak baldintzatuta, 2021ean hasitako beheranzko joera berreskuratzen du. Gipuzkoako tasa baina txikiagoa da, %7,8, baita EAEko batez besteko tasa baino txikiagoa, 2025. urtean %9,6an kokatu dena, eta Espainiakoaren batez bestekoa baino txikiagoa, epe berdinean populazio aktiboaren %9,9a baitzegoen langabezian.

Emakumeen langabezia-tasa langabezia-tasa orokorraren gainetik dago, baina azken urteetan nolabait ere parekatzen ari zirela gizonen eta emakumeen langabezia tasak ikus bazitekeen ere, 2014. urtean eta 2016. urterarte joera hau aldatu egin zen, desberdintasun handiagoa gertatuz. 2017. urtetik nolabait ere bi tasak parekatze joera dutela dirudi. 2014. urtetik 2016. urterarte gizon eta emakumeen artean erregistratutako aldea portzentajeko 2,8 eta 3,0 bitartean mantendu bazen, 2019. urtetik portzentajeko 1,1 eta 1,8 puntutara jaitsi da. 2025. urtean, %7,7ra iritsi da emakumeen langabezia tasa, langabezian erregistratutako emakumeak 3.645 izan baitira, guztizko langabezia-tasa baino portzentajeko 0,6 puntu gehiago eta 1,2ko genero-arrakala.




DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN FAMILIA KOPURUA

Iturria: Lanbide eta Informazioko Udal Unitatea



Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazioa jasotzen duten familien kopurua

---●--- Prestazio jasotako familien ehunekoa udalerriko familien guztizkoaren arabera






Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izaera ekonomikoa duen aldi baterako prestazioa da, eta horren helburua oinarritzko premiekin eta gizarteratzearekin loturiko gastuei aurre egiteko nahikoa diru-sarrerarik ez duten bizikidetza-unitateen oinarritzko premiak betetzea da.

DBE jasotzen duten familia kopuruak %9,7 egin du gora 2024. urtearekin alderatuta, prestazioa jasotzen duten familien tasa %5,9ra igo da 2025. urtean. Tasa 2020. eta 2021. urteetako gainetik dago; urte hauetan Donostiako familia askoren ekonomian eragin handia izan zuen pandemia-egoerak. Espedienteen %60 emakumeei dagozkie, 2015. urtetik datu antzekoa eta 2014. urtean baino portzentajeko bi puntu gehiago -alderik txikiena lortu zen urtea-; %40 gizonzoei dagozkie. Gainera, espedienteen %24a65 urte edo gehio dituzt pertsonei dagozkie.



HILEKO BILAKAERA





Hileko bilakaerari erreparatuta, 2019an espediente aktiboen kopuruak behera egin zuen hilabeteetan zehar (urtarrilean 3.518 izatetik abenduan 3.331 izatera igaro zen); 2020an, berriz, espediente aktiboen kopuruak gora egin zuen nabarmen apiriletik aurrera. 2025 lehenengo hiruhilekoa goranzko espediente aktiboen kopuruarekin hasten da, baina 2024. urtean baino txikiagoa. Urte erdian eutsi zaio hazkunde horri, gero beherantz egiteko (urtarrilean 3.472 izatetik abenduan 3.500 izatera igaro da). 2025. urtea 2019, 2021, 2022 eta 2024 urteetan baino espediente aktibo gehiagorekin amaitzen da, baina 2020 eta 2023 urteetan baino gutxiagorekin.


Kontuan izan behar da 2023ko martxoaren 29an jarri zela indarrean, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea, 2022ko abenduan Eusko Legebiltzarrak onartua.

Gainera, Gizarte Ekintza Sailaren Memoriaren arabera, GLLen familia onuradunen kopuruak gora egin du 2024ko datuekin alderatuta: 2.746 familia onuradun izatetik 2.806 izatera igaro da, hau da, %2,18 gehiago, pandemia aurreko urteetatik gora jarraitzen duen zifra (2.512 familia izan ziren 2019an). Konprometitutako zenbatekoa handitu da aurreko urtearekin alderatuta: 3.549.846,86 €-ko gastua izatetik 3.639.562,73 €-koa izatera igaro da, hau da, gastua %2,53 igo da; 2022an hazkunde handia (%19,7) gertatu zen gastu enegetikoak estaltzeko partidan. Kontuan izan behar da 2020an familia onuradunen kopuruak %19,8 egin zuela gora 2019arekin alderatuta, 3.008 familiara iritsiz, eta igoera hori COVID-19aren osasun-alarmaren egoerak eman zuela.



65 URTETIK GORAKOEN GIZARTE ARRETA-TASA

Iturria: Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Zuzendaritza eta Informazioko Udal Unitatea




Udaleko Gizarte-zerbitzuetatik laguntzaren bat jaso izan duen pertsona kopurua neurtzen du gizarte-arreta tasak, eta aztertutako urtean udal-erregistroan erreferentziazko profesional batekin eutsi zaie, kasu bakoitzak eskatzen duen intentsitatearekin, egoeraren jarraipena egin duena.

Hiriko bizilagunen % 25,74k ditu 65 urte edo gehiago (48.667 pertsona), eta 85 urtetik gorako pisu erlatiboa geroz eta handiagoa da. 65 urtetik gora 48.667 pertsona daude hirian; 24.681 pertsonen 75 eta 84 urte bitarte dute eta 8.259 pertsonen 85 urte baino gehiago. 85 urtetik gorako pertsonen taldeak gora egin du aztertutako seriean, 2011tik, baina 2020an behera egin zuen eta 2022tik berriro egin du behera 2021eko igoeraren ondoren.

2023an, udaleko Gizarte-zerbitzuek 65 urtetik gorako hiritarren %48-ri eskaini zioten arreta, intentsitate maila ezberdinarekin, guztira 23.191 pertsona. Arreta eskaintako taldearen adina altuagoa den heinean, estaldura-portzentaje hori ere hazi egiten da: 75 urtetik gorako artean biztanleen %66ari eskaini zaio arreta, eta %97ra arte igotzen da kopuru hori 85 urtetik gorako.



BIZI-KALITATEA | ONGIZATEA




Hiru adin-tarteetan estaldura-tasek gora egin dute 2022. urtearekin alderatuz gero. Sexuaren arabera, emakumeen estaldura-tasa gizonezkoaren estaldura-tasaren gainetik dago beti, adin-tarte nagusienean aldea txikitzen delarik.



EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Iturria: Emakunde



2005 eta 2014 urte bitartean, azaroaren 8ko 424/94 Dekretua indarrean zegoela, 26 entitatek *Erakunde Laguntzaile* aitortza jaso zuten, urteroko batezbestekoan 2,6 enpresa gehiago zirelarik. Emakume eta gizonen artean aukera-berdintasun handiagoa lortzeko jarduerak antolatuz, beren lan-gileen berdintasunean aurrera egiteko konpromisoa hartzen duten erakundeei egiten zaien aitortza da ziurtagiri hau.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretua indarrean sartzen dene-tik, 43 enpresa eta entitatek jaso dute Erakunde Laguntzaile aitortza. Hauetatik, %30ak indargabetutako aurreko dekretuaren arabera aitortza jaso zuen jada; guztiek ziurtagiria berriro lortu behar izan dute, dekretu berriak emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako eskakizun eta konpromezu maila altuagoa izateagatik. 2025Ean, hiru enpresek lortu dute ziurtagiria, 2024an baino %8 gehiago.



5.2.

OSASUNA

Pertsonen osasuna ez dago soilik faktore pertsonalen eta herentziazkoen baitan, baizik eta alderdi askoren baitan, horietako asko norbera bizi den lekuarekin zerikusia dutenak. Bizitzeko eta harremanak izateko ditugun baldintzek eragina dute komunitate osoaren eta donostiar bakoitzaren osasunean. Osasunaren baldintzatzaile sozial mota horien artean hainbat faktorek dute eragina, besteak beste, airearen kalitateak, klima, zaratak, espazio berdeak egoteak ala ez egoteak, etab. Faktore horiek guztiak hiri ereduak, auzoen konfigurazioak, joan-etorriak egiteko moduak, denboraren edo kalitatearen erabilerarekiko elkarreraginak eta espazio publikoaren banaketak baldintzatuta daude. Horiek guztiek hiri bat osasuntsua izatea ala ez izatea dakarte, besteak beste.



KUTSADURA AKUSTIKOA

Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak Soinu Giroa Hobe-tzeko Ekintza Plan berria egin du (SGHEP 2024-2029), giro-zaradari buruzko 2002/49/EE Zuzentaraua, Zaradari buruzko 37/2003 Legea eta Eusko Jaurlari-tzaren 213/2012 Dekretua betez. Plan honek Europako zarata ebaluatzeko lau-garren fasea osatzen du, eta Zarataren Mapa Estrategikoaren (ZME 2022) emai-tzetan oinarritzen da, zeinak udalerrriaren egoera akustikoa eguneratzen baituen.

SGHEP-en helburua da herritarren zaratarekiko esposizioa murriztea, hiri osasun-garriago baterantz aurrera egitea eta eremu lasaiak babestea. Hiru helburu nagusi lortu nahi dira: gauez 55dB(A)-tik gorako mailen eraginpean dagoen biztanleria %30 baino gehiago murriztea; herritarren %70 baino gehiago eremu lasaiko bal-dintzetan bizitzea lortzea (≤ 50 dB(A) Ln); eta zaradari lotutako osasun-arriskua-ren adierazleak %20 murriztea.

Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak egindako ZME 2022-ren diagnostikoak erakusten du bide-trafikoa dela zarata-iturri nagusia: biztanle-riaren %12 ingururi eragiten dio, gaur egun ezarritako gaueko mugaren gainetik, batez ere sarbide-ardatzetan eta hiri-etorbide nagusietan (Carlos I, Ategorrieta, Elozegi alkatea, Tolosa etorbidea, Frantzia pasealekua edo Erdialdeko eta Grose-ko kaleak). Tren-zirkulazioaren eta industriaren eragina txikiagoa da. Biztanleria-ren %60k eremu lasaiko berezko mailak ditu dagoeneko.



Planak kudeaketa-tresna gisa hiru Kudeaketa Ildo (KI) eta hiru Jarduera Ildo (JI) ezartzen ditu.

Kudeaketa Ildoek SGHEP-en egitura instituzionala eta teknikoa indartzea dute helburu:

LG 1 Kudeaketa eta berrikuntza, sailak koordinatzeko, araudia betetzen dela ziurtatzeko, zarata 2030 Agendan txertatzeko eta berrikuntza sustatzeko.

LG 2 Komunikazioa eta sentsibilizazioa, prestakuntza-kanpainetara, herritarren parte-hartzera eta eremu isilak balorizatzen bideratua.

LG 3 Zarataren informazio-sistema, datuen eta emaitzen biltegi georreferentzia-tua sortuko duena, udaleko IGSen integratuta.

Jarduera Ildoek akustika murrizteko zuzeneko ekintzak biltzen dituzte:

LA 1 Mugikortasun osasungarria, trafikoaren zarata murrizteko honako hauen bidez: eredu akustiko zehatzak, zoladura fonoxurgatzailearen planak, abiaduraren kontrola, 30 eremuen hedapena, garraio elektrikoaren sustapena eta Emisio Gutxi Eremuaren eraginaren ebaluazioa eta Euskotrenen hiri inguruko trenbidea martxan jartzea.


LA 2 Aisia eta atsedena, gaueko aisialdiko eta ekitaldietako zaratari heltzen diona, plan espezifikoekin — Alde Zaharrekoa nabarmentzen da —, ordutegi-kontrolarekin eta lokalek bete beharreko baldintzak zainduz.

LA-3 Eremu lasaiak, Hiri Eremu Lasaiak (HEL) eta babes bereziko “g” eremuak mugatzea eta izendatzea, kalitate akustiko oneko parkeak kontserbatzea (Cristina Enea, Miramon, Urgull, Uliia, besteak beste) eta “hiriko soinu-oasiak” izenekoak sustatzea aurreikusten dutenak.

Planak Babes Akustiko Berezik Eremu (BABE) figurari —Amara, Antiguoa, Urumea, Altza eta Erdialdea, Aiete, Igeldo eta Zubietak—, eusten dio. Eremuetako planak berrikusi egingo dira, 55 dB(A) helburuak lortzeko eta 50 dB(A)-rantz aurrera egiteko gaueko mailetarako.



GOMENDATUTAKOA BAINO ZARATA MAILA HANDIAGOA JASOTZEN DUTEN BIZTANLEAK



Industria	% 0,68	% 0,00	% 0,01	% 0,50	% 0,64	% 0,00
Trena	% 0,32	% 0,65	% 0,79	% 0,63	% 0,36	% 0,62
Errepideak	% 1,49	% 0,50	% 0,59	% 1,57	% 0,57	% 0,80
Kaleak	% 27,29	% 9,51	% 28,31	% 29,58	% 10,07	% 29,00



Indarrean dagoen legeriak kalitate akustikoko helburutzat ezartzen du egunean zehar 65 dBA eta gauean 55 dBA ez gainditzea bizitegi-erabilera nagusi duten lurralde-sektoreentzat. Adierazlea lurraren gainetik 4 metroko altueran bizi den biztanle kopuru osoarekin neurtzen da, biztanle kopuru osoa altuera horretara bilduz. Zarata nozitzen duen biztanlego osoak bere osotasunean hartzen ditu eragile guztien eragin akustikoa: bide- eta trenbide-trafikoa eta industria-jarduerak eragindako zarata. “Zaraten mapak” urteko batezbesteko maila akustikoak adierazten ditu.

Donostian, biztanleen % 70-ak 65 dBAtik beherako zarata-mailak dituzte eguneko 24 orduetan; horrek bizi-kalitatea eta ongizate akustikoa hobetzen laguntzen du. Hala ere, biztanleen % 30-k, 54.891 pertsonak, 65 dBAtik gorako zarata-maila jasotzen du eguneko 24 orduetan; kontuan izan behar da adierazle honek epe luzeko zarataren esposizioa neurtzen duela, egun osoko zarata-mailetan oinarrituta (24 ordu), gaueko zarata-mailetarako penalizazioekin (23: 00etatik 7: 00etara) eta arratsaldekoentzat (19: 00etatik 23: 00etara). Gauez, 55 dBAtik gorako zarata jasotzen duten biztanleak %32 dira, 59.873 pertsona. Biztanleek kaleetako trafikoak eragindako zarata jasotzen dute gehienbat, eta aldiz, zarata gutxiago eragiten dute errepide eta trenbideetako trafikoak eta industriak.

Aurreko zarata-mapan, 2016ko datuei buruzkoan, eragindako biztanleria %11koa zen eguneko 24 orduetan, eta %12koa gaueko aldian. Kalkulu-metodologia aldatu egin da 2021eko zarata-mapan, eta lortutako datuak ezin izan dira erabat alderatu aurreko faseekin alde metodologikoengatik; datu zehatzagoak eta doituagoak lortu ahal izan dira, eta horrek eragina izan du eragindako biztanleriaren 2021eko hazkundean.

2010eko zarata-maparen datuen arabera, 54.891 pertsona zeuden eguneko 24 orduetan 65 dBA-tik gorako zarata-mailen eraginpean, biztanleriaren %30; gaueko aldian, berriz, 59.873 pertsona zeuden 55 dBA-tik gorako mailan, biztanleriaren %32.


Gogoratu behar da 2002ko zaraten mapen datuen arabera, 68.124 pertsonak jasotzen zutela 65 dBAtik gorako zarata maila eguneko 24 orduetan, eta gauez, 55 dBA-tik gorako zarata jasotzen zutenak, 79.210 pertsona ziren.

Aurreko faseen bilakaeraren azterketan, zarata-foku bakoitza kontuan hartuta, ikus daiteke esposiziopeko biztanleria murrizteko joera dagoela errepideen eta industriaren kasuan, bai 24 orduetan, bai gauez, eta trenbidearen eta kaleetako bide-trafikoaren kasuan, berriz, goranzko joera dagoela 24 orduetan, eta antzekoa gaueko aldian.



GAUEAN KANPO ZARATAREN ESPOSIZIOPEAN DAGOEN BIZTANLERIA

Iturria: 2022, 2017 eta 2011ko Zarata Mapak. Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza (Donostiako udala)





Gauetz gomendatutakoak baino maila akustiko handiagoen eraginpean dagoen biztanleriaren bilakaeraren azterketan, hau da, eragindako biztanleriarik handiena duen aldian, 50-54 dB eta 55-59 tarteetan goranzko joera ikusten da, eta eraginpeko biztanleria maila akustiko altuenetan jaisten da, 60-64 dB eta 65-69 dB. Ez dago 70 dB-tik gorako mailen eraginpean dagoen biztanleriarik.


Maila akustiko altuenak sortzen dituzten inguruneko zarata-fokuak errepideko bide-trafikoa da, baina zaratak oro har eragiten dion biztanleria-kopuru handiena kaleetako bide-trafikoari zor zaio. Zarata-maila handienak sortzen dituzten kaleak hirira sartzeko bideak eta erdiguneko auzoetako arteria nagusiak dira, bai bertatik zirkulatzen duten ibilgailuen kopuruagatik, bai, bigarrenen kasuan, kaleen tipologiagatik.

Kutsadura akustikoa jasaten duen populazioa murrizteko egiten diren jarduerak hiriko zarata arintzen duten esku-hartzeak dira, hala nola hiriko bide guztietan 30 km/h-ko abiadura-muga, berariaz seinaleztatutakoak izan ezik (esaterako, hirira sartzeko bideetan, horien gehieneko abiadura 50 km/h-koa edo 40 km/h-koa baita), Erdialdean eta Gros eta Antigua auzoetan ezarritako trafikoa baretzeko eremuak edo 30 zonak ezartzea, oinezkoentzako guneak jartzea, Carlos I hiribidean egindakoa bezalako trafikoa berrantolatzea, pantaila akustikoen zati jakin batzuetan jartzea, etab.




FORU SAREAN GOMENDATUTAKOA BAINO ZARATA MAILA HANDIAGOA JASOTZEN DUTEN BIZTANLEAK

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetako zarata-mapak. 4.Fasea. Memoria 2023ko Ekaina



Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetako Zarata Maparen arabera, 13.646 pertsona daude, egunez, 55dB(A) mailatik gorako esposiziopean, hau da, biztanleriaren %7,3 inguru. Arratsaldez, kopuru hori 11.445 pertsonatara jaisten da, biztanleriaren %6,1 ingurura.

Eraginpeko biztanle gehienak 55-60 dB(A) eta 60-65 dB(A) tartetan daude. Aldiz, maila altuagoekiko esposizioa askoz txikiagoa da: egunean zehar, 1.431 pertsonak gainditzen dute 65 dB(A) maila, eta arratsaldean, berriz, 729 pertsonak. 70 dB(A) mailatik gorako esposiziopean dagoen biztanle-kopurua oso txikia da: 14 pertsona egunez eta 0 arratsaldez.



Gauetz, Foru Sareko zaratarekiko esposizioak intzidentzia txikiagoa du termino absolutuetan, baina nabarmentzeko modukoa izaten jarraitzen du gaueko atse-denaldia sentikorragoa da-eta. Mapak dioenez, 7.668 pertsona daude 50 dB(A) mailatik gorako esposiziopean gauetz, hau da, Donostiako biztanleriaren %4,1 inguru.



AIREAREN KALITATEA

Hirietan airearen kalitatea lehen mailako arazo bat da, kutsadura atmosferikoko mailekin eta emititzen den kutsadura motarekin larriagotua. Bizitzarako oinarrizko ondarea den airearen kalitatea babesteko lehendabiziko arauak 70eko hamarkadakoak dira. Airearen kalitatea ebaluatu eta kutsadura mailak nahiz indarreko araudia betetzen ote den begiratzeko, hirian Eusko Jaurlaritzaren Kutsadura Atmosferikoaren Kalitate eta Zainketa Sareko parte diren 6 estazio daude instalatuta. Estazio horiek Añorga Txiki, Ategorrieta, Tolosa Hiribidea, Easo, Puio eta Zubietan daude kokatuta; airearen kalitate alorreko araudian adierazten dituen kutsatzaileak, nagusiki, sufre dioxidoa (SO_2), nitrogeno oxidoak (NO eta NO_2) ozono troposferikoa, karbono monoxidoa (CO), bentzenoa eta suspentsioan diren partikulak (PM_{10} eta $\text{PM}_{2,5}$), neurtzen dituzten analizatzaile eta sentsoreekin hornituta daude. Gainera, hainbat parametro meteorologiko neurtzen dira, esate baterako, haizearen abiadura eta norabidea, tenperatura, hezetasun erlatiboa, presioa, erradiazioa eta prezipitazioa. Horiek, orografiarekin, emisio iturrien jatorriarekin, fluxuen bolumenarekin edota sor daitezkeen erreakzio fisiko eta kimikoekin batera, airearen kalitatea une eta leku jakin batean era jakin batekoa izatea dakarte. Estazioetako airearen kalitatearen indize orokorrak bost kutsatzaileetako edozeinetan neurtutako maila okerrean islatzen du.

Airearen kalitatea zaintzeak atmosferan diren agente kutsatzaileen presentzia zehazteko balio du, eta baita horien pilaketak denboran nahiz espazioan duten bilakaera zehazteko ere, giza osasunean eta ingurumenean sorraz ditzaketen eraginak prebenitu eta, hala badagokio, murrizteko xedez.

Gaur egun, airearen kalitateari dagozkion balio mugak airearen kalitatea hobetzeari buruzko 102/2011 Errege Dekretuan ezartzen dira (39/2017 Errege Dekretuak aldatua). Balio horiek araudia betetzen den ala ez jakiteko aplikatzen diren legezko estandarrak dira. 2024an airearen kalitateari buruzko Europako araudi berri bat onartu da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/2881 Zuzentaraua, 2024ko urriaren 23koa, Europako inguruneke airearen kalitateari eta atmosfera garbiago bati buruzkoa, kutsatzaileentzako muga-balio eta helburu berriekin, eta zuzentarauaren transposizioa egiteke dago.

2024/2881 Zuzentarauaren baremora egokitzeko, Airearen Kalitatearen Indize Nazionala berrikusten ari dira, airearen kalitatearen sei kategoria ezartzen dituean: ona, nahiko ona, erregularra, kaltegarria, oso kaltegarria eta erabat kaltegarria.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, airearen kutsadura ingurumen arrisku adierazgarria da osasunerako eta 2005ean airearen kalitatean jorratzen diren kutsatzaileetarako (nitrogeno oxidoa, suspentsioan diren partikulak eta ozono troposferikoa) exigentzia handiagoko erreferentziatzeko hainbat balio jasotzen zituzten gida batzuk argitaratu zituen. Jarraibide horiek 2021ean eguneratu dira, airearen kalitatearen muga-balio berriak aurrekoak baino txikiagoak izanik.



NO₂-AREN URTEKO BATEZBESTEKOA

Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





102/2011 erret-dekretuak, airearen kalitatearen hobekuntzari dagokionak (39/2017 Errege Dekretuak aldatua), osasunaren babeserako ingurumen-baldintzetan nitrogeno dioxidoaren muga balioa urte zibilean $40 \mu\text{g}/\text{m}^3$ izango dela ezartzen du. Gainera 24 orduko denbora tartean, eguneko muga-balioa ordubeteko batez bestekon $200 \mu\text{g}/\text{m}^3$ izango da, eta ezingo da gainditu 18 bider baino gehiagotan urte zibil baten. 2024/2881 Zuzentarauak nitrogeno dioxidoaren urteko muga balioa $20 \mu\text{g}/\text{m}^3$ izango dela ezartzen du.

2025. urtean zehar ez da behin ere gainditu NO_2 dioxidoaren $200 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko orduko muga-balioa, eta beraz inola ere ez da gainditu legeriak ezartzen duen baldintza, hau da, urtean orduko muga-balioa, asko jota, 18 bider gainditu ahal izatea.

2025. urtean urteko batez bestekoa 2024. urteko batez bestekoa baino baxuagoa izan da hiru estaziotan: $18 \mu\text{g}/\text{m}^3$ Eason, $18 \mu\text{g}/\text{m}^3$ Ategorrietan eta $5 \mu\text{g}/\text{m}^3$ Añorgan. Antzeko zifratan mantendu da Puion, $11 \mu\text{g}/\text{m}^3$, eta Zubietan, $9 \mu\text{g}/\text{m}^3$: eta gora egin du Tolosa Hiribidean, $13 \mu\text{g}/\text{m}^3$. Ez da gainditu indarrean dagoen legeriak NO_2 dioxidoarentzat ezartzen duen $40 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -ko urteko muga-balioa, ezta 2024ko Zuzentartauak ezarritako balio berria ($20 \mu\text{g}/\text{m}^3$) ere.


NO_2 aren kasuan, Osasunaren Mundu Erakundeak egindako *Aire kalitatearen gidak: 2005eko mundu mailako eguneratzea* gidak indarrean dagoen legediaren urteko muga bera ezartzen zuten ($40 \mu\text{g}/\text{m}^3$). OMEren 2021eko gidalerroen eguneratzearen arabera, urteko batez bestekoari dagokion gida-balio berria ($10 \mu\text{g}/\text{m}^3$) gainditu da estazio guztietan Añorga eta Zubietako estazioetan izan ezik. Jarraibide berri horiek, halaber, eguneko batez bestekoaren gida-balioa $25 \mu\text{g}/\text{m}^3$ -tan ezartzen dute. Kasu honetan, gida-balioa 82 aldiz gainditu da Eason (169 izan ziren 2023an eta 106 2024an), 63 aldiz Ategorrietan (104 izan ziren 2023an eta 74 2024an), 14 aldiz Tolosa Hiribidean (27 izan ziren 2023an eta 16 2024an), 11 aldiz Puion (29 izan ziren 2023an eta 18 2024an), behin ere ez Zubietan (7 izan ziren 2023an eta 2 2024an) eta behin ere ez Añorgan (2023 eta 2024an bezala).

Pandemia-egoeraren ondorioz 2020an aplikatutako mugimendu-murrizketek eragina izan ahal izan zuten nitrogeno dioxidoaren (NO_2) mailetan, honen kutsa-tzaile-iturri nagusia ibilgailuen trafikoa delako. Urteko batez bestekoen jaitsiera nabarmenagoa izan zen trafikoa kontrolatzeko estazioetan (Ategorrieta eta Tolosa hiribidea).



PM₁₀ PARTIKULEN URTEKO BATEZBESTEKOA

Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





102/2011 erret-dekretuak, airearen kalitatearen hobekuntzari dagokionak (39/2017 Errege Dekretuak aldatua), osasunaren babeserako ingurumen-baldintzetan PM_{10} partikulen gehienezko balorea urte zibilean $40 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du. 2024/2881 Zuzentarauak PM_{10} partikulen urteko muga balioa $20 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du. 2024an, Puioko estazioan ez da lortu araudian ezarritako gutxieneko eskuratze-ehunekoa.

2024. urtearekin alderatuta, 2025ean urteko batezbestekoek gora egin dute Tolosa Hiribidean eta Puion, $13 \mu g/m^3$ y $12 \mu g/m^3$ baliotara iritsiaz hurrenez hurren. Antzeko zifratan mantendu da Ategorrietan ($21 \mu g/m^3$), Añorgan ($16 \mu g/m^3$) eta Zubietan ($13 \mu g/m^3$), eta behera egin du Eason, $16 \mu g/m^3$ baliora iritsiaz.


Inolaz ere ez da gainditu legeak ezartzen duen urteko gehienezko balorea, $40 \mu g/m^3$, bai, ordea, 2024ko Zuzentartauak ezarritako balio berria ($20 \mu g/m^3$) Ategorrietako estazioaren kasuan.

Osasunaren Mundu Erakundeak egindako *Aire kalitatearen gidak: 2005eko mundu mailako eguneratzea* gidak kontuan izanda, 2025. urtean Ategorrietako estazioan OMEn gida balioa ($20 \mu g/m^3$) gainditu da, eta ez da gainditu gainerako estazioetan —Tolosako hiribidea, Añorga, Easo, Puio eta Zubieta—. OMEn 2021eko gidalerroen eguneratzearen arabera, gida-balio berria ($15 \mu g/m^3$) Ategorrieta, Easo eta Añorgako estazioetan gainditu da.



PM₁₀ PARTIKULEN EGUNEKO MUGA BALIOEN GAINDITZEA

Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





102/2011 erret-dekretuak, airearen kalitatearen hobekuntzari dagokionak (39/2017 Errege Dekretuak aldatua), osasunaren babeserako ingurumen-baldintzetan PM_{10} partikulen gehieneko eguneko balorea 24 orduko denbora tartean $50 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du. Balore hau ezingo da gainditu urtean 35 aldiz baino gehiagotan. 2024/2881 Zuzentarauak PM_{10} partikulen gehieneko eguneko balorea $45 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du. Balore hau ezingo da gainditu urtean 18 aldiz baino gehiagotan.

2025ean PM_{10} partikulen urteko batez bestekoan $50 \mu g/m^3$ -eko datua behin bakarrik gainditu da Ategorrietako estazioan eta behin ere ez ganontzeko estazioetan.



Inolaz ere ez dira gainditu legeak ezartzen dituen urteko 35 egunak, eguneko muga balioei dagokionez. Ez dira gainditu ezta era 2024/2881 Zuzentarauak ezartzen dituen urteko egun kopurua (18), eguneko $45 \mu g/m^3$ muga balioei dagokionez.

Osasunaren Mundu Erakundeak egindako *Aire kalitatearen gidak: 2005eko mundu mailako eguneratzea* gidak kontuan izanda (2021eko gidalerroen eguneratzearen arabera, gida-balioa berdin mantentzen da), 2025. urtean urteko balio-muga gainditzen den aldi kopurua (3) Ategorrietako estazioan gainditu da (8 aldiz), Añorgan (2 aldiz) eta Puion (behin) eta ez da gainditu gainontzeko estazioetan.



PM_{2,5} PARTIKULEN URTEKO BATEZBESTEKOA

Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





102/2011 erret-dekretuak, airearen kalitatearen hobekuntzari dagokionak (39/2017 Errege Dekretuak aldatua), osasunaren babeserako ingurumen-baldintzetan $PM_{2,5}$ partikulen gehienezko balorea urte zibilean $25 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du. 2024/2881 Zuzentarauak $PM_{2,5}$ partikulen urteko muga balioa $10 \mu g/m^3$ izango dela ezartzen du.

2025. urtean urteko batez bestekoak 2024. urteko batez bestekoen antzeko balioetan egon dira estazio guztietan (Easo eta Zubieta, $8 \mu g/m^3$; Añorga eta Ategorrieta $7 \mu g/m^3$; eta Puio, $6 \mu g/m^3$), Tolosa Hiribidean salbu, non gora egin duen, $7 \mu g/m^3$ -ra iritsiaz.

Inolaz ere ez da gainditu legeak ezartzen duen urteko gehienezko balorea, $20 \mu g/m^3$, ezta 2024ko Zuzentarauak ezartzen duen balio berria ($10 \mu g/m^3$).

Osasunaren Mundu Erakundeak egindako *Aire kalitatearen gidak: 2005eko mundu mailako eguneratzea* gidak kontuan izanda, 2025. urtean ez da gainditu urteko batezbestekoaren gida balioa ($10 \mu g/m^3$). OMEren 2021eko gidalerroen eguneratzearen arabera, aldiz, gida-balio berria ($5 \mu g/m^3$) estazio guztietan gainditu da.



KUTSATZAILEENTZAKO LEGE-MUGAK ETA GOMENDIOAK BETETZEA

	TOLOSA HIRIB.		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	13	13	7
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³

	ATEGORRIETA		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	18	21	7
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³

	EASO		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	18	16	8
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³

	ZUBIETA		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	9	13	8
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³

	AÑORGA		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	5	16	7
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³

	PUIO		
	NO ₂	PM ₁₀	PM _{2,5}
URTEKO BATEZBESTEKOAK	11	12	6
LEGEZKO MUGA	40	40	25
GIDA BALIOA OME	10	15	5
2024 ZUZENTARAUAK	20	20	10

Unitatea: µg/m³



AIREAREN KALITATE-INDIZEA

Tolosa Hiribideko 2025. urtean zehar, %98ra iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko sei egunekin eta kalitate “txarra” izan duten bi egunekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz.

Easoko estazioan %95era iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko hamasei egunekin eta “txarra” kalitateko bi egunekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz, “erregular” kalitateko egun bat salbu NO₂aren ondorioz.

Ategorrietako estazioan %89ra iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko hogeita hamahiru egunekin eta “txarra” kalitateko sei egunekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz, “erregular” kalitateko egun bat salbu NO₂aren ondorioz.

TOLOSA HIRIB.
% 98

EASO
% 95

ATEGORRIETA
% 89

AÑORGA
% 95

PUJO
% 97

Zubietako estazioan %98ra iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko zazpi egunekin eta “txarra” kalitateko egun batekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz eta “ertaina” kalitateko zazpi egun ozonoangatik.

ZUBIETA
% 98

Añorgako estazioan %95era iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko hemezortzi egunekin eta “txarra” kalitateko bi egunekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz.


Puioko estazioan %97ra iristen dira kalitate “oso on” edo “ontzat” sailkatutako egunak, tartean, “erregular” kalitateko bederatzi egunekin eta “txarra” kalitateko bi egunekin, guztiak material partikulatuaren ondorioz eta “ertaina” kalitateko egun bat ozonoangatik.

Inolaz ere ez da gairitu nitrogeno dioxidoaren 200 µg/m³ orduko muga baliola ez eta ozonoaren informazio ataria (180 µg/m³).



AIREAREN KALITATEAREN BILAKAERA


Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





AIREAREN KALITATEAREN BILAKAERA

Iturria: Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea. Eusko Jaurlaritza. Donostiako Udaleko Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua





2015. urtetik aurrera, airearen kalitatearen adierazleak Eusko Jaurlaritzak ezarritako kontzentrazio-tarteak erabilita kalkulatu dira. Tarte hauetako mugak aurreko urteetan erabilitakoak baino baxuagoak dira. 2019tik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren airearen kalitatearen adierazleak bost kategoriatako sailkapenaren arabera argitaratzen dira (Oso ona, Ona, Erregularra, Txarra eta Oso txarra). 2024/2881 Zuzentarauaren baremora egokitzeko, Airearen Kalitatearen Indize Nazionala berrikusten ari dira, airearen kalitatearen sei kategoria ezartzen dituean: ona, nahiko ona, erregularra, kaltegarria, oso kaltegarria eta erabat kaltegarria.

2025ean, airearen kalitateak “oso ona” edo “ona” sailkapena jaso du 357 egunetan Tolosa Hiribideko estazioan, 357 egunetan Zubietako estazioan, 354 egunetan Puioko estazioan, 347 egunetan Easoko estazioan, 345 egunetan Añorgako estazioan eta 326 egunetan Ategorrietako estazioan. Estazio guztietan, Puion salbu, airearen kalitatea “oso ona” edo “ona” izan diren egunek gora egin dute 2024aren aldean.

Pandemia-egoeraren ondorioz 2020an aplikatutako mugimendu-murrizketek eragina izan ahal izan dute airearen kalitatearen indizeetan lortutako datuetan. Eragin hori nabarmenagoa izan daiteke nitrogeno dioxidoaren (NO₂) mailetan, kutsatzailea honen emisio-iturri nagusia ibilgailuen trafiko motorduna baita.



BERDEGUNEAK

Hiri eraikian berdeguneak hiriaren bizigarritasunerako kontuan izan beharreko elementu nagusietako bat dira. Landareak dituzten hiriko gune horiek era askotakoak izan daitezke: parkeak, plazak, lorategiak, kale eta hiribideak, plaza txikiak edo zuhaitz apaingarriak edo babes-landareak landatuta dituzten bestelako guneak. Leku horiek hainbat funtzio betetzen dituzte: hiria oxigenatzen dute, klimaren baldintzak hobetzen dituzte, horren metabolismoa errazten dute, biodibertsitatea areagotzen dute eta hiriko paisaia aberasten dute. Elkartzeko eta sozializaziorako lekuak dira, eta pertsonen ongizate emozionalean eta fisikoan laguntzen dute. Hirien erosotasuna eta bertako bizi-kalitatea hiriko landareek ematen duten ongizatearekin lotzen da azkenaldian. Gaur egun, klimari buruzko politikek azpimarratzen dute natura hirian integratu behar dela, eta Osasunaren Mundu Erakundeak, berriz, osasunerako duen garrantzia nabarmentzen du.

Donostiako hiri-antolamenduan hiriko espazio libreen barruan daude definituta eta identifikatuta era horretako lekuak –HAPOn ezarritako zona globaletan edo azpizonetan–, eta, azalerari dagokionez, erabilera mugatua izatea eta titulartasun eta erabilera publikoa izatea dituzte ezaugarri.

Zuhaitz edo landare motaren bat duten hiriko espazio libreen azalera kalkulatzeko egin den landa-lanari esker, espazio bakoitzaren artifizializazio edo eraldaketa maila ikusi ahal izan da. Egin den kalkulua hiriko espazio libre gisa kalifikatutako zona globalei edo azpizona xehatuei dagokie zehazki. Ez daude sartuta, beraz, landareak dituzten hiriko beste hainbat eta hainbat eremu publiko edo pribatu.



BERDEGUNEAK

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila

Hiriko berdeguneak, herritarrek aisialdiko edo atsedenaldirako jarduerak egiteko erabiltzen dituztenak, hau da, parkeak, plazak, lorategiak, kale eta hiribideak, plaza txikiak edo landare apaingarriak edo babesleak landatuta dituzten bestelako guneak, gaur egun 399,07 ha inguru dira, azalera urbanizatuaren %20,3, alegia. Berdegunee-tara bideratutako hiriko azalera biztanleko 21,21 m²-koa da, eta hiriko bizikaltatearen adierazlea da hori OMEren arabera; izan ere, biztanleko berdeguneen 10 eta 15 m²inguruko balioa gomendatzen du batez beste.





MUGIKORTASUN AKTIBOA

Paseatzea Donostiako kulturen sustraituta dagoen jarduna da. Hiri aldirietako zonak eta Urumea ibaiertzeko zonak birsortzeari esker jarduera osasuntsu hori mantendu eta garatzea ahalbidetzen ari da, besteak beste, sedentarismoarekin lotutako gaixotasunak prebenitzea dakarrena.


Hirian egunero zenbatzen diren miloi erditik gorako joan-etorrien %45 oinez egiten dira. Azken hamarkadetan espazio publikoan izan den eraldaketari esker oinezko zona eta bideak sortu dira. Horietan oinez edo paseoan ibiltzeak, jomuga ezberdinetarako joan-etorriak eta irisgarritasuna ahalbidetzeaz gain, hiriari dagokion komunikazioa eta bizikidetzaz zilegitzea dakar. Eguneroko zereginetara (lan egitera, ikastera, aisiara, etab...) oinez joatea, osasun pertsonala hobetzeko ez ezik, lagungarri da motordun joan-etorriek izaten duten ingurumen inpaktuak (zarata, kutsatzaileen eta CO₂ emisioak eta espazio publikoaren okupazioa) murrizteko.

Txirrindua hiriko edozein tokira segurtasunez joatea ahalbidetzen duen beste bide tarteko aktibo eta osasuntsu bat da. 2025. urtean egunero 28.412 joan-etorri zenbatu ziren ibilgailu merke, efiziente eta ez kutsatzaile horretan. Milaka pertsonak erabiltzen dute beren eguneroko zereginetarako. 2010. urtetik txirrinduaren erabilera % 131 areagotu da, Donostiako hiri paisaiaren parte izatera pasaz.



JOAN-ETORRI AKTIBOAK: OINEZ ETA BIZIKLETAZ

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlanak. 2007, 2011, 2016 eta 2021. Eusko Jaurlaritza



Donostian egunero egiten diren joan-etorrien %50,7 garraiobide aktiboen bidez egiten dira. Horietako gehienak oinez egiten dira, eta hiri barruko joan-etorri guztien % 46,2 dira. Bizikletak, berriz, gero eta presentzia handiagoa du; gaur egun, hiri barruko joan-etorri guztien %4,5 da, gutxi gorabehera.



KLIMAREN TESTUINGURUA

Hotza eta beroa, haizea eta hezetasuna, euria, elurra, ekaitzak bizitzaren ingurune fisikoaren funtsezko fenomenoak dira. Donostiak, itsasoaren eraginez, klima epel ozeanikoa du, eta tenperatura leunak, hezetasun erlatibo handia, ohiko hodeiak eta euri ugari egiten du urte osoan zehar.


2017an Klima Aldaketara Egokitzeko Plan bat egiteko, txosten bat egin zen <https://www.donostia.eus/ataria/documents/8023875/8050879/DIAGNOSTIKOA.pdf/fc6873d3-8a09-45e0-a4a0-505a6ea2880c>. Txosten horretan, hiriko klima-alaketaren aurkako kalteberatasunari eta arriskuari buruzko diagnostikoaren emaitzak jasotzen dira. Funtsezko gaia da, besteak beste, klima-mehatxu nagusien aurrean udalerrriak izan dezakeen eragina ezagutzeko.

Azterlanean lantzen den lehen gaietako bat klimaren joera historikoen analisia da, Igeldoko estazio meteorologikoan 1929 eta 2015 bitarteko denborazko datu-serieko tenperatura-, prezipitazio- eta hezetasun-aldagaien azterketatik abiatuta. Halaber, emisio-agertoki batzuetarako etorkizuneko tenperatura- eta prezipitazio-proiekzioak aztertzen ditu, atal honetan jasotako bi eremuak baitira.



URTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

Iturria: AEMET




2025. urtea “Oso bero” gisa sailkatu da Igeldoko Behatokian tenperaturari dagokionez, serieko hirugarren urterik beroena; 2023. urtea 1928tik izandako bigarren urterik beroena izanik 2022 urtearen ondoren, urte hartan 2020ko efemeridea gaindituaz. 2025ean iraila bakarrik kalifikatu da “normal” gisa; gainontzeko hilabeteak “beroa” (martxoa, maiatza, uztaila eta urria) eta “oso beroa” (urtarrila, otsaila, apirila, ekaina —1928. urtez gerztik bigarren ekainik beroean—, abuztua, azaroa eta abendua) gisa kalifikatu dira.

Joera-lerro haztatuak aurreko 10 urteetako batez besteko tenperatura islatzen du, eta azken 20 urteetan tenperaturak gora egin duela erakusten du.



URTEKO GUZTIZKO PREZIPITAZIOA

Iturria: AEMET



2025. urtea “lehor” gisa sailkatu da Igeldoko Behatokian, prezipitazioei dagokienez, eta nabarmentzekoak dira otsaila, maiatza, urria eta abendua, “lehor” gisa sailkatuak; ekaina eta uztaila, aldiz, hezeak izan ziren eta abuztua “oso hezea”.

Joera-lerro haztatuak aurreko 10 urteetako urteko guztizko prezipitazioa islatzen du, eta azken urteetan prezipitazioak gora egin duela erakusten du.



5.3.

PARTAIDETZA


Donostiako Udalak herritarren partaidetzarako hainbat ekimen, bide eta espazio ditu ezarrita, erantzunkidetasun komunitarioa oinarri dituen gobernantza bat udalerri osoan zabaltzeko asmoz.

Partaidetzaren arloan, batetik hiriak Udal dinamikan partaidetza garatzeko zenbait lan lerro eta organo ditu (Kontseiluak, dirulaguntzak, elkarteentzako lokalak, Partaidetzazko Aurrekontuak...) eta bestetik Udal sail ezberdinen eskariz eta beharren arabera, tokian tokiko edo gai zehatzen inguruko partaidetza prozesuak aktibatzen dira.



KONTSULTAK HERRITARREN POSTONTZIAN

Iturria: UdalInfo - Herritarren arretarako zerbitzua (Dobostiako udala)





Herritarren postontziaren urteko txostenean jasotzen denez, 2025. urtean zehar guztira 27.519 komunikazio jaso dira, horietako gehienak, %72, kanal teknologikoen bidez (2021ean sare sozialen bidez jasotako komunikazioak sartu ziren). Datu horiek adierazten dute komunikazioen igoera 2024an erregistratutakoen aldean, baina 2020an erregistratutakoen azpitik dago, urte hartan, Herritarren Postontziaren ezohiko erabilera eman zen, ziurrenik 2020ko martxotik aurrera sortutako pandemia-egoeragatik. Datuen arabera, badirudi pandemiaren ondoren kopuruak egonkortu egin direla eta Postontzia aurreko urteetan baino gehiago erabili dela. Aztertutako serieari erreparatuta, ikusi da 2020tik 2022ra kontsultek erregistro kopuruan gainditzen dituztela kexa eta iradokizunak; 2023tik, aldiz, kontsulta kopuruak behera egiten du eta gehiago dira aurkeztutako kexak. 2024an Postontzian arrazoiak sinplifikatu ziren. Horregatik, lehen “Iradokizun” gisa identifikatzen ziren komunikazio asko, “abisu” gisa sailkatzen dira orain, eta aurreko urteetako konparaketa zertxobait aldatzen da.


Emakumeek erabiltzen dute gehien postontzia: emakumeak %54 dira, eta gizoneak %46 (generoa ez da azaltzen komunikazioen herenean baino gehiago).

Jasotako komunikazioen %46,6 Hiri Mantenu eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak artatu ditu. Gai nagusiek parke eta lorategiekin, edukiontzi eta zaborren bilketarekin, bide publikoarekin garbiketarekin, ostalaritzako terrazekin, argiteriarekin, hiri altzariekin edo egoera txarrean zeuden espaloi edo galtzadekin zerikusia dute. Mugikortasun Zuzendaritzara bideratu dira komunikazioen %13,5, eta ibilgailuen aparkamenduekin eta TAO zerbitzuekin lotutakoak dira gehien errepikatzen diren gaiak. Finantza Zuzendaritzak komunikazioen %12,9 jaso du. Gehien-gehienak ordainagirien zenbatekoekin lotutako kontsulta eta kalkuluei buruzkoak. Hiru Zuzendaritza horietan metatu da jasotako kexa, iradokizun eta kontsulta guztien gehiengoa. Ingurumen arloan komunikazio guztien %4,8 jaso da. Horietako kopuru handi bat arratoi, uso eta katuekin lotutako salaketei buruzko kontsulta, kexa eta iradokizunak dira, baita eta zaratak, usainak edo isuriak eragindako eragozpenekin zerikusia dutenak.



INGURUMENAREN KONTSEILU SEKTORIALAREN BILERETAKO PARTAIDETZA

Iturria: Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)





Ingurumeneko Kontseilu Sektorialaren Araudiaren (IKS) behin betiko Onespenak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 13an argitaratu zena, aurreko Kontseilua desagitea ekarri du. Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berriaren Eratze Bilkura 2015eko azaroaren 3an egin zen.

2015eko eratze-prozesuaren ondoren, hiriko 26 erakundek, gizarte-ospe bereziko kolektibok eta hainbat norbanakok osatzen dute Ingurumeneko Kontseilu Sektorial berria, Udalean ordezkaritza duten talde politiko guztietako delegatuekin batera. 2022an, 19 ziren kontseiluko kideak; erakunde eta kolektibotatik %79 aurreko Kontseilu Aholkulariko kide ziren jada. 2023an, udal-hauteskundeetatik eratorritako Kontseilua berriratzeko prozesuaren ondoren, 10 kide izatera igaro dira.

IKSean dauden erakundeak tipologia ezberdinetakoak dira: erakunde ekologistak eta naturaren defentsakoak, erakunde zientifikoak, etab. Norbanako batek ere hartzen du parte. Erakundeen %20 emakumeek ordezkatzeko dituzte, eta %80, gizonezkoek.

Parte-hartzea 2015az geroztik erregistratutako asistentziekin alderatuta murrizten ari zen aldi baten ondoren, eta 2023an bilerarik egin gabe, lau bilera egin dira 2025ean; partaidetza-tasa %53 izan da, eta batez beste 5 partaide izan dira saio bakoitzeko. IKSeko kide guztien %70 gutxienez 2025ean egindako bilera batera joan da. Bileretara joan diren ordezkarien %5 emakumeak izan dira, eta %95 gizonak.



5.4.

ETXEBIZITZA

Azterketa batzuk eta konparazio eta parte-hartze publikoko prozesu bat egin ondoren, 2019ko maiatzean onartu zuen Etxebizitza Plana Etxegintza, udalaren etxebizitza enpresaren administrazio kontseiluak. Plana egin aurretik egindako diagnostikoan funtsezko zazpi arazo identifikatu zituzten: Etxebizitza izateko arazo larria dago, nola erosita hala errentan hartuta izateko ere; izan ere, prezioak asko igo dira eta ia ezinezkoa da herritarrek etxebizitza bere modutsu batean izateko bidea edukitzea.

Gizarte eta etxebizitza zaurgarritasunak geroz eta jende gehiago eta geroz eta jende klase gehiago jotzen du. Arrazoi askogatik: krisi ekonomikoa, lanaren eze-gonkortasuna, dibortzioak eta apartatzeak ugaritzea edota biztanleria zahartzea (bakarrik eta pentsio txikiekin bizi diren emakume alargunak, horietako asko eta asko).

Hala, biztanle aurrerago eta zaharragoak ditugu, batetik, eta etxebizitza-parkea ere zaharra eta irisgarritasun arazo handiak dituena daukagu, bestetik.

Babes publikoko etxebizitzak egiteko modua ere ez dago erraz, ordea, etxebizitza mota horiek egiteko moduko tokirik handienetan etxe horiek egiteko bideragarritasun ekonomikoa zaila da eta.



Gainera, etxe handi askotan, pertsona bat edo bi besterik ez dira bizi; baina, bestalde, oraingo familia unitateak batez beste txikiagoak dira, eta etxebizitza txikiagoak eskatzen dituzte. Eta etxebizitza jabetzan duen pertsona askok, batez ere adineko jendeak, irisgarritasun edo egokitzapen falta duten etxeak dituzte, eta ez daukate horri aurre egiteko baliabiderik.

Hala, Udalaren Etxebizitza Planak 5 jarduera-ardatz estrategiko dakartza arazo horiei aurre egiteko: Aurreneko ardatzak Udalaren babespeko etxebizitza sistemen baliabideak zaurgarritasun egoera berezian dauden kolektiboentzat jartzea du helburu. Horretarako, bi jarduera ildo dauzka. Bat, esleipen prozedurak berriz begiratu eta baremazio sistema bat jartzea, genero ikuspegia eta emakumeak etxebizitza aldetik dituen zailtasunei bereiziki begiratuta. Eta bi, alderdi sozialari gehiago begiratzea alokairuko etxebizitza parkea kudeatzeko garaian, udaleko beste arlo batzuekin eta beste erakunde eta gizarte erakunde batzuekin batera lan eginda.

Bigarren ardatzak, berriz, modu oneko alokairuko etxebizitza gehiago eskaintza du helburu, kolektibo behartsuenei etxebizitza izaten laguntzeko. Ardatz horrek hiru jarduera ildo ditu: hutsik dauden etxebizitzak mugiarazten saiatu eta alokairuko etxebizitza poltsa handitzea; zuzkidurako bizitoki gehiago sustatzea; eta babes publikoko etxebizitza berriak sustatu eta errentan ematea.

Hirugarren ardatzaren helburua etxe eta etxebizitza zaharrak berritzea da, eta bizigarritasuna, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzea. Ardatz hori lau lan lerrotan banatuta dago: etxebizitza parkearen irisgarritasuna hobetzea, batez ere auzo eta talde ahulenentzat; eraginkortasun energetikoa kontuan izatea obrak egiteko orduan; etxebizitzak zatitzea, dugun etxebizitza parkea ahalik eta gehien aprobetxatzeko; eta kontrol neurri batzuk jartzea, birgaitzeko laguntzak ondo erabili eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzea segurtatzeko.


Laugarren ardatzak herritarren beharrak aldatu egiten direla dauka kontuan, eta bizi-ibilbideak laguntzea du xede, hiru jarduera ildo hauen bidez: etxebizitza-trukeak erraztea, elkarlaneko etxebizitzaren ekimenak babestea eta gazteentzako etxebizitza partekatuen programa bat bultzatzea.

Azkenik, 5. ardatzaren xedea donostiarrei etxebizitzaren gaineko informazio eta aholkularitza zerbitzu integrala eskaintzea da.



ERAIKITZEKO LIZENTZIA EMAN ZAIEN ETXEBIZITZAK

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila





2007tik aurrera, nabarmen jaitsi zen eraikitzeke lizentziak emanak zituzten etxebizitzaren kopurua —babes publikokoak izan zein libreak izan—, eta 2009an iritsi zen urte haietako mailarik baxuenera; urte hartan, lizentzia-kopurua 2006an emandakoen laurdena baino txikiagoa izan zen. 2010ean eta 2011n, aurreko bi urteetan baino lizentzia gehiago eman ziren, baina 2012tik aurrera, emandako lizentzien kopurua murriztu zen berriro, eta, azken 12 urte horietako daturik baxuena 2014an izan zen. 2015. eta 2016. urteetako igoeraren ondoren, 2017an eta 2018an emandako lizentzien kopurua berriz jaitsi zen, eta, gainera, 2017an ez zen lizentzia bat ere eman etxebizitza babestuak eraikitzeke.

Bi urtez emandako lizentzien guztizko kopurua handitu ondoren, 2021etik etxebizitza libretearako ez da lizentziarik eman; aldiz, etxebizitza libretearako emandako lizentzien kopurua %12 jaitsi da 2024an, 2023an gora egin ondoren. 2024an emandako 314 obra-lizentzia horietako gehienak Ilarran (70 lizentzia) eta Atotxa Errekan (67 lizentzia) eman dira.

2024an, eraikitzeke lizentzia lortu duten etxebizitza libreen %46 erabilera-alaketagatik nahiz lehendik zeuden etxebizitzak banatzeagatik sortutako etxebizitza berriak dira, eta gehienak Zabalgunean (47 lizentzia) eta Grosen (38 lizentzia) eman dira.

6. BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURKETAK



Berotegi Efektuko Gas Emisioen Inbentarioak (BEG) planetaren berotze orokorraren jarraipena egiteko nazioarteko komunitate zientifikoak eta instituzio politikoek baliatu ohi duten tresnetako bat dira. Karbono dioxidoa da (CO_2) berotze orokorraren gas eragile nagusia, nahiz eta ez den bakarra. BEG modura aintzatetsitako beste gas batzuk dira oxido nitrosoa (N_2O), metanoa (CH_4), perfluorokarbonoak (PFC), hidrofluorokarbonoak (HFC) eta sufre hexafluoruroa (SF_6). Inbentario horietan, era berean, karbonoen hustulekuen xurgatze ahalmena ere aintzatesten da, baso masena kasu.

Eusko Jaurlaritzak, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearekin (Udalsarea) batera emisioak kalkulatzeko tresna bat garatu du, Berotegi Efektuko Gas Emisioen Protokolo Orokorrean ezarritako metodologiari jarraitzen diona. Aintzatetsitako emisio motak sektore ezberdinetan (industria, bizitegia, zerbitzuak edo lehen sektorea) erabilitako erregaiekin lotutakoak, lurralde bakoitzean kontsumitutako elektrizitatearen sorrerarekin lotutakoak eta, adibide batera, beste udal barruti batean kudeatzen diren udalerriko hiri hondakinekin lotutako emisioak dira.



SARRERA

Urtero atmosferara berotegi efektuko zen bat gas (BEG) isurtzen den jakitea hiri metabolismoaren funtsezko faktorea da. Horrek, gainera, aukera ematen du ikus-teko zenbateraino bete diren Udalak azken urteetan onetsi dituen plangintza tresnetan ezarritako murrizketa helburuak, bai eta klimaren eta energiaren aldeko alkateen azken itunetik eratorritako konpromisoak ere; hain zuzen ere, 2017an atxiki zitzaion hiria itun horri, eta, modu horretara, bat egin zuen 2015eko Pa-risiko Klimaren Goi Bileraren ondorioz hartu ziren nazioarteko konpromisoekin.

Udal Gobernuak 2018an onartutako Klima Plana 2050 da hiriak klima aldake-taren erronkari emandako erantzuna. Ez da politika publiko bat garatzeko beste plan bat, baizik eta udal politika guztiak egituratzen dituen plan bat, Udaleko atal guztien jarduerak biltzen dituen eta gizarte aldaketa handi bat eskatzen duena. Planak tarteko helmuga bat ere ezarri zuen 2030ean; hain zuzen, urte horretan, klima aldaketaren politikek erreferente bihurtu behar dute nazioartean, berotegi efektuko gasen isurketak %40 murrizteko. Udalerrriak babestutako Ener-

giaren eta Klimaren aldeko Alkateen Itunak barne hartzen ditu, emisioak arintze-ko konpromisoa ez ezik, erresilientzia edo klima aldaketaren asaldurak baretzeko gaitasuna areagotzea, eta baita energia eraginkortasuna eta energia berriztaga-rrien erabilera handitzea ere; gainera, kolektibo ahulenak lehenesten ditu, eta herritarrak borroka horretan inplikatzeko.

Koronabirusaren pandemiaren eta martxoaren 14an deklaraturako alarma egoera-ren testuinguruan, Tokiko Gobernu Batzarrek, martxoaren 17an, klima larrialdia-ren adierazpen bat onetsi zuen. Horren bidez, onartu zuen berrikusi egin behar direla planean ezarritako helburuak eta jarduketak, lehenago bete daitezkeen, eta areagotu egin behar direla horretara bideratutako baliabide ekonomikoak. Ekin-tza horien bidez bermatu nahi da urteko berotegi efektuko gasak murriztea, erre-gai fosilak alde batera uztea eta energia berriztagarrien aldeko apustua egitea, karbono isurketa garbirik bat ere izan ez dadin ahalik eta azkarren.



Tokiko gobernuaren konpromisoa ezinbestekoa da, baina pertsona eta erakunde, kolektibo eta eragile sozial eta ekonomiko guztien laguntza behar du, agintaldi batetik harago, ziklo politiko batetik harago. Donostiar guztien inplikazioa ere behar du, orain inoiz baino gehiago, mugikortasun, elektrizitatearen eta gasaren kontsumo edo hondakinen sorkuntza aldetik ditugun ohiturak aldatzeko.

Era berean, adierazi behar da berotegi efektuko gasen isurketak ezin direla %40 murriztu, modu berean, sektore guztietan eta epe berberetan. Mugikortasunean aukerak nahiko zabalak dira (guztizkoaren %40) eta eraikinetan ere izan litezke (%13 bizitegietan eta %13 zerbitzuetan), baina industriaren isurketak murriztea (udalerriko isurketen %28) askoz zailagoa da, zementu fabrikazioaren ezaugarriengatik; izan ere, jarduera hori Añorgan instalatua dago eta hortik datoz udalerriko industria jatorriko emisio gehienak.

Hiria klima agertoki berrietara egokitzeko, Urumea ibaiaren ibarra egokitzea izan da inbertsio nagusia, uholde arriskua murrizteko. Bigarren faseari Uraren Euskal Agentziak (URA) ekin dio, Loiola, Txomin eta Martutene auzoetan.


Egokitzapen planean jasota eta jada eginda dauden beste azterlan batzuek aukera ematen dute hiriaren mapa termikoa izateko, klima aldaketak hiri eremuko zerbitzu eta azpiegitura kritikoetan zer inpaktu duen aztertzeko, 27. poligonoko ibarretan beharrezkoak diren azterketa hidrologikoak egiteko edo uholde arriskua eta hiriko hondartzetan dituen ondorioak xehetasunez aztertzeko.

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak helburu berriak ezartzen ditu erkidego-mailan (hala nola 2030erako isurketak %45 murriztea 2005. urtearekiko, eta beranduenez 2050erako neutraltasun klimatikoa lortzea eta 2030erako energia berriztagarriek azken kontsumo energetikoan duten partaidetza gutxienez %32 izatea lortzea), eta, gainera, tokiko gertakarietarako eskakizun berriak ezartzen ditu.



BEROTEGI EFEKTUKO GAS EMISIOEN INBENTARIOA

Iturria: Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)





2007. urtea erreferentziazkoa da udalerrian berotegi-efektuko gasen isurketen bilakaeraren jarraipena egiteko. Ordudanik, Berotegi Efektuko Gasek beheranzko joera dutela dirudi. 2007. eta 2023. urteen arteko guztizko emisioak %47 murriztu egin dira; industria sektorearen emisioak kontutan izan gabe, murrizpena %48koa da, DSS Klima 2050 Planean 2030erako ezarritako helburua gaindituaz. 2023ean, guztizko emisioak 806.271 tCO₂e izan dira; industria sektorearen emisioak kontutan izan gabe, 505.535 tCO₂e.

2023an, emisio-maila txikienera heldu zen 2007ko erreferentzia-urteaz geroztik (%47ko jaitsiera izan da erreferentziazko urtearekin alderatuta), eta %4eko jaitsiera 2022arekin alderatuta. 2020ko datuak, pandemia-egoeragatik oso baldintzatuak, %21 jaitsi ziren urte hartan eta 2007aren aldean %40. 2017an eta 2018an urteko igoerak izan ziren, %4,35 eta %1,48, hurrenez hurren. Industria sektorea zenbatu gabe –gustizko emisioen inbentarioan %37a da sektore hau–, emisioek %9 egiten dute behera 2023. urtean 2022. urtearekin alderatuta.

Emisioen jatorriari dagokionez, gehienak, %84, erregaiak erretzeak sortutako emisioak dira (berogailuetan, ibilgailuetan, etab.), eta %15, berriz, hirian kontsumitzen den energia elektrikoa sortzeko sortu diren zeharkako emisioak dira.

2007tik 2016ra bitartean egondako BEG emisio-murrizketa krisi ekonomikoa eta mix elektrikoaren BEG emisioen intentsitatearen murrizketaren (tCO₂ ratioa lurralde jakin bateko produkzio elektrikoaren modu guztiek sortutako energia

elektrikoaren unitate bakoitzeko) ondorioa, besteak beste, izan da. 2017. eta 2018. urteetan izandako igoerak ez ziren seinale ona Klima DSS 2050 Planean ezarritako murriztapen helburuentzat, nahiz eta 2018an udal-planetan kontuan hartutako eremuetan murrizketa txiki bat hauteman zen. 2019an izandako beharakada, industria-sektorearen behin-behineko datuekin, datu globalak hobetu egin zirela adieraz lezake, bai eta udal-planetan kontuan hartutako eremuetan murrizketa handi bat ere.

2020an, pandemiaren ondoriozko inpaktuak, hiri-metabolismoaren funtsezko fluxuetan izandako aldaketetan hautemandakoak, hala nola desplazamenduen murrizketan, energia-kontsumoaren jaitsieran edo hondakinen sorreraren murrizketan, eta hondakinen tratamendurako metodo berri bat martxan jartzeak, 2020an sortutako berotegi-efektuko gasetan islatu ziren.

2021ean, hiria eta mundua osasun-krisi global batean bizi ziren, nahiz eta adierazleek susperraldi sozioekonomikoa adierazten zuten, eta emisioek behera egin zuten 2020arekin alderatuta, energia berriztagarriek Estatu mailan elektrizitatea sortzeko ekarpen handiagoa egin zutelako, alde batetik, eta gure lurraldean joan-etorriak murriztu egin zirelako eta hondakinen tratamendua aldatu egin zelako, bestetik. 2023an, 2007ko erreferentzia-urtetik emisioen mailarik txikiena lortu zen, eta beheranzko bidean jarraitzen da.

2022. urteko igoeraren ondoren, 2023an elektrizitatearen emisio-faktorea murriztu egin zen (%25), eta 2007 eta 2023 artean %70eko jaitsiera metatu zen, eta horrek ere emisioak murrizten laguntzen du.




JARDUERA-SEKTOREEN ARABERAKO BANAKETA

Iturria: Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)

2023an, emisioek behera egin dute sektore guztietan, industrian izan ezik, 2022. urtearekin alderatuta.

Industria sektorea zenbatu gabe eta emisio difusoak bakarrik kontuan izanda, hau da, Emisio Eskubideen Merkataritzaren araudiak eragiten dituen industriaeta energia-instalazioak kontuan hartu gabe, emisio gehien eragiten dituen sektorea garraio motorizatua da beste behin ere, emisioen %67arekin, sektore horrek hiriko energia-kontsumoetan duten pisuaren ondorio zuzena; handitu egin da azken urteetan (%60koa zen 2019an). Garraio sektoreko isurien %64 turismoei dagokie, %30 kamioiei eta furgonetei eta %5 autobusei. Garraio sektoreko isurketak, 2014 eta 2017 artean lau urtez jarraian hazi ondoren, 2018tik 2021era behera egin dute, 2020an jaitsiera askoz nabarmenagoa izanik (%23 jaitsi dira 2019aren aldean, eta %32 2007aren aldean), eta 2023an beheranzko bidean berreskuratzen dute: %0,5 murriztu dira 2022arekin alderatuta, eta %36 2007arekin alderatuta.

Etxebizitzaren sektorea udalerriko isurketen %15 da (industria kontuan hartu gabe); sektore honetako isurketen %33 elektrizitatearen kontsumoari lotuta daude, %67 gas naturalari, eta gainerakoa, gasolioari eta petrolioaren beste deribatu batzuei lotuta daude. Bizitegi-sektorearen isuriek %2ko jaitsiera izan dute 2023an 2022arekin alderatuta: izan ere, bai etxeetako elektrizitate-kontsumoa eta baita Estatuko mix elektrikoa jaitsi egin ziren, eta baita gas naturalaren kontsumoa eta, batez ere, gasolioaren kontsumoak ere behera egin duelako; 2007. urtearekin alderatuta, sektore horretako isurketak %63 murriztu dira.





Zerbitzuen sektorea udalerriko emisioen % 17 da (industria kontuan hartu gabe); zerbitzuen sektoreko emisioen % 49a elektrizitate-kontsumotik eratortzen dira (zerbitzuen sektoreko kontsumo elektrikoak gora egin du 2023an, baina mix elektrikoak behera egin du), eta gainerako % 51a gas naturalaren, gasolioaren eta petrolioaren beste deribatu batzuen berokuntza-kontsumoagatik. Bigarren aldiz (lehendabizikoz 2021ean), proportzioa aldatzen da, gas naturaletik, gasoliotik eta petroliotik eratorritako beste deribatuetatik eratorritako emisioak elektrizitateatik eratorritako emisioetara gaindituz. Zerbitzuen sektoreko isurketek gora egin dute 2014tik, 2016an izan ezik, eta 2018tik 2020ra berriro behera egiten dute, 2021ean eta 2022an, berriz, gora egin zuten, eta 2023an berriro jaitsi egiten dira, % 20, kontsumo energetikoen jeitsierak eragina (elektrizitatea, gas naturala eta gasolioa eta GLP); 2007. urtearekin alderatuta, sektore horretako isurketek % 47 egin dute behera.


Hirian sortutako hondakinen kudeaketa isurketa guztien % 0,3 da (industria kontuan hartu gabe). 2023an, piloan bildutako hondakinek (errefusa deritzoguna, hondakinen kudeaketan BEG gehien sortzen duena) behera egin zuten, eta haien kudeaketatik eratorritako emisioak % 57 murriztu dira. Kontuan izan behar da hondakinen kudeaketaren tratamenduan izandako aldaketa; izan ere, 2020an tratamendu mekaniko-biologikoko planta eta balorizazio energetikoa abian jarri ziren, zabortegean biltegiratzea baino CO₂ gutxiago isurtzeko faktorearekin. 2007. urtearekin alderatuta, sektore horretako isurketak % 98 murriztu dira.

Emisio-banaketa sektoreka aldatu egin da 2007. urtearekin alderatuta: garraio-sektorearen pisua handitu egin da, % 54,1etik % 59,2ra, eta zerbitzu-sektorearen pisua antzekoa da, % 17,6tik % 17,4ra; bizitegi-sektorearen pisua, berriz, jaitsi egin da, % 21,2tik % 15,1era; eta hondakinen pisua, % 7,1tik % 0,3ra. Abeltzaintzari eta nekazaritzari eutsi egin zaie antzeko kopuruetan. % 0,6 inguru. Industriaren sektorea kontuan hartuta, sektore horrek pisua galdu zuen azken urteetan udalerriko emisioen guztizko zenbaketan: 2007an % 36 zen, % 30era jaitsi zen 2019an eta 2023an, berriz, % 37.



BEG EMISIOAK BIZTANLEKO

Iturria: Ingurumen Osasunaren eta Jasangarritasunaren Zerbitzua (Donostiako Udala)





Biztanleko emisioak, industria kontuan hartuta zein hartu gabe, jaitsi egin dira 2007az geroztik, nahiz eta 2016. urtetik goranzko joera antzeman zitekeen. 2019an joera hori hautsi egin dela dirudi eta biztanle bakoitzeko isurketak murriztu egin direla. 2020ko pandemia-egoeraren eraginak, elektrizitatearen emisio-faktorearen murrizketarekin batera, berotegi-efektuko gasen murrizketa garrantzitsuan du isla. EAEko Berotegi Efektuko Gasen emisioen inbentarioaren arabera, 2023an, BEGen emisioak, guztira, 7,33 tCO₂e-koak izan dira biztanleko, eta emisio difusoak, berriz, 4,15 tCO₂e-koak, biztanleko. Aldi berean, Donostian,

biztanleko BEG-en emisioak 4,27 eta 2,68 tCO₂e-koak izan dira, hurrenez hurren, EAEko datuak baino baxuagoak. Hala ere, kontuan hartu behar da, datuak ez direla erabat alderagarriak metodologia aldeengatik. Euskadin, 2023. urteko emisioak %11 jaitsi dira 2022. urteakoen aldean, sektore ia guztietan (industrian, garraioan, bizitegi-sektorean, zerbitzuetan, energia-sektorean eta hondakinetan), nekazaritza sektorean igoera txiki bat izan ezik, emaitza globalean pixu gutxirekin.



ESKERTZAK

Donostiako Udala

Sergio Fernández

Osasuna eta Ingurumena Zuzendaritza

Ana Juaristi

Izaskun Agirrezabal

Alex Iturbe

Ingurumen Osasunaren
eta Jasangarritasunaren Zerbitzua

Asun Yarzabal

Bioaniztasuna eta Ingurumena
Kudeatzeko Atalal

Victoria Esnaola

Alaitz Iraola

Asier Goya

Ingurumena Kudeatzeko Bulegoa

Jon Gastañares

Iker Mardaras

Mikel Lasa

Asier Manuel

Energia Eraginkortasun Atala

Koldo Saénz

Ingurumen Diziplinaren Atala

Conchi Unanue

Osasun Publikoaren eta Animalien
Ongizatearen Zerbitzua

Jon Chávarri

Olaia Garoña

Hirigintza Sostengagarriko
Zuzendaritza

Manu Narváez

Lehendakaritza

Ibon Ramos

Pilar Braceras

Ihintza Lizarraga

Informazioko Udal Unitatea

Jone Argoitia

Mugikortasuneko Zuzendaritza

Fermín Echarte

Iñaki Baro

Mugikortasuneko Atal Teknikoa

José Ramón Renilla

Josu Sarobe

Hiri Mantentze eta Zerbitzuen
Zuzendaritza

Fernando Pérez

Urak Ustiatzeko eta Saneamenduko
Zerbitzua

Aintzane Garmendia

Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

Ana Txurruka

Laida Arrieta

Berdintasun Bulegoa

M^a Jesús Martín

Kontratazio eta Erosketen Atala

Ana Álvarez

Loreto Sola

Laura Muguerza

Finantza Zuzendaritza

Amaia Aguirreolea

Iñaki Otamendi

Auzoak eta Herritarren Partaidetza

Lourdes Berasarte

Jon Sanz

Herritarrez Arduratzeko Administrazio
Atala (Udal!nfo)

Estibaliz Yagüe

Donostia TIK

Isabel Aguirrezabala

Gorka Oñartzabal

Donostia Turismo

Iñigo Olaizola

Maite Ayestarán

Bibiana Libreros

Leire Elvira

Aritz Torres

Donostiako Sustapena

Igor González

Javier Vallejo

Arantza Munduate

Maite Santos

Donostiako Tranbia Konpainia (DBus)

ESKERTZAK

Mankomunitateak eta Patzuergoak

Enara Intxausti

Isidro Salaberria

Elena Egurrola

Nerea Hernández

San Markoko Mankomunitatea

—
Jose Ángel Ercilla

Iban Zubeldia

Añarbeko Urak

—
Eluska Renedo

Yon Zugasti

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde
Agintaritza

—
César Gimeno

Amaia Moreno

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa
– GHK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Iñaki Bañares

Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako
Zuzendaritza Nagusia

—
Silvia Pérez

Susana Luzuriaga

Cecilia Barranco

Bide Azpiegituretako Departamentua

Eusko Jaurlaritza

Alex Boto

Mari Mar Alonso

Miriam Arrizabalaga

Loli Lorenzo

Mari Luz Gómez

Ana Mezo

Carlos Castillo

IHOBE, Ingurumen
Jarduketarako Sozietate Publikoa

—
Ana Ramos

Uraren Euskal Agentzia

Enrique Monasterio

Arantxa Zugasti

Guillermo Basañez-Unanue

Urko Buendía

Energiaren Euskal Erakundea – EEE

—
Mariví Albizu

Nadia Arcarazo

Josu Urrutia

EAE-ko Egurats Kalitatea
Zaintzeko Sarea

—
Ane Miren Fernández

Cristina Dúcar

Emakunde – Emakumearen
Euskal Erakundea

—
Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua

—
Osasun Publikoaren
eta Adikzioen Zuzendaritza

—
Imanol Rodríguez

Energiaren, Meategien eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza

Josu Beloki

Lurralde Plangintza, Etxebizitza
eta Garraio Saila

Besteak

Ángel Borja

AZTI

—
AEMET, Estatuko
Meteorologia Agentzia

—
Jesús Yusta

Carmelo Montaña

Jon Martínez

Nortegas

—
Iberdrola

—
Xabier Lejarzegi

ENEK - Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

20 25

IRAUNKORTASUNARI
ETA KLIMARI
BURUZKO URTEKO
TXOSTENA

DONOSTIA



Patronoak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra



Laguntzailea

